


Tratabideak

Bizente Barandiaran





Bizente Barandiaran

Bizente Barandiaran Itsasondoko Urkia baillaran jaio zan, Urkigoen-azpi baserrian, 1917-ko ilbeltzaren 24-an. Gaur, berriz, Altzan bizi da, Garbera baserrian, *Eroski* supermerkatuaren ondoan.

Bertsozale purrukatua izan da betidanik, ezin konta-aal saiotan entzule arretatsu izan dana, eta bere kidako bertsolariekin lagun miña.

Baiña bera ere bertsolaria degu, plazetan baiño geiago lagunarteetan kantatu duana.

Idazten asi eta leenengo *Zartu gabe ezin bizi* izeneko liburua eskeiñi zigun prosaz, 1990-ean, Auspoa-ren 209 zenbakian. Ondoren, *Lanik gabe ezin bizi* izenekoa, berau ere prosaz, 1995-ean argitara emana, Auspoa-ren 231-garrena.

36697

GAS-129/14

Tratabideak

Auspoa Liburutegia

265



AUSPOA • SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Bizente Barandiaran

Tratabideak

Auspoa Liburutegia
(1999)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotoconposaketa: Irudi, S.L. Lizarra

ISBN: 84-95378-02-7

Depósito Legal: NA. 2.500-1999

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Estella (Navarra)

Itzaurrea

BIZENTE Barandiaran adiskidea aspaldiko ezaguna dute *Auspoa*-ren irakurleak.

Beraren 209 alean, 1990 urtean, *Zartu gabe ezin bizi* izeneko liburua eskeiñi zigun, bere aur eta gazte-denborako gertakizunik jakingarrienak kontatuz; jaiotako etxetik eta baillaratik –Itsasondoko Urki-tik– alde egin artekoak, alegia.

Ordurarte atxurra, akuillua, igitia, sega, aizkora, laiak eta orrelakoak askoz ere geiago erabilitako gizona genduan; baiña zaartu ta gero probatutako langintza berri orri gustoa artu zion. Ala, luma dantzatzen eta papera beztutzen jarraitu zuan, andik bost urtera, 1995-ean alegia, bigarren liburua plazaratu arte, *Auspoa*-ren 231 zenbakian. Ona nola zion liburu onen itzaurrean:

“Lenago ere badet beste liburu bat, gaurkoa bezelaxe denbora pasatzeko egiña. Idaztea oso gogozkoa beti izan det. Al dedan arte langintza oni segi egin nai nioke. Ez dakit, ordea, noiz arteko libertadea izango dedan”.

Izenburu au aukeratu zuan liburu orrentzat: *Lanik gabe ezin bizi*. Itzaurrean onela baitzion:

“Goizean, etxetik irten ordurako, ikusten det alde guzietan lana. Ezin utzi asi gabe. Ekiten diot gutxi egiteko idean, baiñan beti berdin gertatzen zait: asitako lana bukatu egin nai, eta lengo sasoiak pikutara joana. Ustez zerbait naizelakoan, baiñan ezin. Azkenerako, izerditan busti, nekatu, jenio-txartu eta asitako penarekin”.

Baiña bere denbora nolabait ere pasa egin bear, eta ara zer konponbide bururatu zitzaion:

“Baiñan, aseran diotan bezela, lan gabe ezin bizi. Orduan, atxurra bakarrik utzi bear ko det. Denbora txarrean, idazten; eta, ona dagoanean, ferira buelta bat eman. Lagunartera sarri, trago batzuk egiñez”.

Bere bi liburu oien gaia itz auen bidez adierazten zuan:

“Lenengo liburua gazte denborako kontuekin idatzi nuan. Baiñan geroztik urte zoriontsu aietako gertaera geiago bururatu zaizkit. Oiek, oroitu aiñean, papererazten jardun naiz. Eta, azkenean, beste liburu bat osatu det. Ea irakurlearen gogokoa izaten dan”.

Baiña bigarren liburu orren probak alkarren artean zuzendu genituanean, langintza astun ori bukatutzat eman bezin laster, bera asi zitzaidan irugarrena egiteko nundik joko ote zuan galdezka.

Orixe ere lan pisua izaten da. Eta ajola aundi-koa, noski, ortan asmatzea. Bertsolariak ere gai ego-kia nai izaten dute, bertso borobil batzuk kanta aal izateko. Berdin gertatzen zaio liburua idatzi nai duanari ere.

Ala, eskari ori entzundakoan, nere buruari eragin nion zerbait bururatuko ote zitzaidan. Gai bat eman ere bai, baiña bere oztopoak bazituan eta alde bat utzi bear izan genduan. Kolpe utsa, beraz, leendabizikoa.

Bion arteko tertuliarekin jarraitu genduan, beraz. Eta Bizente, idazterakoan ez-ezik izketan oso kontalari ona baita, garai bateko periak eta tratuak zer ziran adierazten asi zan. Eta orra bat-batean eta konturatu gabe liburu-gai polita berak azaldu. Nai zuana or zuala esan nion, eta berari ondo iruditu zitzaion. Orduko erabaki orren frutua da, beraz, gaur esku artean dezun idazkia, irakurle.

Bi zati ditu liburu onek: leenengoan, ganadu-tratuak aitatzen zaizkigu; gertatutako kontuak alegia, batzuk egilleak berak egiñak eta besteak bere aurrekoei entzunak. *Oroipenak* izeneko jeneroan sartu bearke lirake, beraz. Eta zera agertzen digute argi eta garbi: Ordizi, Tolosa, Ernani eta abarreko periak baserritarrentzat bear-bearrezko billeralekuak zirala. Ango artu-emanik gabe, beren bizimodu aurrera nola atera?

Bigarrenkoa, berriz, Bizentek berak asmatua da. Nobela labur bat egiten ausartu zaigu, beraz, asko luzatu ez badu ere. Baserri batean gurasoak eta seme bakarra bizi dira. Aiek au noiz ezkonduko dan zai daude, etxeko martxa bideratu dedin. Noizbait bear eta orrela gertatzen da. Makiña bat euskal baserritan gertatutako kontua, beraz.

Gertakizun oietan azaltzen diran gizakiak ez dakit zenbat izango diran. Baiña bakoitzak, txanda eltzen zaionean, bere irizpideak ematen ditu. Alkarrizketa oiek irakurritakoan, zera batez oartzen gera: egokiera ortan jarritakoan, orrelaxe itzegiten duala gure euskal jendeak. Arrazoi oietxek azaltzen dituala, alegia, eta itz oietxekin.

Ala, ez dakit, bada, leen esandakoaren erdia jan bearrean ez ote nagoan. Bizentek, naiz eta nobela-jeneroan sartu, ez ditu danak asmatzen. Bere inguruan ikusi eta entzun dituanak ematen ari zaigu. Gure erriaren bizitzaren lekuko edo testigu biurtzen da.

Bein baiño geiagotan esan izan degu, idazten degun euskera itzegiten dan euskeratik oso urruti dagoala; eta, ori egitearekin, geren buruari arrika ari gerala. Baiña oraingo ontan ez du keja orrek balio. Bizentek, berak eta erri-jendeak itz egiten duten antzeko euskera ixuri du orri auetan, gure zorionerako. Ala, aren arrazoiak leenengo kolpean ederki ulertzen dira, eta batere lanik gabeko irakurketa ori oso atsegingarri egiten zaigu.

Orixe gertatzen da beti erri-jendeak papererazten duan euskerarekin. Baiña ez danok berdin idazten dutelako. Bakoitzak bere joskera eta bere ezaugarriak ditu. Ala, Bizente onen alderdi bat aita-tu nai nuke: esaldi motxen aldekoa dala. Puntu batetik bestera oso itz gutxi sartzen ditu. Baiña parrafo oso bat irakurritakoan, zera ikusiko degu: ango esaldi eta arrazoi guziak alkarrekin oso ondo josita daudela, eta pieza bat ederki osatzen dutela, esan-nai eta puntu egoki batzuek bertsoa borobiltzen duten bezelaxe.

Itzaurrea liburua egin da gero idatzi oi da beti edo geien-geienetan. Ala, Bizentek eta biok liburuari azken irakurketa eman ondoren ari naiz sarrera au idazten. Eta aldi ontan ere, gure langintza ori bukatutakoan, leengoan bezelako izketaldia egin genduan: urrengo liburu batentzat zer gai aukeratuko ote genduan.

Bizente ori, izan ere, oraindik ere ortarako gogotsu dago, bere larogei ta bi urterekin. Etxeko alabak ere animatu egiten du. Ikusten denez, naiago du aita sukalde epelean maaian eseri eta luma dantzatzen ikusi, baratzan atxurrarekin baiño.

Geren zalantzak erabili genituan. Baiña azkenean gai polit bat bururatu zitzaigula uste det. Bera zer ote dan? Barkatu, irakurle; baiña bego kontu ori izkutuan oraingoz beintzat, gaur asmo utsa dana pixkanaka gauzatu arte. Auxe bakarrik esango dizut: zure gustokoa izango dalakoan nagoala.

A. Z.

Ganadu-tratuak



Bizente Barandiaran

Bitori eta Burgoseraiño

LENGO lanak poztuta astera noa berriro idazten. Bi liburu aietan nere baillarako eta gazte denborako kontuak jarri nituan. Orain, berriz, aitonari entzunak eta abar. Poztuko nintzake zuen gogozkoak balira.

Oso buru argia zuan nere amaren aitak. Bi etxeak, gurea Urkigoen-azpi eta ama zanarena Urkigoena, alkarren ondoan daude, eta udaberriko eta udazkeneko laia-lanak alkarrekin egiten genituan bi pameliak. Gaur ez da iñor lan ortan ikusten.

Gazte askok ez dute jakingo laiak zer diran. Burnizko bi anka luzeak dituzte, eta goian egurrezko eldulekua. Gizona nekatu erazteko erreminta ederrak ziran.

Goizean zortziak aldera asi eta amarrak aldera ogia eta gazta pixkaren bat ardoarekin eramaten baziguten, lurrean eseri eta ura artu; eta segi berriz ere amabi t'erdiak aldera arte. Orduan bazkari billa bakoitza bere etxera.

Arratsaldean aitona ordubietarako an izango zan soro baztarrean. Egunero siesta, baiñan ordu laurden bat bakarrik. Ni ez nintzake joango, ori egi-tekotan. Bi ordu ohea da neretzat.

Egunean zortzi edo bederatzi ordu jarduten giñan. Aste osoan, ateri bazan.

Zenbat kontu eta istori esaten zigun gure aitona goretatik arratsera arte? Gaur burura auxe datorkit. Ez da atzo goizekoa.

Gure baillaran ba omen zan txerri-tratuan ibiltzen zana, 1820-garren urte inguruan. Gure aitona-ri bere aitak kontatua omen zan. Gezurra bada ere, ez dago auzitara joaterik, testiguak illak dira eta.

Gure baillarako orrek sozio laguna Ikaztegieta-koa omen zuan. Ikusten danez, balio zuten gizonak izango ziran. Garai artan nola etzegoan ez trenik, ez telefonorik eta ez kotxerik, orduko ibiliak oiñez edo zaldiz egin bear.

Ondo jarriak eukitzen zituztela kaballeri dotoreak, beren silloi eta guzi. Ordizian zeuzkatela ikui-lluak txerriak sartzeko. Beren lana zutela txerriak Bitori eta Burgos aldera eramatea.

Lenengo joaten zirala beren zaldiekin jakitera zenbat txerri bear zuten. Bitori aldean orduan ere izango ziran monjen komentuak, eta praileak ere bai. Beste etxeetan berdin. Gutxi gora-bera ikusten zutenean zenbat bildu bear zuten, artu beren zaldiak eta etxera.

Urrengo egunean jarri kaballeri gaiñean. Leku jakiña izango zuten nun bildu, eta zer ordutarako ere bai noski, ordularirik bazuten beintzat. Baserritik baserrira txerri billa tratua egiten zutela, zortzi egunean etxean edukitzekotan, aurrena erosten zituztenak. Urrengo egunean, zazpi egun. Orrela danekin. Beraz, zortzi egun txerriak erosteko.

Urrengo egunean, erositako danak Ordizira ekartzeko esanda uzten zituzten. Etorri ala, ikui-lluan sartu. Ondo jarrita zeukatela lekua, beren aska eta guzi, gauean jateko. Tratanteak etzuten lo lasai egingo gau artan.

Urrengo goizean etzan ataera ederra izango, zaldiak pentsuz kargatuta, txerriei bidean emateko. Eun bat txerri askotan oiñez Ordizitik Bitorira. Ez dakit seguru, baiñan larogei bat kilometro inguru bai.

Zenbat minutu bearko zituzten txerrikumeak kilometro bat korritzeko? Nik amabi gutxienez gaur; eta bi edo iru illabeteko txerri gazteak ogei minutu bearko zituan. Ala, iru kilometro ordu betean. Kontuak atera zenbat ordu bearko zituzten.

Lenengo Altsasun omen zuten beren deskantsua artzeko tokia. Ikuilluan sartu, janak eman eta berak apaldu al zuten ondoena, eta lotara.

Urrengo goizean, pentsu pixkana eman eta zaldiak kargatuta, segi berriz bidean. Urrengo saltoa Salbatierran.

Geltoki guziak jakiñak omen zeuzkaten. Ikusten danez, dirudunak izango ziran. Leku danetan sartu-etxeak zeuden.

Irugarren goizean, azkeneko irteera. Arratserako Bitorira. Bertara irixtean, zer deskantsua nabaituko zuten beren barrenean!

Urrengo goizean, etxe danetan banatu lenago eskatutakoak. Zenbat ordaintzen zieten etzuan esaten. Ori etzekian.

Baiñan etzuten orrekin bukatzen. Sarri egiten omen zuten buelta, txerriak zer moduz zijoazten. Eun bana kilo inguru egindakoa, tratanteak berriz erosten omen zioten.

Nola etzegoan baskula edo pisuarekin aukerarik, aukeratzen zutela txerri bat, ez aundiena eta ez txikiena. Ura bi sokakin artu, bat besoen ondotik eta bestea atzeko anken aurretik. Bi lagunen artean jaso eta pisuan jarri, lege zarrean. Arek pisatzen zuana, txerri danentzat. Bizi-pisa esaten zaiona. Zer prezio-tan zegoan, ura ordaintzen omen zioten.

Gero Bitoriko txerrikoa saltzen zuten. Arakin danei partitu, iltokian ilda. Ura, kanalean esaten zaion prezioan kobratu. Or ikusten danez, etzuten iñor engaiñatzen.

Lengoak kendutakoan, berriz, gazteak erosita zeuzkaten eramateko. Siñalea da denak gustora gelditzen zirala.

Etxera etorri eta ikuillua txerriz betea. Urrengo goizean oiñez bidean iru eguneko, lengo lekuak betetzera, bakoitzari eskatuak emanaz.

Aiei kobratzean, Burgos aldera, ea gizenduta zeuzkaten lenago eramandakoak. Danekin berdin egiten omen zuten. Baiñan etziran tranposoak izango. Batean bezela bestean, danekin ondo etorri. Langilleak izan. Beti ikuilluan txerri-sail bat edukitzen omen zuten.

Inguruan zebiltzan tratanteak ere askotan aiengana txerri billa. Pezeta bat edo bi irabazia emanda, aiei artu, inguruan berriz saltzeko. Garai batean txerri asko iltzen zan baserri danetan, eta kalean ere bai. Baratza ondoan txabolaren bat bazuten, etxean sobratuak eta zerbait erosten bazuten emateko. Gizendutakoan etzan gaizki etorriko kalean ere.

Tratante oiek danentzat bai omen zuten auke-ran. Bat nai zuanari, eskatutakoa. Amar bear zituanari, naiago bere irabaziarekin. Etxean ez bazuten eskerik, artu zaldia eta Bitorira edo Burgos aldera. Ez omen ziran gelditzen. Ibili bearra zeukaten. Ainbeste geltoki, alako ikuilluak. Aiek, utsik eukita, etzuten ezer ematen. Sarri paseatu bear, etekiña kentzeko. Aurrena bildu baserri danetatik.

Eun bat kilometro bidean joanda Burgos aldera, len gizenduak kendu eta gazteak eman. Ezin esan genezake lantegi erosoan zanik beren lana. Alaxe oituak izan.

Etxean ziran egunean, zer lasatua izango zuten! Gure baillaran bizi izan zan ura, pozak egoten omen zan bere pameliaren ondoan, jateko denboran kon-tatzen danei zenbat erosketa egiten zituan:

– Batean erosi nizkian amar txerrikume. Ordizira eraman nituanean, erostuna zai. Amar bear zituala. Ikuilluan sartu gabe, duro bana geiagoan saldu. Beste batean lau. Aiek ere amarna erreal geiagoan.

Egindako irabazi danak kontatzen pameliari ari zala, seme batek galdetu ziola:

– Aita, Bitorira zijoaztela, bidean ito zitzaizuen arekin zenbat irabazi zenduten?

Eta aitak esan omen zion:

– Ori besteak kontatuko dik.


Egun batean, asteazkenez, preparatu omen zan perira joateko. Semeari esan ziola beiak uztarrian lotu eta soroan asteko lurra gorritzen.

Semea ere pozik, gizzonaren lana agindu zionean. Artu beiak eta joan da sorora. Aita ari begira bazterretik. Iru edo lau buelta egin zituanean, oso ondo omen zebillen eta ala esan ziola semeari:

– Iñork gobernatzen badizkik, nekatu arazteko lain baaiz emendik aurrera.

Ori esan eta perira aldegin ziola aitak. Garai artako kontuak onekin bukatzen ditut.

Beste pentsamentu bat datorkit burura: zenbat kilometro egin ote zituzten beren denboran oiñez? Zer aldaketak izan diran geroztik!



Ordizi: Argazki zaarra

Txerri-tratua

ORAIN irurogei ta amar urte inguruko kontuekin asiko naiz.

Beste baserri danetan bezela, gure etxean ere txerriak izaten genituan: zerrama pare bat umeak azteko. Askotan etortzen ziran etxera ea bai al genduzkan saltzeko modukoak.

Gure aitak naiago izaten zuan etxetik saldu, perira joan gabe. Iñor ez bazan agertzen, Ordizira asteazkenean. Ni pozik, perira joateagatik.

Lau kilometro paseak errira. Jetxi gabe, ospeleko basoetan barrena. Iraola baserriak bi etxe, bina bizitzakoak. Beren ondotik pasata, laster Izarregoi-koa eta Bekoa. Bien erditik bidea. Laster Ordiziko partean sartzen giñan. Lenengo baserriak Zabale izena. Lau bizitza bertan. Gaur ere ala egongo dira. Andik eun bat metrora Otatza, bidearen azpitik. Bestea Biona, goiko aldetik.

Baserri oietan lasai bizitzen ziran. Kaletik gertu, biltzen zuten esnea emakumeak saltzen zuten. Egunero diru berria etxean.

Segi deiodan nere bideari. Andik laster sartzen giñan kamiñora, Bidearte izeneko baserri ondora. Bereala kalean. Lenengo eskubira. *Txerri-kalea* zuen izena. Gaur aldatuta egongo da. Kotxeak dabilta kale ortatik. Antxe sartzen giñan geren txerriekin.

An azaltzen ziran tratanteak, brusa beltza, makilla bana eskuan, zein engaiñatuko edo duro bat benik nondik bajatu araziko.

Dozena bat baziran nik ezagutzen nituanak. Zaldibian sei edo zortzi gutxienez. Bat tratuan asten bazan, laster bilduko ziran, "Naikoa eskeiñi dizu" esanez, alkarri laguntzen. Nere aitak, ala asi ziran batean, esan zien:

– Beste lau lagun geiago etortzen bazerate ere, merkeago ez dituzute artuko.

Ori esan zuanean, tratuan ari zana bakarrik utzita, besteak alde egin zuten. Orduan asi zitzaion esanez:

– Bueno, Benito: esaidazu zenbat azkena.

Eta aitak:

– Lenago nago naikoa bajatuta.

Gureak ikusi zuan artzeko idean zegoala. Etzuan bajatu nai. Azkenean esan zion:

– Galestiak dira, baiñan eramaizkidazu kamioiaren ondora.

Ni ere gustora nintzan, txerriak kamioian sartu genituanean. Kartera aundi bat atera zuan, kate batekin txalekoari lotuta. Ordaindu zion eskeiñitakoa. Ura artu zuanean, aitak esan zidan:

– Goazemak Piesenera.

Oraindik izen ori dauka. An sartu giñan. Maian eserita jarri zan. Ni ere bai gustora bere ondoan. Salda bana eskatu zuan; gero aragi gisatua eta botil txiki bat ardo. Neri trago bat eman zidan. Ez nintzan ardozalea gaztetan. Jana bai, gaur bezelaxe.

Berriz buelta bat egin genduan txerri-plazara. Aitak lenago nola etzuan izan ibiltzerik, ikusi nai zuan zer tratu egin zuan. An ibili giñan bueltaka. Besteren bat saltzen ikusten genduan.

Pena da baserritarrei gertatzen zaiguna. Danok besteren tratua ikusteko deseatzten, eta alkarri esan nai ez zenbatean saldu edo erosi duan. Galdetzen

badiozu, gezurra seguru esango dizu. Gero, gaizki bizi gerala... Besterik ez degu merezi.

Gure aitak galdetu zion bati zenbatean saldu zituan. Oso gustora gelditu zan, egia esan zion ustean. Bereak ondo saldu zituala esanda, poz eman zion.

Urrengo txerri-sailla azi genduanean, etxera etorrita erosi zituan tratanteak. Ni penaz gelditu nintzan. Etxean ez baigenduan amaiketakorik egin. Gaur bezin sarri mokau gozorik etzan izaten base-rrian. Guk ura nai.

Ordiziko peria nola aldatu dan pentsatzen jarrita, arritu egiten naiz. Orduko txerri-peria, asi kale muturretik, ezker eta eskubi, goiko puntaraiño, jendez beteta eguerdira arte, goiz osoan andik atera gabe danak. Ikuskizun ederra izaten zan gure modukoarentzat.

Ordizin bertan baziran bi anai ortan ibiltzen ziranak. Anai bati *Sastre Txikia* esaten zioten. Ez dakit lenago jostuna izana edo zergatik deitzen zioten. Oso gizon jatorrak ziran. Serioak eta ondo itzegiñak. Ordizin bertan zeukaten ikuillua txerriak sartzeko. Plazan erosten zutena, bertara eramán arazten zioten. Segituan ordaindu. Ez dakit nungoak ziran seguru. Burgos aldekoak uste det esaten zutela. Nun-naikoak zirala, jatorrak, oso laguntzailleak.

Gizon asko zeuzkaten berentzako txerri biltzen ibiltzen ziranak. Gure baillarako bat ere ala ibili oi zan. Ari entzuten nion Burgosko komentu batera eramaten zutela. Asko guri erosten zigun. Ori ere berde samarra zan eta ala esaten zigun: erdeldunak ziran bi anai oiek eta, txerriekin monjen komentura joaten ziranean, an buru zegoanarekin tratuak egin bear. Asko itzegin bearko zuten.

Superiora ori izketan oso leguna eta gozoa omen zan. Uraxe gustatzen zitziola. Urrengo asteazkene-

an parre ederra egiten omen zituzten arekin. Garaiko kontuak:

– *La Madre Superiora ¡qué guapa es! Por casarme con ella, dejaría la que tengo. Si no, vivir con las dos.*

Garai artan arritu egiten giñan olako bat entzunda. Gaur modan daude olako kontuak.

Beste bi anai baziran Ikaztegietan. Bat Lorentxo zan; bestearen izenaz ez naiz gogoratzen. Lan asko egiten zutenak aiek ere txerri-tratuan.

Gure Urkiko baserrian izan zan Lorentxo ori. Gogoratzen naiz nola ibili zan. Asi ziran tratuan. Gureak ere goitik eskatzen. Besteak zer esanik ez. Ordubete pasa eta ezin konpondu. Batek bera jetxi nai ez; bestea lengoan. Bat saldu naiean; bestea nondik bajatu araziko. Azkenean ez dakit zer dipe-rentzi zeukaten. Beintzat esan dio tratanteak:

– Erdira!

Eta gure aitak ezetz. Aldegin zion ondotik, gure aitak deituko ziolakoan. Ikusi zuanean etziola deitzen, gure osaba beste soroan ari zan lanean eta ari deika. Nere aitapontekoa zan; Bixente, ni bezelaxe, eta:

– Bixente, Benitori esaiok asteazkenean Ordizira eramateko txerriak!

Eta osabak:

– Erorri gertuago intzan lenago!

Zergatik zebillen bazekian ondo osabak. Alkar ezagutzen zuten.

Esan bezela, eraman genituan aitak eta biok. Lenago aitatu dedan *Sastre Txiki* arentzat zituan. Esanda zeukan nola eramango genituan. Ikuilluan sartu genizkion.

Atea itxita plazara joan giñan. Lenengo, Lorentxo billatu genduan. Galdetu zion aitari:

– Ekarri al dituzute?

Eta aitak:

– Bai. Sartu ditugu ikuilluan.

Orduan esan zion:

– Berak ordainduko dizute, emen dabil eta.

Bereala alkartu giñan. Ikusi giñuzenean, etorri eta segituan eman zizkion diruak. Nere gaurko gisa, aitak erderaz etzekian eta laster partitu giñan bera-gandik. Aitak galdetu zidan:

– Amaiketakoa egingo al diagu?

Nik parrez esan nion:

– Igual.

– Goazemak –esanda, lengo lekura: Piesenera. Ura zuan bere gogokoa.

Eserita jarri giñan. Etorri zan neska bat, Lazkaomendikoa. Asteazkenetan ura edukitzen zuten. Ari eskatu zion:

– Salda bana, gaiñean aragi gisatua, botil txiki bat ardo.

Errazio onak ekartzen zizkigun. Ni gaztea nintzan artean, baiñan apetitu ederrekoa. Len esan bezela, ardo trago bat ematen zidan aitak. Enintzan ardozalea gartzetan. Jana bai gustora, batez ere aragia. Etxean gutxitan izaten genduan. Maitik altxatu giñanean, galdetu zidan:

– Orain zer egin bear dek?

Pentsatu nuan berak zer asmo zeukan. Gutxitan joaten zan perira. Orduan nola jetxi zan, eguna bertan pasatzeko idea izango zuala.

– Ni etxera joango naiz –esan nion.

– Ondo egingo dek –esan zidan– . Ni joango nauk illuntze alderako.

Pozik aldegin nion, alako amaiketakoa eman zidanean. Etxera joanda, amari esaten jardun nin-

tzan nolako gozatua eman zidan eta zer jan genduan. Amak ala esan zidan:

– Ni txerriak gobernatzan eta zuek amaiketako nere partez?

Baiñan gustora geratu zan dirua artuta.

Lenago aitatu ditudan bi anai aiek bazuten beren izengoitia esaten dioguna. Ez dakit nundik edo noiztik zuten izen ori: lengo gurasoetatik ala bere aiei jarria. Etzioten tontoak ziralako jarri. *Ontzak* deitzen zioten. Baiñan bizkorrak ziran benetan.

Txerri-tratuan asten ziranean, begiratzen zioten duro bati. Etzuten bereala eskeiñiko. Zaillak benetan.

Egun batean joan da oietako bat, egunero bezela, Orendaingo baserri batera. Gertu dago, Ikaztegietatik segiran. Bertara iritxi danean, asi zaio zakurra zaunkaz. Orendaiñen zakur *perroak* egon oi ziran; zakur gogorak. Neroni an ibilia naiz, nere bigarren ama Orendaingo Intxualde baserrikoa zan eta. Zaunka-otsera atera zaio nagusia. Ezagunak, gertukoak ziran eta galdetu dio:

– Txerririk bai al daukak saltzeko modukorik, Kaspar?

– Batzuk bazeudek.

– Atera itzak.

Bialdu ditu atarira eta bota die eskutada bat arto. Ikusteko ondoena ala egoten dira. Asi zaio galdezka:

– Zenbat diru bear dek?

Biak ere pentsatuko zuten: "Etzeukeagu tratua egiñik". Baiñan batek saldu egin nai; besteak, berriz, bear zituan eta erosteko pronto. Esan dio bere iritzia:

– Berrogei ta amabina duro.

– Jesus, motell! Nundik asi aiz?

Eta besteak:

– Ikusiko diagu i nundik aste aizen.

– Eskeiñia egiteak ere bildurra ematen zidak.

Besteak:

– Ez bildurdu. Ez al dek beintzat eskatu baiño geiago eskeiñiko!

A zer bikoia bildu ziran! Ala dio Lorentxok, presko-presko jarrita:

– Nik eskeiñi baiño len asi adi bajatzen, lan aundia daukak eta.

– Etzekiat zenbat bajatu, ik eskeiñi gabe.

Orduan asi zaio serio-itxuran jarrita:

– Bueno, nik eskeiñiko dedana lenengo itzean esango diat.

Besteak:

– Bota lasai!

– Berrogei ta zortzina duro ordainduko diat.

– Beste itzen bat esan bearoko dek, nere txerriak artu bear badituk.

– Ez aiz eskeiñi txarra egiten asi.

– Nik esan diat nere azkeneko itza.

– Ez. Beste bat badaukak oraindik.

– Zer palta zaik?

– Orain nik esango diat azkenekoa: diperentzia erdira –esan dio txerrizaleak.

Bestea ezetzean zegoan. Ikusi zuan urrengo saltoa noraiñokoa zan, lata pixka bat emanda. Txerri-jabea nola jetxi zan bi duro kolpean, ura aprobetxatu nai zuan. Beste bi duroak erdira jarri nai zituan. Orren billa zebillen. Azkenean esan zion erostunak:

– Nai badezu, orain egingo degu erdira.

Eta besteak:

– Nik lenago esan dizut. Ori nai ez badezu, utzi.
Or egongo dira.

Ori esan zionean, abiatu zuan goitik bera. Uste zuan deituko ziola atzetik. Besteak ez deitu. Orduan gelditu zan betiko moduan. Bueltan etzuan joan nai.

Beste bat bazeukaten ortan ibiltzen zana. Ari deitu zion joateko baserri artara, nola utzi zituan duro baten diperentzian. Ura aginduta, esateko asteazkenean eramateko Ordiziko *Sastre Txikia*-rengana.

Joan da beste gizon ori, ezer ez baleki bezela, Inguratu danean, asi zaio zakurra zaunkaz. Agertu zan etxeakoandrea.

- Egun on.
- Bai zuri ere.
- Nagusia etxean al dezu?

Besteak:

- Bai; ikuilluan dabil,
- Txerririk ba ote dezuten, batzuk bada ere...
- Orain etorriko da bera.

Azaldu zan gizona. Biak ezagunak nola ziran:

- Zer abil?
- Emen, txerririk ba ote dezuten.
- Bai. Amar bazeudek.
- Atera itzak pixka bat ikusteko.

Bialdu ditu danak. Bota zizkien arto-ale batzuk. Danak presaka arto jaten, eta erostunak:

- Apetitu ederra zeukatek.
- Bai, motell. Oik bai jan!

Pixka batean begira egonda, galdetzen dio:

- Zenbat diru eskatzen dek?

– Berrogei ta amarna duro.

Besteak, izututa bezela:

– Ez al aiz perian ibili?

Orduan txerri-jabeak:

– Modu askotako tratuak ikusten dituk perian.

– Arritu egiten nauk orrenbeste diru eskatzea.

– Orrenbeste diru? Etxeberriko Pedrok berrogei ta amabina duroan saldu zetik.

– Bai; bazekiat. Nik erosi nizkian aiek. Eta ik txerri aiekin konparatzen al dituk ok? Txerri aiek bazeuzkean amabosna egun geiago gutxienez. Alde ederra!

Makilla autsiarekin ez sartu oien tartean. Dirua bitarteko danean, gizontasun gutxi oiek. Gaur neri eta biar zuri. Pilatosena al badute: eskuak garbitu.



Ordiziko peria

Iru tratante

BESTE au ere entzuna det, nere pameliko batek kontatuta. Iru tratante, bi Ordizikoak, bestea Ikaztegietakoa. Lagunak, berak nai zutenean. Emen ikusiko da nolako laguntasuna zuten.

Jarri dira irurak izketan txerri-kontuan. Bati galdetu diote:

– Nun senti dituzu saltzeko gazteak?

Jaungoikoa eta Ama Birjiña besterik etzuan mingaiñean beste orrek. Santu-papera egiten zuan. Besteak bazekiten aurreko egunean, Tolosako baillara da Aldaba izena duana eta an ibili zana, eta esan die:

– Aldaba alde ortan izan litezke bearbada.

Baiñan zerbait geiago jakin nai zuten. Galdetu diote:

– Or Tolosatik Ibarra eta Leaburu alde ortan ez ote da?

– Ez. Lengo astean izan nintzan. Bildu nituan or zeudenak.

Partitu dira, alkarrizketa ederra eginda. Biak baztartuta, alkarri parrez. Aurreko egunean berak erosi zituan lekura bialdu nai zituan. Leku ederrean zebillen aiekin.

Biak asi dira urrengo egunerako plana egiten. Aren ibilleraren berri ondo bazekiten.

Ibarran asita lenengo, txerriak zeuden baserri-tik, tratuan duro baten aldera irixten baziran, beti berdin egiten omen zuan.

– Bueno, nik ez dizutet geiago emango. Pamelian itzegin. Emendik jetxiko naiz –esanda, tratua bukatu gabe utzi.

Besteak joan dira Tolosara. Apeaderoan jetxita sartu dira bide-ertzeko tabernan. Eskatu dute gosaria. Jarri dira kalera begira, urrengo trenaren orduaren zai. Jaten ari dirala, trena iritxi zanean, biak:

– An dator gure gizon ori!

Uste zuten bezela, makilla bat eskuan. Nola zekiten nondik nora zuan bere ibilia, gosaria ordaindu ta atera dira atzetik. Itxogin diote lenengo baserritik alde egin arte. Ura izkutatu danean, joan dira ea txerririk dagoan galdezka.

– Bai; badauzkagu.

Nagusia etxean zegoan. Arekin tratuan jardunda, atera dituzte berriz txerriak. Ezeukaten lanik izketan. Nagusiak esan zien lengo tratua nola gelditu zan. Arek etzuala geiago ordainduko.

Orduan batek esan omen zion:

– Duro bat erdiratzea ez du mereziko. Sartu txerriak eta etorri dirua artzera.

Kontuak eginda galdetu omen zioten ea urrengo baserrian txerri gazterik zegoan. Baietz esan zien.

Ala, urrengo asteazkenean, Ordiziko txerri-plazara eramateko esanda, joan ziran goiko baserrira. Lan berdiña zeukaten. Orrela segitzen zioten atzetik azken aurreko baserrira arte. An esan zioten goiko baserrira joan zala. Angoak artzen bazituan, laster etorriko zala, nai bazituan saldu. Aren agindutan itzegingo zutela. Besteak ordaindu zioten berak eskatzen zuana, urrengo asteazkenean Ordiziko txerri-plazara eramateko esanda.

Nola zekiten urrengo baserritik bera bueltatuko zala, bide-baztarrean gorde ziran, ura pasatu zai. Goitik bera aldegin zuanean, igo ziran azkeneko

baserrira. An galdetu zuten ea txerririk zegoen sal-
tzeko.

– Oraintxe saldu ditugu.

Ori esan ziotenean:

– Lastima zan –esan omen zion batek.

Andik berakoan danak artzeko idean joango
zan. Gaizki atera zitzaion bere idea txarra. Urrengo
asteazkenean astea zeukan aieri ezer esaten. Beko
baserrira jetxi zanean, etzuan usteko ori entzun bear
zuanik. Deitu omen zuan eta nagusia erdi parrez
atera omen zan.

– Zer pentsatu dezute? –galdetu omen zien.

Eta nagusiak:

– Txerriak saldu ditugu.

– Txerriak saldu?

– Bai. Zure atzetik berealaxe etorri dira bi gizon.
Aien izketa Goierrri aldekoa da.

Pasatuta gelditu omen zan, buruko txapelari
buelta emanda.

– Badakit, bai, zein izango diran. Au dek azioa!
–esaten omen zuan.

Galdetu zion orduan:

– Betik etorri al dira?

– Bai. Bordakoak ere erosi dituztela esan dute.

– Au dek marka! –esaten zuan, buruari elduta.

Etzuan rato ederra pasa. Negarrez asteko
etzuan asko palta. Txerriak saldu zituan batek onela
zion:

– Aiek beren artean bazeukaten zerbait. Bat
bakarrik aurretik, gero bi atzetik. Tratuan ere etzi-
ran saiatzen. Eskatuta neukana dana pagatu segi-
tuan, txerriak gero eramateko esanda, konpianza
osoan. Urrengo asteazkenean enteratu bear det,
esan nai badute beintzat! Bakarria tripak jaten goitik

bera. Besteak aren atzetik ura izurratzen. Ni asteazkena etortzeko zai. Txerriak eramateko aiña poz bereaiekin itzegiteko.

Bikote ura, azkeneko baserritarra agurtu zuteanean, igo ziran Altzo Goikora. An ere billatu zituzten txerriak beste lau bat baserritan. Andik Alegiko estaziora bitarte, amar bat etxetan erosi omen zituzten. Tratua egindakoa, segituan dirua eman, gero, asteazkenean, Ordiziko txerri-kalera eramateko esanda. Billeteak lasai zebiltzan aien karteran. Egun artan egin zuten lan ederra. Ondo nekatuta trenan artu Alegin, da bazkaltzera berandu. Gustora eseriko ziran.

Lengo txerrizaleak onela zion :

– Ni asteazkenean bikote orrekin itzezin bear det.

Auzoan bazegoan zaldi-karro ederra zeukana. Zaldia ere bai bikaiña. Arixe esan zion:

– Asteazkenean perira joango al gaituk, nere txerriak ire karroan artuta?

Bazekian ezetzik etziola esango.

– Amaiketakoa pagatuko al dek? –esan zion.

– Bai, motell! Pozik!

Ala, atera ziran beren txerriekin. Zaldi ona zeukan, baiñan berotu zan ederki: zortzi txerri eta bi lagun gaiñean.

Laster ziran an. Bereala billatu zituzten bi gizon aiek. Karrotik artu ta kamioiean sartu, laster pasa zituzten txerriak. Tratanteei esan zien:

– Amaiketakoa laurok egin bear degu.

Batek esan zion:

– Piska batean itxogin, oraindik ez dira txerrizale danak etorri ta. Kamioia kargatzean joango gera.

Ala, zai egon ziran. Aiek ere beren lanari kaso egin bearra zeukaten. Laster bildu ziran danak. Seguratu zituztenean, lasai jarri ziran, bazkaltzerako Mirandara joan bear zutela esanez.

Eskatu zuten lenengo salda danentzako. Gaiñean, bakoitzak nai zuana: batek tripakiak, besteak gibela, besteak mingaiña, eta besteak xerrak. Umore ederrean gosaldu zuten.

Txerrizale ura galdera egiteko zegoan zenbat zan kontua. Baiñan txerriekin etorri ziran irurak egingo zutela esan zuten.

Ala, iruron artean ordainduta jarri ziranean, ura etzegoan lasa. txerri-tratante oiei galdetu gabe zer pasatu zan egun artan. Baiñan esaten asteko bildur zan ondo artuko ote zuten. Kosta zitzaion itza ateratzea. Jakin nai ta ezin soltatu. Beintzat, onelaxe zan asera:

– Barkatu nazazute nola batek ala besteak. Lengoan egin dezuten ibillaldi ori oso zelebrea iruditu zitzaidan nolaz egiña ote dan. Gizon bat aurretik txerri billa. Tratua bukatu gabe uzten zuan arek, aginduarekin. Eman nai bagenituan, artuko zizkigula esanda alde egin zigun. Bestetan ere berdin, ikusten danez. Gero zuek atzetik, arek utzitako danak artuz, betik gora. Ura seguru, danak artzeko idean zebillen, gu bajatzen ez bagiñan duro bat geiago emanda.

Oiek danak esan arte, beste biak parrez egon ziran. Ura gustora zegoan, parrez aiek ikusten zituztenean. Azkenean esan zien:

– Jakin al leike zer pasatu zan?

Orduan bietako bat serio jarri zan, baiñan txartu gabe esan zuan:

– Ez degu iñor utzi nai kezketan, berriz ere guk zuengana joan bearoko degu eta. Nai deguna da gaur zuek gustora bialtzea. Urrengo aldian ateak zabalik

eta arpegi alaiak billatu nai ditugu. Esango dizuegu zer ta nola gertatu zan. Gaur zortzi, asteazkenean, bildu giñan irurok. Asi giñan izketan. Gure kontuak beti txerriekin, gure bizibidea auxe degu ta. Lagunak gera lenago. Gaur eta biar ere ala nai degu. Galdetu genion, automobilkada bat txerri palta genduan da ea nun zekian saltzeko zegoanik. Ikusten danez, berak ere palta zituan. Esan baligu: "Lengoan Aldaba aldetik ekarri ditut, eta biar Tolosa ondoko Ibarrik gora Altzo Goikora arte bildu nai ditut; Orendaindik Baliarrain aldera egongo dirala uste det". Gu geldituko giñan pozez berarekin. Baiñan bururatu zitzaion gezurrez engaiñatuta pasako ote zan, eta esan zigun Aldaba aldean egongo zirala; Ibarra aldekoak ekarri berriak zituala. Nola geunden Aldabakoak aurreko egunean ekarri zituala jakinda, gezurretan erori zan. Orduan pentsatu genduan berak egin nai ziguna berari egitea. Orregatik egin diogu azio ori.

Kontu danaren berri eman zutenean, danak gustora gelditu ziran. Batek orduan galdetu nien:

- Berriz lagun orrekin itzegingo al dezute?

Eta:

- Jesus! Gaur ez noski, gaur Mirandara goaz ta. Segituan bestela. Gaur bertan badakigu zer esango zigun: txerri aien paltan zegoala. Orregatik esan zigula gezurra. Gure asarrea ortan pasatuko da. Urrengoan irurok batera igoal bilduko degu beste sail bat. Oso gizon ona da. Uste det pentsatuko zuala ez giñala enteratuko. Alkarrekin lana egin bear degunean, duroari begiraten dio. Izketan goxoa, legun artuko zaitu, eta langillea. Uste badu urrengo baserrian txerriak egongo dirala, ez da bazkariarekin akordatuko. Arratsaldeko laurak arte an ibiliko da baserriz baserri. Gustoko tratuak egiten baditu, aren gozamina! Ez da ixilduko bazkaltzeko denbora guzian. Jaten da edaten ona da. Gustatzen zaio ondo

jatea. Baiñan kafea artzen duanean, laster asiko da zein aldetara joan bear degun galdezka, berriz aste-ko pronto. Illundu arte ez da geratuko.

Tratante oiek kamioia kargatzeko aiña erosten badute, gustora. Danak salduta edukiko dituzte erosi baiño len. Lana egin bear. Zenbat pauso ematen dituzte olako egunetan? Eta askotan gertatuko zaie erosi egin nai eta ezin erosi. Diru asko eskatzen. Baserrietan ere bagera buru gogor samarrak. Dana besteren erruz ezin bota. Danetakoak billatuko dituzte erosleak ere. Balio duan baiño geiago ezin ordaindu. Askotan, bajatuko dalakoan ainbeste kontu esan da alperrik. Azkenerako jenio txarrean jarri. Ainbeste kontra egin. Orrenbeste ez dutela balio buruan ezin sartu erazi. Gero penetan askotan. Gertatzen dana.



Ordiziko peria

Tratanteak

GIZON ori ezagutu nuan, ni Legorretako zerra batean lanean nenbillela. An pasatzen zan bere zaldiarekin. Karroaren azpian kaja bat egin da dozen erdi bat txerri artuta, asteazkenetan Ordizira perira, makilla txiki bat eskuan artu ta arekin ipur gaiñean joaz.

Bera ere edadean aurreratua zan ordurako. Zaldia, onenak emana. Karroa ere alatsu. Parera irixi baiño len konturatzen giñan. Arek ekartzen zuan *kirri-karra* alako egur-otsa. Aldizka esaten zion:

– Arre, zaldie!

Beti pauso berdiña. Ordizira irixten zanean, jarriko zuan karroa paretaren kontra. Inguratzen bazitzaion emakumeren bat txerri palta zuana, asiko zitzaion gozo asko itzegiten. Bat baiño geiago bear bazituan, tratua seguru.

Igoal zan Zaldibikoa, Lazkaokoa edo Ataungoa bazan ere. Esango zion etxera berak eramango ziola. Etzion inportik izaten ordu beteko bidea izanda ere. Danen erostunak agertzen baziran, bakoitzari bere etxe ingurura eramango zion. Disimulo ederrean duro bana geiago kenduko zien, eta emakumeak beren boltsan zaku bana ekartzen zituzten, gero txerriak bertan sartzeagatik. Etxeondora joatean, sartuko zien bakoitzari berea, eta an bialduko zituan beren txerriak besoan artuta.

Tratantea ere bai bazkaltzera pozik, gustoko tratuak eginda. Diruzale amorratua zan.

Uste det, bidean bakarrik zijoanean, errezatzen joaten zala. Ama Birjiña Arantzazukoa zuan beti bere mingaiñean. Etzenion maldiziorik entzungo. Etzuan gaurko askoren antzik.

Ez nuen jakin noiz il zan. Baiñan urte asko izango dira ura illik. Orain berrogei ta amar urteko kontuak dira gaur idazten ari naizenak. Ordurako irurogei ta amar bat urte bazituan nere ustez. Iritzia jartzen det. Ezin neike alde aundirik izan.

Ura bezela, garai artan baziran txerriekin bizi-modua ateratzen zutenak. Nik ezagutuak izango ziran, Tolosatik asi ta Zegama bitarte, ogei baiño geiago, batzuk baserrian lana egiñez bizi ziranak, besteak ortatik bakarrik.

Gaur pentsatzen jarri ta arrituta gelditzen naiz. Orduan baiño txerri geiago ilko da gaur, baiñan nola moldatzen dira arakiñak? Gizon asko izango dira ortara dedikatzen diranak. Ikusten ditugu kamioiak puntaraiño beteta dabiltzala.

Len, garai batean, etzan izango gaur bezelako txerri-talderik. Toki askotan ikusten dira txerri-sail galantak. Oiek, aundiak, aundiekin konponduko dira. Txikiak baztarrera.

Inazio Iturriotz

GURE baillaran bazan besteentzako txerri biltzen ibiltzen zana. Inazio Iturriotz bere izena. Oso bromosoa zan. Bertsotan ere jardun izan giñan alkarrekin. Txerriak ere bai, erosten zizkigun. Lenago aitatu dedan *Sastre Txikia-ri* biltzen zizkion.

Auzokoak nola giñan, etortzen zanean tratua beti egiten zuten. Garbi esaten zion aitari:

– Nik orrenbeste duro baiño geiago ez daukat *Sastre Txikia-ri* kobratzerik, eta neretzako bat bear det.

Aitak:

– Duro bat geiago kenduta ere, ez da galduan aterako.

Eta Inaziok:

– Bai. Arek ere berriz saldu egin bear ditu.

Aitak:

– Aren errukirik ez izan.

Besteak:

– Nik ere arekin daukat bizi bearra.

Aitak ikusten zuanean Inaziok etzeukala gogorik duro bat geiago emateko, beti etzan izango gure etxean katillu salda, baiñan baldin bazekian egun artan bazegoala, esango zion aitak:

– Goazen emendik sukaldera. Katillu bana salda artu ditzagun.

Sartuko ziran biak eta txerri-tratante orrek amari botako zizkion ateraldi preskoren batzuk. Ala artuko zuten salda, basoerdi banarekin. Altxatzen zanean, esango zion:

– Bueno, Benito: esango diot duro bana geiago emateko. Arek ere saiatzea dauka gu bezelaxe.

Biak alkarri begiratu ta parre egingo zuten. Ala partituko ziran. Inaziok onela esango zuan:

– Urrengo asteazkenean, badaezbada ere, bederatziak alderako eraman biajea. Preparatuta igual eduki lezake beste sail bat. Danak batera eraman nai izaten ditu.

Esan bezela, bederatzietarako Ordizin izango giñan seguru. Inaziok bazekian orduan atera naiko zuala. Gure zai egongo zan. Zuzenean txerriak sartuta aldegingo zuten.

Aldaketa

ZER aldaketa ikusi degun geren denboran! Garai artan Ordizian ikusten ziran txerri-saillak, eun metro luzean ezker da eskubi, jendea pasa eziñik. Gaur kotxeak pasatzen. Txerri-peria dana galdu. Sinistreak ere lanak ditu.

Tolosan ere berdin. Emakume-peria egiten dan plaza ondoan, arrautzak eta egaztiak saltzen diran tokia alegia, aren inguruan sail ederrak ikusi izan genituan. Gaur ezta arrastorik. Akabo txerri-peria. Ernanin zer esanik ez.

Amaika bider joan giñan gu ere, txerri gazte bat naita. Etxean azi ta negu aldera il da jateko ondo etortzen ziran.

Lenengo, gibela albaiteroari puska bialdu, ona zan ikusteko. Solomo txikia bialtzen bazenion, gus-torago esango zuan ona zegoala ta lasai jateko.

Laster asiko zan nere emaztea zartagia artuta, "Lenengo etxean probatu bear degu" esanez. Ondo etortzen giñan. Ni ere apetitu ederrekoa izan naiz ortarako.

Puska ederrak baditu txerriak. Asi txorixo, xolomo eta azkenean urdaiazpikoak. Iñor kanpotik etortzen bazan, bazenekian zeñi eskua bota. Xerra pare bat ortik eta arrautz pareta gosari ederra edozeñi emateko.

Sartu nadin arrastoan. Ernaniko peri-lekua trenaren apeaderoan jetxi eta eskillaretan gora igo ta lenengo kalea.

Ezagutu nuan tratante-sail bat, Ernanin berta-koak. Aita bi edo iru semerekin andoaindarrak ere bai, baserrikoak, beren zaldi-karroan artuta. Peri aundia izaten zan.

Neroni gertatua esango det. Bururatu zitzaidan umeak egiteko zegoan txerri bat erosi bear nuala. Joan nintzan Ordizira, trena artuta.

Beti bezela, nere aitagarreba an zebillen txerri-plazan. Esan nion zer amets eraman nuan. Ondo artu zidan. Bera ere artan saiatzen zan. Gogokoak zituan txerriak.

Asi giñan begiratzen bueltaka. Bat bazegoan gaztea, oraindik lenengo umeak egiteko zegoana. Gustatu zitzaigun. Asi giñan tratuan. Nere aita ori oituta zegoan goxo-goxo itzegiñez. Pixka bat apartatuta esaten zidan:

– Beste duro pare bat jetxiko balitu, artu liteke.

Arigana berriz inguratu zan. Asi zitzaion esanez:

– Bueno, pixka bat jetxi zaitea. Onek ere Donostira eraman bear du ta, kamioia pagatu egin bear duala, azkenerako igo egiten etxera eramaterako. Bajatu iozu pixka bat, diperentzi ori kenduta.

Eta besteak:

– Nik ez det dana bajatuko. Zuek ere agindu bearko dezute geiago.

Nere aitak pentsatu zuan: “Seguro degu tratua”.

Bost duroren alde zeukaten. Orduan txerri-jabeak esan zion:

– Nai badezute, diperentzi ori erdira egingo degu.

Orduan aita poztu zan, eta esan zidan:

– Bueno, gizona bezela jarri da eta eskua emaiotzu, eta bukatu tratua.

Nik ere zerbait esan bear da esan nion aitari:

– Oinbeste diru balio al du?

Ala erantzun zidan:

– Zuk ere, zeure etxean orrenbeste denboran eduki bazendu, zerbait naiko zenduan.

Eskua luzatu nion eta tratua erabaki genduan. Nere aitagiarreba zaldi-karroarekin joaten zan beti. Orduan ere an zeukan Txerri-kalean. Esan zion:

– Or daukat karroa eta eramango degu.

Gertu zeukan, txerria zegoan lekutik. Poliki-poliki eramanda sartu genduan barrena. Atea itxi eta an utzi genduan.

Gogozko tratua egin zuanean, txerri-saltzailleari bere alde itzegiten zion nere aitak. Txerria sartu zuanean, esan zigun:

– Goazen orain Martinez-enera.

An asi ziran lenengo pintxoak jartzen Ordizin. Ara joanda, baso erdi bana pintxo banarekin. Aitak ordaindu zituan. Amaika olako eginda joana zan mundu ontatik. Jaunak berekin dezala betirako.

Umore ederrean partitu giñan txerri-jabearekin. Gu ere bai. Beti bezela, geren txerria artuta, aitaren etxera sartu genduan, libre zegoan itxitura batean.

Esan zidan urrengo egunean bialduko zuala Itsasondoko enkargutan ibiltzen zan batekin. Deituko zidala Errerara zer ordutan iritxiko zan, zai egoteko, presaka ibiltzen zala-ta.

Esandako ordurako ni an nengoan zai. Zuzen iritxi zan. Bajatu genduan, ordaindu nion eskatu zidana, laster giñan etxean: kilometro bat bide.

Txerria gaztea zan da tokia jarrita neukan sar-tzeko. Emaztea joan zan ikustera. Gustatu zitzaion. Esan nion:

– Emen det zuretzako lana.

Irripar eginda erantzun zidan:

– Len ere lana obetoago daukat nik.

Baiñan bere gain artu zuan. Zaindu ere bai ondo, umeak egin arte. Zazpi ume egin zituan. Bost ordotxak, arrak. Askok ez dezute jakingo ordotxa zer dan. Bi ardiak, emeak. Ordotxak gero izaten dute beste lan bat. Kapatu egin bear izaten dira. Bestela, ez omen dira askotan onak ateratzen.

Gure etxean, gu gazteak giñala, aitak kapatu izan zituan. Ari begira egoten giñan. Azkenean, nero ni kapadore iritxi nintzan nola edo ala.

Beintzat, azi genituan saltzeko moduan. Auzoan jakin zuten nola neuzkan txerrikumeak salgai. Etorri zait nere lagun bat. Ura nere senide bat bezela zan. Atera nion kanpora ikusteko. Galdetu zidan zenbat bear nuan.

Nik obe bearrez esan nion, eta ez nuan asmatu. Ordotxa bear zuala esan zidan, asi baiño len trantuan. Txerria nai zuana artzeko zazpiretatik esan nion, baiñan irurogei pezeta bear nituala, nai bazuan artu. Bestela, utzi.

Urrena, berrogei ta amar eskeiñi zidan.

– Alperrik ari zera gutxiago eskeintzen. Pezeta bat ere ez dizut bajatuko.

Orduan esan zidan:

– Zergatik eskatzen dezu justua? Amabost durotik asi izan baziña, nik gustora emango nizun amabi. Orduan pentsatuko nuan: “Iru duro atera dizkit beintzat”. Saiatuta irabazten danak poz geiago ematen du.

Geroztik pentsatzen egoten nintzan: laguna zalako eskatu nion justua; baiñan arrazoi berak izango zuala. Naiz laguna izan, badaezpada ere geixeago eskatu. Gutxiago eskeintzen badu, orduan berak pentsatuko du zenbat bajatu. Azkenean, trantua egitezkeru, biak amore eman bear, bat gora eta bestea bera. Ni, igo arazi nualako, gustora geldituko

nintzan; eta bestea ere bai, ni bajatu arazi niñulako. Ondo erakutsi zidala uste det.

Bat saldu nuan; beste sei saltzeko. Andik ama-bost bat egunera eraman nituan ostegun batean Ernanira, emen auzoko zaldi-karroan artuta.

Garai artan estu erabiltzen giñuzen Donostiko Udalak zenbat ganadu genduan. Txekor bat jaiotzen bazan, apuntatzera joan bear. Iltzen bagenduan, baja eman. Beti pezeta bat benik kendu. Orrela danekin. Txerriekin ere bai. Jaio ziranean, apuntatu nituan. Baiñan ez nekian saltzeko gia bear nuanik. Batere paperik gabe joan nintzan.

Etorri zitzaidan Ernaniko tratante ezagun bat. Asi giñan izketan. Biok lagunak. Zerbait garbi esan nion:

– Nik sekula ez det txerrikumerik izan Altzan. Besteen karroan ekarri ditut.

– Saltzen ez badituzu, eramango ditugu.

– Nik ez daukat gogorik auek etxera eramateko. Zuk dakizu ondoena zenbat balio duten. Badakit zu etzerala ni engaiñatzen asiko. Zeure esku uzten dizut.

– Garbi esango dizut, Bixente: oen modukoak gaur amairu-amalau duro pagatzen ditugu. Nai badezu, amalau duro pagatuko dizut.

– Bai, bai. Zuretzat. Orain amabost egun, amabi duroan saldu nuan bat.

– Bai; ala dabilta –esan zidan.

Txerriak sartu genituan furgoneta batean, joan giñan *Zinkoenea* izeneko tabernara, mai baten ondoan eseri ta pintxo banarekin botil txiki bat ardo ustu genduan, kontuak esanez. Illunabarra zan da arek ere lanak bukatuak. Altxatu baiño len ordaindu zizkidan txerriak. Esku emanda partitu giñan. Lenago apari bat egin genduan alkarrekin.

– Ea berriz noiz juntatzen geran –esan zidan.
Olakoarekin juntatu liteke.

Liburu onen irakurle zeratenok barkatuko al didazute. Aztu egin zait lenago. Txerri-tratua egin genduanean, esan zidan ea gia bai al nuan.

Ezetz esan nion. Parre egiñez:

– Ez da inporta. Arreglatuko naiz.

Beste olakoren bat lenago egiña izango zan.

Ala, etorri nintzan etxera. Baiñan urrengo egu-
nean, berriz, txerrikumeen baja eman bear. Gezurra
asmatu nai. Artan lanak. Joan nintzan albaitero edo
beterinarioarengana. Don Benantzio Rekalde bere
izena. Asi nintzaion, damututa banengo bezela:

– Okerra eginda nago eta zuregana nator.

– Zer degu, ba, nausi?

– Atzo txerriak saldu nituan Ernanin. Erostuna
joan zan, nere izena eskatuta. Baiñan neri etzidan
ezer eman. Ez daukat argibiderik.

– Ba, ori zuzenduko degu. Gaitz txar batekin
galdu egin zaizkizula jarriko degu.

Ori esanda, artu zuan liburu aundi bat, billatu
zuan nere izena eta, zazpi borratuta, zero jarri zuan,
da akabo nere okerra.

Txerrama gizendu genduan uda azkenean iltze-
ko, eta arekin bukatu ziran gure txerri-kontuak. Ni
fabrikan ibiltzen nintzan. Emazteak, berriz, naiko
lanak. Goizean Donostira esne eta tratu pizarrekin.
Arratsaldean etzeukan geldi egoterik. Lau alaba,
zaarrenak lanean asita, gazteena bere kontu.

Auzoko napar txerrizalea

GURE auzoan bazan naparra berez. Nik erosi ezinda utzi nituan terrenoak artu zituan, bi milla metro, etxe bat egiteko. Lenago maiztar zegoan guregandik gertu. Bere etxean bizi nai.

Ori iritxi zuanean eta bertan bizitzen jarri zanean, guri terrenoak saldu zizkigunak txabola bat zeukan salgai, oso saiatura zan gizon ori, eta berak erosi zion ura ere.

Pentsatu zuan oilloak eta txerriak jartzea. Gazteak artu eta etxean gizendu. Diru pixka bat aurreratu nai, etxe berria ordaintzeko.

Erreran bazan *Compañía Maderas* deitzen zioten almazen aundi bat. Antxe lana egiten zuan. Etzuan bidean basoerdi asko artuko. Zintzoa zan. Zerran egiten zuan lana.

Andik ateratzen zanean, lantokiaren ondoan pabelloi batean soldaduak egoten ziran, eta andik ekartzen zituan aiei sobratutako jatenak, txerriak gobernatzeko. Etzuala asko ordaindu bearrik izango pentsatzen det. Baiñan egoardian edo illuntzean balde bat edo bi egunero. Beste zerbait emanda gizentzen zituan.

Ondoren deitu zion txerriak erosten zebillen tratante bateri. Etzuten tonto arrapatuko. Begira ikasiko zituan nola zebiltzan, gutxi gora-bera pisura kanalean. Zebillen leku danetan galdezka ibili zan.

Urte batean etorri zitzaion Ernaniatik nere eza-gun bat. Iritxi zanean, itzegin zidan. Nere etxe ondo-

an zegoan txabola ori. Ez nintzan joan. Askotan uste gabe utsegin liteke, baten alde itzezin dezula-edo. Biak nola ziran lagunak, ez nuan sartu nai izan tar-tean.

Ordu erdi bat pasa zuten txabola barrenean. “Onezkero tratua egingo al zuten” pentsatuta, sartu nintzan barrena. Galdetu nien:

– Zer? Tratua egin al dezute edo zer?

Ernanikoak erantzun zidan:

– Tratua? Bitxo ederra au, tratua egiteko!

Besteak ere, naparrak, emaztea Azpeitikoa, oraindik bizi dana. Senarrak ere ulertzen zuan euskeraz. Ala erantzun zion:

– Bai. Ni bitxoa? Au bai bitxo ederra!

Pentsatu nuan tratantea zegoala geiago agindu bearrean. Orduan galdetu nien:

– *¿Tenéis mucha diferencia o qué?*

Naparrak erantzun zidan:

– *Nada. Bien baratos se los he dejado.*

Serio samar jarri zan, da orduan tratanteak esan zion:

– *Bueno. Llévamelos el viernes al matadero de Rentería antes de las diez.*

Gustora gelditu zan naparra. Gero, txerriak nola eramán zeuzkan lanak. Esan nion:

– *Pídele a José el burro con el carro.*

Gure bizi-laguna zan, asto ta karroa zeuzkana. Agindu zion utziko zizkiola.

Iritxi zan ostirala. Bildurrak aidean zegoan nola eramango ote zituan. Ekarri zuan astoa txabola aurrera. Esan nion emazteari:

– Nik orri lagundu egin bearko diot.

– Joan zaitea –esan zidan.

Aldatu zerbait eta joan nintzan. Karroa kargatu bion arte eta esan nion:

– *Vamos los dos.*

Eskeintza ura ixilik pasatu zuan. Jetxi giñan Errerara. Artu nuan astoa, muturretik elduta. Naparra, karroari eldu ta txerriei begira.

Orain berrogei ta bost bat urte inguru izango zan. Etzebillen gaur aiña kotxe. Erreratik Errenterira arte etziran bi kotxe pasako, ez alde batera eta ez bestera. Kamiño guzia guretzat. Zer lasaitasuna orduan, alkarri kontuak esanez! Gaur bi begiak erne, kamiñoan ibili bear badezu.

Akordatzerako iritxi giñan Errenterira. Bertan ezkerrera dago ganaduen iltokia. Askotan izana nago nere ganaduekin garai batean. Orain bukatu ziran nere ganaduak.

Lagunak nola etzekian ango berri, nik eraman nuan iltokira. Ustu genduan karroa. Sartu genituan beren lekuan. Laister etorri zan txerriak erosi zitua-na. Ikusi zituan da esan zigun:

– Goazen tabernara, kontuak egiñez.

Galdetu zigun:

– Zer nai dezute?

Naparrak:

– *Yo una copa de anís.*

Neri galdetu zidan.

– Nik baxoerdi bat gorria, berezia.

Berak ere kopa bat koñak artu zuan. Kontutan denbora pixka bat pasata, beren kontuak egin zituzten, eta txerri-jabeak pagatu nai zuan erronda. Baiñan etzion utzi. Nik pentsatu nuan, lagundu nio-lako neri zerbait ematearren egingo zuala. Beste bana eskeiñi zigun. Nik ezetz esan nion: goizetik ez nuala ardo asko nai izaten. Olaxe, esku eman zioten alkarri, eta berriz azten zituanean deitzeko esan zion.

Ni gero konturatu nintzan zeren billa zebillen tratantea. Arek nai zuan txerri gazteak ekartzeko esatea. Esan zionean azitakoan deitzeko, besteak esan zion:

– *Primero me hacen falta pequeños.*

Besteak orixe nai zuan jakin. Laster esan zion:

– *Ya te traeré yo la semana que viene.*

Berrizko bidea nai zuan arek. Gustora partitu ziran biak. Ni ere bai. Astoa askatu genduan. Abiatu giñanean, bere poza gorde eziñik zeukan. Etorri ta eldu zidan lepotik, esanez:

– *En toda la vida no se me olvidará el favor que me has hecho. Hoy estaba temblando de miedo para salir de casa solo con el burro.*

Berriz ere lepotik eldu eta malkoak irteten zitzazkion begietatik pozarekin. Nere denbora guzian orixe izan det gogokoena neretzat: iñori poza ematea. Orduan ala gertatu zan.

Oraindik ez degu bukatu txerri-kontua. Iruetatik aundiena etxean iltzeko, eta iltzaillea ni izandu nintzan garai batean baillara ontan. Urrengo egunean etorri zan erdi parrez:

– *Otra vez vengo a pedir: a ver si me matas el cerdo.*

Bazekian ezetz ez niola esango.

– *¿Cuándo quieres?*

– *Cuando tú quieras –esan zidan.*

– *Entonces, el sábado por la mañana.*

Nola lanera ez nintzan joaten larunbatean, preparatu giñan lau bat gizon, eta bere emaztea odola artzeko ontzi batekin.

Mai segurua zegoan. Altura ederrean, pareta bat. Aren gaiñera bota genduan. Ni gantxoarekin. Beti bezela, sartu nion kutxilloa, baiñan ondo ez

noski. Etzan kajara zuzen sartua izango. Tarteka purrustada botatzen zuan, baiñan bizirik luzaro. An geunden zai, noiz azkeneko ostikoak emango.

Lagun bat txerri-jabearen maiztarra zan, portugesak izatez. Ikusten zuanean etzala bukatzen, ala esan zigun:

- *¡San Dios! ¡Ya tiene tiempo para hacer el testamento!*

Denok parrez utzi giñuzen. Esan nien:

- Au ez da zutik egongo.

Odola ateratzeko egin nion zuloan, guk koskola esaten diogu, beste batzuek lokotxa esaten diote, uraxe sartu genion eta zaku baten gainean artuta atera genduan kanpora. Mugitu zanean, ilda gelditu zan.


Orduan, preparatuta zeuzkan, guk garoa esaten diogu, emen Donosti aldean inostorra esaten diote, sortada bat ondo igartuta, ura jarri gainean da eman diogu su bizarrak erretzeko.

Gero, garbitu. Gaur kutxilloarekin jarduten dira. Lengo oitura zan, teilla puskatu ta arekin arraskatu. Balde batekin ura bota, ondo garbitu arte. Orduan, maai baten gainean jarrita, tripak atera.

Andik aurrera emakumeak lana. Guk illunabarreran txerria txikitu ta libre. Jateko odolki batzuk bialtzen bazituzten, kontentu.

Lengo tratanteak urrengo astean ekarri zizkion sei txerrikume, nai zituanak artzeko esanez. Seitatik lau artu zizkion, beste bi utzita. Berrizko lana jarri zion. Gustora gelditu zan. Soldaduen sobranteak alperrik galtzea etzuan nai. Irabaziak poz ematen diona zan.

Sei seme-alaba azi zituzten. Bera gazterik il zan. Jaunak berekin dezala.



Ordiziko peria

Gogo txarreko tratua

NERE ikuilluan gertatu zan. Lau bat txekor beti izaten genituan etxean. Orduan ere bai. Aietako bat gaixotu egin zitzaidan. Bere ondoko leioa irikita nunbait gertatu eta aize otzak gaixotu zuan.

Deitu nion albaitero edo beterinarioari. Etorri zitzaidan don Inazio Markuleta, gizon jatorra benetan. Eun da berrogei bat kilo inguruan ibiltzen zan. Bazuan aundian aiña onean. Begiratu zion ondo, belarria petxu parean jarrita. Esan zidan:

– Onek katarro txar bat arrapatu du. Bearbada, emen korrienteak artuko zuan. Emaiozu iru pastilla egunean: goizean, eguerdian eta gauean.

Gaur ez naiz gogoratzen pastillaren izena. Aundiak ziran; bost duroko moneda aiña bai. Txikitu ta uretan beratuta ematen nion. Botilla bate-tik saiatu nintzan alegiña, baiñan alperrik.

Deitu nion albaiteroari illabetea pasatu zanean. Etorri zan zintzo. Begiratu zion belarria jarrita.

– Gutxi aurreratu du –esan zidan–. Emaizkiozu iru pastillak goizean, danak batera. Jarriko da; lasai egon.

Esperantza ematen zidan. Poztutzen nintzan bere esanarekin, baiñan triste segitzen zuan. Egun batean, emandako pentsu dana jaten zuan; urrengo egunean, erdia bertan utzi. Barrenak etzion eskatzen. Irabazten zuan zerbait, baiñan gutxi. Aspertuta nengoan.

Esne gutxi genduan bolara artan. Artzailleei emateko norbaiti erosita ematen genbiltzan. Orrela, diru gutxi zetorren kaletik. Bi bigantxa gazte neuzkan umeak egiteko. Laster espero nuan, baiñan aiek umatu arte gaizki ibili bear.

Pentsatu genduan Torrelavega-ra joan da bei bat ekartzea. Autobusa joaten zan perira, jendea eramateko. An joan nintzan ni ere. Aukera aundia izaten zan an garai artan. Aspaldian ez det ango berririk. Bueltaka genbiltzala, topatu nuan neretzako gustatu zitzaidana. Esan nion lagun bati:

– Onixe eskaera egin arazi bear zioagu.

Gelditu giñan. Laster etorri zan. Asi giñan tratuan. Eun da ogei milla pezeta bear zuala. Eun eskeiñi genion. Etzeukala eunean ematerik esan zigun. Alde egin genion. Atzetik segika zetorren.

Beste baten ondoan gelditu giñan. Arekin izketan asi baiño len, nai zuan kaso egin. Bestearekin asi ezkerok ez baizeukan arekin bukatu arte kaso egi-terik.

Etorri ta esan zigun ea zenbat pagatuko genduan. Esan genion guk ez genduala geiago ordainduko. Bera ikusten zan zerbait bajatu naiean zegoala. Gu orduan otzago. Ogei milla pezeta oiek erdira eginda kito, egiña zegoala tratua esan zigun. Guk ezetz esan genion. Ala gelditu zan, baiñan ikusten genduan deseaten zegoala saltzeko.

Esan nion lagunari milla duro geiago agindu bear niola.

– Laster emango dik –esan zidan.

Bueltatu giñan. Poztu zan beragana gentozela ikusita. Esan nion milla duro geiago emango niola. Eun da amar emateko esan zidan. Ezetz; nai bazuan, eun da bostean. Bestearekin tratuan geundela; arek merkeago uzten zigula. Aukera aundia

zegoan egun artan. Guk ere ura aprobetxatu nai. Azkenean eman zigun.

Beia ekartzeko ere suertea neukan egun artan. Lasarteko Antonio Telleria zegoan. Itzegin nuan lenago. Esan nion zertara joan nintzan; da, erosten banuan, ekarriko zidala. Bazuala tokia.

Ala, ordaindu nion beia, eta gaizki zegoala: oso kargatua zeukala errapea. Esne pixka bat kendu egingo ziola. Baietz esan nion. Mesede ederra egin zion: arindu zuan ederki.

Gero sartu nuan Telleriaren kamioian. Beroan gelditu zan. Ni ere bai gustora, olako suertea izan nuanean.

Telleria ori oso laguna nuan. Bere etxean zenbat apari egin ote genituan? Bere opizioa idi-apustuan zuan. Amar da amalau idi askotan ikusi genituan. Beste amar edo amabi bei esnetakoak. Aiei esker, nik uste det apustutik baiño diru geiago.

Idi gazteak erosi ta lanerako indarrean jarritakoan, paltan inor bazan, aukera ederra bere etxean. Plazan lanean ikusi ta gustatuak zenbat joaten ote zan? Oso onak ateratzen baziran, milloi bana pezeta igual bakoitzak. Nik uste det ortan saiatzen zala.

Neretzako oso ona zan. Askotan izaten zituan etxean plazako itzai aundienak. Bata seguru, Bizkaiko pamoso: Antonio *Legoia* deitzen ziotena. Beste bi edo iru ere bai.

Aiek apaltzen ziranean, guri deitzen zigun lagun. Artano eta biak. Apalondoan bertsoak nai. Gu ortarakoxe eramaten gindun. Apari gozo askoak egiñak gera, bere emazte Doloresek jarrita. Suerte uraxe izan nuan Torrelavega-n berarekin.

Arratsalde berandu arte etzuten aldegin nai izaten. Norbait baldin bazan ganadua atzera etxera ez eramatearren merkexeago eman nai zuanik, uraxe aprobetxatu nai izaten zuten.

Ni lasai nengoan. Beia ondo zegoan, ikuilluan bezela. Neretzat tokia bazeukan. Bi bei erosi zituzten len artuak, gero beste bi eta bost bei; eta iru gizon: aita-semeak eta ni. Esan nien:

– Abitu baiño len ez al degu aparti-merienda egingo?

Antoniok erantzun zidan:

– Ez. Obe degu ordu pare bat egin aurrena, eta gero apaldu deskantsatuz.

Ondo artu nion. Deitu nuan etxera, emazteari: beia erosi nuala; oraindik Santanderren geundela; baiñan Telleriaren kotxean neukala beia; goizaldera iritxiko giñala; lasai egoteko, ondo genbiltzala ta.

– Ondo etorri beintzat –erantzun zidan.

Trankil gelditu nintzan. Bildurrez lorik egin gabe igual egongo zan.

Orrela, atera giñan Torrelavega-tik. Antonio, semearekin bakarrik baiño gustorago. Amaika itz aspertu egin degu lenago ere. Semea txoper eta gu kontutan. Lenago ezagutzen zuten taberna batean gelditu zan. Esan zigun Antoniok:

– Askok ez degu jan bear. Gauean ibiltzeko asko jatea txarra da. Loak geiago penatzen du.

Arek bazekian gaueko ibiliaren berri. Artu genduan urdaiazpikoarekin tortilla. Gero xerra bana, fruta eta kafea. Laster atera giñan, urrutian geunden da etxera iritxitzeko pozak.

Ni gustora nentorren. Nere gogoa zan, nola nentorren beren kamioian, aparti pagatu nai nien. Etzidan utzi Antoniok. Nunbait bere etxera joaten giñalako, nundik zer egingo egoten zan. Ez balego txarragorik, obeto biziko giñake.

Bidean kontuak esanez ondo iritxi giñan, goizaldera noski. Ikuilluko atean jetxi genduan nere bei ori. Ordaindu nai nion, baiñan etzidan artu nai izan-

du. Bereala alde egin zuten, “urrena arte” esanda.

Barrena sartu nuan beia. Jatena bota nion. Gustora asi zan jaten. Pentsu pixka bat emanda jaten asi zanean, gustora joan nintzan oera. Emaztea zai zegoan, automobilla sentituta, noiz azalduko. Esan nizkion konturik bearrenak; eta, lo egin bear nuala esanda, ixildu. Laster artuko nuan, nekatuta nengoan da.

Ordu pare bat lo eginda, laster atera nintzan. Emaztea ordurako ikuilluan izana zegoan, bei berria ikusita. Galdetu nion:

– Ona al da?

– Gero ikusi bear ori –esan zidan.

Gosari txikia eginda, joan nintzan pozik ni ere, zenbat esne bilduko ote nuan. Aurreko egunean goizago bildua zegoan da, naiz gaua bidean pasa, dozena bat litro bazeuzkan.

Ekarri nizkion lengo beienak eta berriarenak. Nere emaztearen poza, “gaur ez det esnea erosi bearrik” esanez! Gustora joan zan, danak astoan artuta. Etorri zanean, galdetu nion:

– Zer moduz gaur?

– Alde ederra neretzat! Artzaille danei emanda, lenago artzen nionari eman dizkiot lau litro. Alde ederra dago litro batzuk erosi edo saldu. Saiatu zaitetz bei ori ondo gobernatzen. Maiteko zaitut!

Esku artean diru pixka bat ikusteak ura poza emazteari! Arpegian siñale zuala etortzen zan. Zorrak ordaindu eziñik dabillenean eskuarteon diru pixka bat zeinzen pozgarria dan! Gu ere, alaxe, orduan beste bi bigantxak laster umeak egiteko zai.

Auzoan bagenduan beti iñun txekorrik edo beirik saltzeko ote zegoan galdezka ibiltzen zana. Isidro zuan izena. Baziran beste bi Astigarragan bere lagunak. Ostegunean Ernanira joan da biltzen baziran,

etzuten beste konturik beren artean: ango txekorra edo beia. Bi lagunak alkar topatzen bazuten, esnerik gabe pentsuarekin azitzeko moduko txekorrik erosi ta ura gizendu; ortan saiatzen ziran.

Egun batean galdetu zidan Altzako lagun orrek ea illabete pare bat zituan txekorrik nekian saltzeko iñun. Ni aspertua nengoan gaixo neukan arekin.

– Nik badaukat, iñork artuko balu –esan nion–, sei illabetekoa, erdi gaixo dagoana.

– Joango naiz ikustera.

Beti orrela ibiltzen zan. Urrengo egunean an agertu zan. Ikusi zuan. Galdera pranko egin ere bai.

Esan nizkion pasadizo guziak: beterinarioa nola etorri zan; sendatuko zala nola esaten zidan; zenbat pastilla sartu nizkion, danak garbi.

Gero, ikuilluko ganadu danak ikusi zituan. Azkena, Torrelavega-tik ekarri nuan beia. Gustatu zitzaion. Esan zidan:

– Au bei ederra daukazu.

– Bai. Erosi berria det Santanderren, esnea palta nuan da. Orduan bi bigantxa auek neuzkan umeak egiteko. Pentsatu nuan orain esnea sobra izango nuala oiek umetzean. Orduan saltzeko berri au ona ekarri nuan, asko ordainduta.

– Orain salduko al zenduke?

– Idea ortan ekarri nuan.

– Ekarriko dizkizut bientzat erostunak –esan zidan.

– Ekarri nai dezunean. Zuretzat zerbait aterako det.

Ala, aldegin zidan. Banekian zein etorriko ziran. Ostegunean esan die biei. Ostiralean or datoz irurak. Ikusi zituzten ganaduak. Biak Asintxio zuten izena.

Batekin tratuak lenago eginda nengoan. Lenago

neronek iru bei saldu nizkion amar bat urte barruan. Lagunak izan gera. Ura ikusi nuanean, esan nion nere buruari: "Bei bat gutxiago biar jezteko". Bei erosi berria gustatu zitzaion. Banekian, gustatu ezkeru, tratua egingo genduala.

Artu genduanean, ogei litro esne ematen zituala esanda eman zigun saltzailleak. Oiek etorri ziranean, beia ikusi zuten eta batek onela galdetu zion Isidrori:

– Zenbat esne zeukak?

Bestearen erantzuna auxe izan zan, neregatik:

– Orri galdetu. Orrek zekik ondoena.

Nik esan nion:

– Garbi esango diat: erosi genduan lekuan, ogei litro esan ziguan. Emen ogei ta bi ematen zetik, eta ire etxean bazekiat ogei ta lau emango dituala.

Ganaduak oso onak edukitzen zituan. Pentsua lasai ibiltzen zan aren etxean.

– Zenbat diru bear dezu?

– Eun da ogei milla.

Irurok lagunak giñan eta etzegoan alkar engaitzen ibiltzerik.

– Goitikan asi zera –esan zidan.

– Zuk ere, tratua egitezkeru, gora igo bearko dezu.

– Pixka bat bajatu baziña, gustorago eskeiñiko nizun.

– Zu ingurura arrimatzean asiko naiz bajatzen.

– Nai al dezu itz batean tratua egitea?

– Zure esku dago. Eskatua ordaintzen badidazu, egiña dago.

– Ez. Ori geiegi da.

– Orduan ez degula traturik egingo iruditzen zait
–esan nion.

Baiñan seguru nengoan arekin tratua egingo nuala. Gustatu baizitzaion beia. Gustoko ganadua duanean, milla pezetari ez dio iñork begiratzen. Asi zitzaidan esanez:

– Nik ordainduko dedana, lenengo itzean eskei-
ñiko dizut.

– Bota, ba, itz ori. Badezu garaia zerbait esate-
ko.

Ni lasa nengoan.

– Eun da amar milla gaur zortzi ordainduko
dizut.

– Ez dik inporta amabost egunera ordainduta
ere. Baiñan geixeago ordaindu bearako dezu.

– Ez nik. Nere ustez, naikoa aginduta dago.

– Au utzi ta beste lekuren batera joaten bazera,
ikusiko dezu diru orrekin nolakoa billatzen dezun.

Bera etsita zegoan geiago ordaindu bearako zuala. Baiñan berriz ere berean. Bazekian gutxie-
nez milla duro geiago eman bearra zeukala. Ala
ere, antxe teman tratuan saiatzen zan. Olakoa
naiago det nik, errez agindu ta gero ordaindu ezi-
ñik dabillena baiño. Urrena beste kontu onekin
atera zitzaidan:

– Noiz etorriko naiz billa?

– Geiago agindu gabe, batez –erantzun nion.

Berak auxe esan izan zidan:

– Gaur ez badegu traturik egiten, biar ez bialdu
neri beirik.

Oraingoan nik aurrea artu nion, “noiz etorriko
naiz?” esan zidanean.

– Lenengo egin tratua. Orduan bialdu nai dezu-
nean.

Ikusi zuanean etzeukala beste ateararik, esan zidan:

– Tema txarrean jarri zera ta zurekin gaur ez dago gauza onik. Bukatu dezagun tratua. Bi milla duro erdira eta kito. Orain esaidazu ezetz eta emen geldituko zera zeure beiarekin.

Onela erantzun nion:

– Etxean edukitzeko ere, zaar ustela baiño ohea da au. Baiñan berriz ere alkarrekin bizi bear eta nai dezunean eraman zazu; eta ea suerte ona izaten dezun.

– Eskerrik asko –esan zidan.

– Ez didazu jaten eta esnetan kejarik emango.

– Orixe nai nuke.

Beste bi gizon an neuzkan. Aiekin ere asi egin bear. Arek etzidan ematen alako pozik. Gaixo zegoan da sendatuko ez ote zan bildurrean an zebiltzan txekorraren ondoan biak. Joan nintzan bere aien ondorra. Bat asi zitzaidan galdezka:

– Zenbat denbora du? Ondo jaten al du?

Dana egia esan bear, gero esan etzezan:

– Gezurra esanez engaiñatu egin niñuzun.

Naiko bildur baneukan txekor arekin. Orregatik, esan nizkion gertatutako gora-bera danak:

– Illabete pare bat zituala, asi zan janari uzten, eta eztula ere bai naikoa. Naikoa bildurtuta deitu nion albaiteroari.

Lenago bere lagunari esan nizkionak, danak esan nizkion.

– Ez bazaizu iruditzen artzea, utzi lasai. Emen egongo da. Markuletak sendatuko dala esaten dit. Artzen badezu ta nai badezu deitu, berak esango dizu ondoena. Nik baiño obeto daki arek ori nola dagoan.

Orduan esan zidan ea baba ematen al nion.

– Onek ez du babarik probatu –erantzun nion–. Ni ematen jardun naizena da artoa, garagarra, zaia eta ariñilla.

– Oiek ez dira txarrak; baiñan babak indar geiago, ori jango balit.

Ainbeste galdera egin ondoren, asi zan prezioaren berri jakin naiean:

– Zenbat diru bear dezu?

– Amalau milla pezeta –esan nion.

Galesti zan itxura egin zidan:

– Onek beste bi illabetean ondo janda ere, ez du balio orrenbeste diru.

– Orduan merke eramateko idea daukazu zuk txekorra. Orain zenbat balio du?

– Nik zortzi milla pezeta pagatuko dizut.

– Orduan bertan egongo da. Baba ematen asiko naiz. Len ez diot eman, baiñan ea arekin indartzen dan probatu bear det.

Nik etxean gelditu nai nuan itxura egiten nion. Berak, berriz, gaixo-aitzakian nundik merke artuko zuan zebillen. Ni, deseatzen saltzeko.

– Txekorra saldu bear badezu, jetxi bearko dezu.

Orduan esan nion:

– Au eramaten badezu, esan dizut nola dagoan. Neri ez etorri atzetik keja eta kontuarekin. Zere gain artu, gizentzen bada edo ez bada.

Nik ura esan nionean, olaxe eman zidan bere erantzuna:

– Bidean akabatzen bada ere, nik segituan emango dizut amar milla pezeta.

– Sei illabetean jana emanda irabazi ederrak atera ditut. Eraman zazu, ea suerte ona izaten dezun.

– Eskerrik asko. Nik eman dizkizudanak ez dira zaillak, baiñan ondo gastatu.

Alkarri ondo itzeginda partitu giñan. Urrengo egunean bialduko zutela Isidro.

Beti kamioiarekin ibiltzen zan Isidro ori. Gure etxera bidea ondo ikasia zeukan. Il zan gizarajoa. Jaunak berekin beza.



Bezente Barandiaran

Errioja

URTE batean joan nintzan Errioja aldera oporretara, nere emazte ta lagun bat bere emaztearekin, laurok. Garai artan urtero antxe egoten giñan Erriojako erri txiki batean. Castañares bere izena. Harotik Santo Domingo bidean dago: lenengoa, Casalarreina; urrengoa, gu egoten giñana. Erri txikia zan da dana ormigoia botata zegoan. Baiñan naiz kalean bizi, ikuilluak zeuzkaten. Guk ere aiekin naiago.

Goizean mendira joaten giñan. Amabietara, lagunetara. Gustora artzen giñuzen. Ala esaten ziguten:

– A los que vienen, si quieren andar con nosotros, los recibiremos como a familiares. Pero con los que no quieren hacer caso, no queremos saber nada.

Gu bere aiengana biltzen giñan. Amabiak aldera asten ziran: bost taberna zeuden; danak pasatzen genituan ordubata t'erdira arte. Iñoiz argi-argi egin da etortzen giñan, señalatuta baraurik ez geundela. Baiñan ordubete siesta eginda, umore ederrean berriro. Ango ardoak etzuan kalterik egiten.

Egun batean, alboan dago erri txikia oso: Baños de Rioja. Ogei etxerik ez da egongo, baiñan daudenak itzegiten asteko zai egoten ziran. Emateko aien borondatea zeukatenetik! Txorixo edo urdaiazpikoa eta ardoa, iru oiek laster aterako zizkizuten. Nunbait etxean izaten zituzten. Gu ere pozik aiekin.

Ikuillura sartu ta danak guri erakusten. Galdetu nion bati ea saltzeko bai al zeukaten. Bat

salduko zukela esan zidan. Asi nintzan galdezka ea zenbatean emango zuan. Ez naiz gogoratzen zenbat eskatu zuan. Artzeko moduan beintzat jarri zidan.

Asko eskatu zuala esan nion. Ea, bada, zenbat emango nion. Badakit bi milla pezeta gutxiago eskeiñi nizekala.

Gero, nola ekarri bear nuan uste det pentsatzen asi zala beia. Ekarri ta gero ordaintzekotan utziko ote nuan. Ori esan banio, etzuan bajatuko.

Orduan galdetu nion ea baillara artan beste beirik ba ote zegoan saltzeko. Laster galdetu zidan ea berea zenbat ordainduko nuan. Ikusi nuan arena: saldu naiean zegoala.

– Nik bei ori artzen badet, kamioia ekarri bear det. Orduan, prezio onean billatzen baditut, bi edo iru beintzat artuko nituzke.

Berea zeukan gogoan.

– *Bueno, vamos a hacer el trato.*

– *Conteste cuánto me va a bajar –esan nion.*

– *Mil pesetas, Y, si quiere más, le vendo también ésta.*

– *¿A qué precio?*

– *Ésta tiene un poco más de leche. Coja las dos. Se las doy al mismo precio.*

Amar milla pezeta inguruan zebiltzan. Gipuzkoan irabazi polita irabazi zeikean nere ustez, eta ez nintzan atrebitu berriz gutxiago eskeintzen, biak artzeagatik. Lenengoa baiño merkeago ematen zidan bigarrena.

Orduan esan nion beste zortzi egun oporretan pasa nai nituala bertan. Ea igual al zion urrengo aстера arte edukitzea.

– *Sí, hombre; tranquilo –erantzun zidan.*

Gero pentsatu nuan badaezpada ere diru pixka

bat ematea obe nuala. Urrena billa joandakoan etzuala saldu nai esan etzezan, seguratura jarri. Bi milla pezeta eskeiñi nion. Etzidan artu nai, baiñan artu zituan. Ni ere gustorago gelditu nintzan.

Bestela, askotan gertatu oi da batek tratua egin eta ez badu siñalerik ematen, eta beste batek geiago eskeintzen badio. Bildurgarria da dirua. Gizon asko aldatzen dira beragatik.

Orduan esan nion, etxera joaten nintzanean, lagun batekin etorriko nintzala kamioiarekin.

Errian beste bei geiago bazeuden saltzeko, lagunari ere gustatzen zitzaioala beiak erostea; ea billatzen zituan.

Urrango egunean alde artara erabaki genduan buelta bat egitea bi lagunok. Emazteak beren lanak. Lenengo, etxean bear ziranak erosi, bazkaria prestatzeko. Goiza lanean pasatzen zuten, arratsaldean gurekin paseatuz. Orrela ibiltzen giñan. Gu, eguerdi artean mendira, bazterrak ikusiz.

Goitik bera gentozela, beiak erosi nizekion gizon ori topo egin genduan. Nerekin itzezin naiean zegoan. Bazeuzkan zer kontatuak: auzoko bi lagunekin egon zala izketan; pozak gelditu zirala, esan zienean nola beiak saldu zituan urrango astean eramatekotan. Zenbatean saldu zituan galdetu ziotela; berak egia esan ziela. Berak ere salduko lukela orrenbestean. Ea nai al genduan ikusi esan zigun.

Baietz esan genion.

Bertan gertu bizi ziran. Atera joan da deitu zion bati bere izenez. Gaur ez naiz gogoratzen zer izen zuan. An agertu zan:

– *Buenos días* –esanez.

Gurekin joan zanak esan zion:

– *Este señor es el comprador de vacas.*

– *Me alegro mucho de conocerle. Para nosotros es*

conveniente que vengan los compradores de vez en cuando.

Ikusi genduan bei ori. Nerekiko pentsatu nuan: “Gu etortzen geranean, ez da emen geldituko, laguna konforme baldin bada beintzat”.

Orduan esan nion ni lagun batekin etorriko nintzala. Neretzako artu nituan bi aiek naikoa nituala etxerako. Baiñan laguna erosi eta saldu ibiltzen zala; uste nuala arek beste pare bat eraman naiko zituela.

Orduan esan zidan:

– El vecino tiene otra para vender. ¿Quieren verla?

Guk ura nai. Ara joan ezkerro, kamioia kargatuta ekarri.

Sartu giñan beste ikuilluan. Gustatu zitzaidan beia. Ala ere, zerbait esan bear. Ezin asiko nintzan “Ederra da, asko gustatzen zait” esaten.

– Onek edade pixka bat izango du? –galdetu nion erderaz.

Laster erantzun zidan:

– Esta vaca tiene siete años. La mejor edad para dar leche –erantzun zidan.

Gero esan nion:

– Yo no le voy a ofrecer dinero hasta que venga el compañero. Pero ¿me puede decir cuánto quiere por la vaca?

Erantzuna auxe izan zan:

– Ésta es una buena vaca. Pero por venderla de casa, sin llevarla a la feria, la vendería al mismo precio.

Ez nion erosi nai, bestea zer ideatan zegoan jakin gabe. Pentsatzen nuan laster preparatuko zala, esaten nionean zer biaje neukan eta ganaduak nola

zeuden bi erosi ta geiago saltzeko. Laster galdetu zidan noiz joango giñan.

– Zerorrek joateko modua dezunean. Nik al dan lenena ekarri nai ditut erositakoak.

– Geiago bai al daude saltzeko?

– Bi beintzat bai. Nai bada, lau ere billatu litezke.

An nola txekorrak jaiotzean urrusak danak azi egiten dituzten, ikuillua betetzean, zaarrenak saldu eta gaztearekin gelditu. Nola ez daukaten erosi bearririk, merkexegoa bedenik saldu ta lengo martxan segi.

Bigarren egunera agindu zidan etorriko zala Isidro lagunak. Oso jatorra zan, neretzako beintzat. An azaldu zan erdi parrez, beti bezela. Ni ere zai nengoan berari. Bezperak deitu zidan goizean zazpietarako etorriko zala.

Esandako orduan zintzo agertu zan. Atera giñan biok, emazteari “Buelta arte!” esanda, kontu kontarri.

Bazeukan gogoia zer ganadu erosi ote nuan jakiteko. Esan nion nolako beiak: zortzi bat urte zaarrenak; gizenduta irureun bat kilo egiteko modukoak; esnetan amaseitik ogeira arte; ondo gobernatuak...

Orduan galdetu zidan:

– Zuk erositakoak al dira oiek?

– Bai; baiñan besteak ez dira batere txarragoak. Bat, beintzat, esne geiago duana. Nere ustez, dirua irabazteko modukoak dira.

– Etzera, ba, ni pozteagatik ori esaten jardungo?

– Ikusiko dituzu laster. Orduan esango didazu egia dan edo ez.

Ortan goazela, ura ez da janarekin akordatu ere egiten. Haro-ra iritxi baiño len, badago taberna bat eskubi aldetik. Askotan gelditu oi gera gosaltzen.

Galdetu nion:

– Ementxe gosalduko al degu?

Segituan gelditu zan. Sartu giñan barrena. Nik, urdaiazpikoarekin bokadillo bat; besteak ere berdin. Botil txiki bat ardo. Eseri ta lasai artu genituan. Berak ordaindu zuan dana. Neri etzidan utzi.

Laster atera giñan geren bidean berriro. Andik Baños de Rioja aldera. Iritxi giñan nik erosita neuzkan etxera. Laster enteratu ziran danak. Gu kargatzen asi giñanean, an etorri ziran lagundu naiean. Oso biotz onekoak dira laguntzeko eta daukatena emateko. Ez genduan gose-egarririk pasa, an genbiltzan arte.

Nereak sartuta, lagunak galdetu zien:

– *¿Hay alguna vaca más para vender?*

Laster esan zion batek:

– *También yo vendería una.*

– *¿Se puede ver?*

– *Sí, hombre.*

Joan giñan beste ikuillura. Asi zitzaion galdezka:

– *¿Cuántos años tiene?*

– *Todavía es joven.*

– *¿Cuánta leche?*

– *Ahora diecisiete; pero recién parida más de veinte.*

– *¿A qué precio?*

– *Cuarenta y cinco mil.*

– *Pide mucho dinero para vender. Es caro.*

– *¿De ahí para arriba quién me va a comprar?*

Beste milla pezeta bajatzea nai zuan.

– *¿Cuánto me va a pagar?*

– *Cuarenta y tres –esan zion.*

Orduan bei-jabeak:

– *Bueno, vamos a hacer a medias.*

Eskua luzatu zion. Isidrok, parre egiñez, eman egin zion. Ala bukatu zuten tratua, irugarrena.

Beste bat bazeukan penagarri gaixoa. Batzuei etzaizkie ainbeste azkazalak azitzen. Besteiei, berriz, luzatu, okertu eta lurrean ondo ezin jarri. Miñez, jateko denboran bakarrik egoten zan zutik. Esan zion:

– *¿Ésta no va a vender?*

– *Si la quiere comprar...*

– *¿Cuánto dinero?*

– *Ésta para andar es una pena, porque hay que arreglarle las uñas. Si me la comprara por cuarenta mil pesetas...*

Besteak esan zion:

– *Treinta y ocho le pago. Mañana mismo voy a llevarla a donde el herrador para que le corte las uñas, a ver si puede estar de pie.*

Jabeak:

– *LLévela entonces, a ver si sale bien.*

Ori esanda eman zion. Neri beiak saldu zidanak esan zion parrez jarrita:

– *Aún tenéis otra más, si queréis comprarla.*

Oso bei ederra zegoan bestea. Banekian nik artuko ziola, ikusita neukan lenago ta.

– *¿Está lejos?*

– *No, hombre. A cuatro pasos.*

Sartu giñan ikuilluan, begiratu zion ankatik asi ta buruko adarretaraiño. Ortzak ere ikusi zizkion, osorik ote zeuzkan. Dirua zegoan tarteko. Lanean ibiltzen al zuten galdetu zion.

– No; nunca. Nosotros hacemos los trabajos con el tractor.

– ¿A qué precio?

– Cuarenta y cinco mil –esan zion.

Eta besteak:

– Yo te pago por ésta igual que por la otra. Si quieres, la cargaremos en seguida. Si no, marcharemos con cuatro.

Eta besteak:

– Lleva, lleva ésta también.

Orrela sartu genituan bost bei; eta azkena saldu zigunak, eman zigun naiko urdaiazpiko, txorixo eta etxeko ardoa, kimikarik gabea. Ez genduan bidean jaten asi bearrik izan. Zuzenean, urrengo urtean ondo banintzan bisitatuko nituala esanda, partitu giñan. Uste det gustora gelditu zirala danak.

Aiek etzeukaten baztarrean zeuzkaten gazteak aurrean jarri besterik. Artu zuten dirua gordeta, len aiña ganadu ikuilluan. Jaio ala, urrusak utzi aurre-rako. Berriz ekarri bearrik ez. Ori daukate beren sal-bazioa.

Ondo bizi dira. Udaran naiko euria izan ezkerro, millaka kilo patata, artoa, babarruna. Baratza-gauza nai dan guzia etxerako. Txerrikoa urte guzian. Ardoa, etxekoa. Poza da aien artera urtero joateko modua izatea.

Gu ere gustora etorri giñan. Ala zion Isidrok erdi parrez:

– Tratu onak egin ditugu, zuri eskerrak.

– Zuri ere bai –esaten nion nik–. Zurekin ez banu esperantzik izan, nik ez nuan emen traturik egingo.

– Bai. Ala da ori ere –esaten zidan–. Alkarri lagunduta zenbat gauza zuzendu litezken!

Orrelaxe etorri giñan bide guzian, kontu kontari. Altsatsutik bera asi giñanean etxera arrimatzen, galdetu zidan:

– Ganaduak badakartzegu, eta nun sartu bear ditugu?

– Zuk segi lasai. Nun sartua badago: nere etxean danak, beste bi ekarrita ere.

– Orduan seguru gera. A zer poza ematen didazun! Lekuak ez du gutxi balio olakoan.

– Bai; ortan suertea degu. Lenago borda batean eduki nituan, birekin bakarrik egon nintzanean. Gero lau jarri nituan. Orduan ikuillu berria egin nuan; eta orain, tokia badago, obe. Orrela igual, besteren bat tokatzen bada ere, badakigu lekua bada-goala.

Orrela iritxi giñan gure baserrira, argitan. Etxekoak ere gustora, garaiz etorri giñanean, illundu ta bildurrez egon gabe. Sartu genituan danak beren lekuetan, jana emanda lenengo. Meriendatu urrena, kontuak esanez. Emakumeak deseaten egoten ziran zerbait jakiteko. Geren pasadizoak kontatu genizkien.

Berriz ikuillura. Bost geiago jezteko. Berrogei bat litro bildu genituan. Emazteari esan nion:

– Biar naiko dirua badezu, orrenbeste esnerekin.

– Nun eraman bear ditut? Ea bizi-lagunak marmitarik daukan libre.

Joan zan eta ekarri zituan ogei litroko bat eta amarrekoa. Au berak artuko ziola, paltan zebillelata. Ondo moldatu giñan. Urrengo goizean ordu erdi bat lenago jexi bear ikuilluko lanak egiteko.

Gauekoa bukatu genduanean, eseri giñan biok, nola asi bear genduan alkarri esateko. Isidro zegoan

esan naiean nola ekin nezaken. Kontseju auxe eman zidan:

– Orain emen pentsua bear da. Ondo gobernatu bear dira. Ez dezatela galdu beiak. Nik pentsua eka-riko det. Zuk eman. Esneak saldu, al dezuten moduan. Diruak etxekoandreak gorde ditzala. Zuk lana egin, nik bezelaxe. Biar bei ori perratzaillarengana eramane bear det. Ori gaizki dago.

Urrengo goizean garaiz etorri zan. Eraman zuan. Eguerdi aldera etorri zan bere beiarekin. Lan asko zeukala: azkazalak moztu, azpitik gastatu berdintzeko. Dotoretu zuan, baiñan miñez etorri zan. Egun pare bat gaizki pasatu zituan. Laster asi zan lurrean ondo jartzen. Dirurik geiena berarekin irabazi genduan. Danekin irabazteko suertea izan genduan. Illabetean saldu zituan, bereak iru eta nere bat.

Egun batean pentsatu genduan: Altzako Martillun tabernan, merienda bat egiñez, kontuak garbitu. Nere etxera etorri zitzaidan. Biok joan giñan taberna ortara. Esanda zeuzkan nola etorriko zan. Sartu orduko esan ziguten laster jarriko zutela merienda.

Geren kontuak esanez, denak paperean garbi jarrita zeuzkan gastuak eta irabaziak. Lenengo meriendatuta jarri giñanean. asi zitzaidan diruak partitzen.

Neronek erositako beia, sei milla pezeta geiagotan saldu zuan. Iruna milla pezeta bakoitzak, irabazia erdibana. Berak erositakoak ere bai. Anketatik gaizki etorri ta perratokira eramanda ibili zuana, milla duro galestiago saldu zuan. Arek utzi zigun irabazirik geiena. Milla duro jarri det; baiñan ori bakoitzak irabazi genduan.

Beste bat bagenduan, nik oberena ura zala esan niona. Zazpi milla irabazian, iru t'erdi bakoitzak.

Pentsuak eta kamioiaren gastuak kenduta, diru dezente eman zidan neri. Esan nion:


– Zerorrentzat bai al dezu orrenbeste?

Erantzun zidan:

– Bai, bai. Ori ta merienda ordaintzeko diña ere badet.

Ni gustora gelditu nintzan. Bera ere ala uste det.

Merienda ordaindu zuan eta agur esanda atera giñan. Arek ni etxera ekarrita, umore ederrean partitu giñan, berriz ere olako tratuak billatzeko sarri esanez.



Ordiziko peria

Asto-tratuak

ORAIN asto-tratuak ditut gogoan. Lenengo astoa Zumarragatik ekarria nuan, oso gaztea artean. Amar bat urtean nerekin eduki ondoren, ezta rrian zuala zerbait esan zidan albaiteroak. Ura galdu egingo zala eta zuloan sartzeko esanda utzi niñun. Suertea izan nuan txorizeri batera ondo saltzeko. Gaztea zan eta aragi ona zeukan. Ura baiño txarra goak sartuko dituzte.

Beste bat erosi naiez, asteazken batean joan nintzan Ordizira, ea astoren bat azaltzen ote zan. Buelta eman nuan plazan, baiñan alperrik. An etze goan astorik.

An nenbillen bueltaka. Alako batean topo egin nuan nere gaztetako lagun batekin. Esan nion nola neukan asto baten palta.

Berak esan zidan nola zeukan etxean saldu naiean. Ogei urtetik gora bere edadea. Zenbat diru bear zuan galdetu nion. Ogei ta amar duro eskatu zidan. Segituan egin genduan tratua.

Esan nion urrengo goizean, egunero Donostira joaten zan erriko bat automobillarekin enkarguak egiñez, eta arekin bialtzeko. Nik Groseko baillaran itxoingo niola, bera gelditzen zan lekuan

Esan bezela, an agertu zitzaidan. Zintzo jetxi genduan. Ordaindu nion eskatu zidana, artu astoa katetik eta oiñez etxera.

Bildur nintzan, gaiñean jartzen banintzan, lurrera eroriko ote zan. Saldu zidanak esan zidan

berrogei kilo baiño geiago ez botatzeko astoaren gaiñera. Nik nola dauzkaten zerbait geiago, oiñez etorri bear izan nuan.

Etxera iritxi giñanean, segituan kakoak jarri ta jaten billa eraman nuan. Jarritako lekuan txintxo egoten zan, kargatu arte. Nik bizkarrean aiña ondo ekartzen zuan. Alde ederra atzetik utsik etortzea, bizkarreko partez.

Iru bat urtean laguntza aundia egin zidan; baiñan azkenean ibili ezinda gelditu zan. Zarra eta plako zegoan.

Suerte txarra izan zuan. Jarri zan karga aundirik ekarri ezin da naiko lanarekin. Ikuilluan lotuta antxe egoten zan, ematen genion janarekin. Eta egun batean ara zer gertatu zitzaion: nere etxean neukan morroi batek, ikuilluan beiak jeizten ari zala, balde bat esnearekin bete zuanean, utzi zuan astoaren gertu, eta beste baldearekin beste beiak jeizten asi zan. Eta arek beste bei oiek jeizterako, lenago ondoan utzi zion baldekada esnea dana ustuzion astoak. Guri kalte ederra egin zigun, amar edo dozena bat litro esne edan zizkigun eta esnerik gabe utzi giñulako. Baiñan beretzako aundiagoa, edandako esneak kalte eginda, urrengo goizean lurrean illa billatu genduan eta. Orra asto zarraren bukaera.

Pena ematen zidala, soroan zuloa egin da antxe sartu nuan. Etzeukan kolpe aundiaren bearririk bizi kentzeko.

Berriz ere lagunik gabe gelditu nintzan ganadu-jatenak etxeratzeko. Nere anaiak jakin zuanean, deitu zidan: sobra zeukala mandoa. Etxean sortua zan, neroni bertan bizi nintzala artean. Gure aitak ekarri zuan Ataungo lagun bati erosita.

Zaldi gazte bat lenago izan genduan etxean, eta asto txiki bat ere bai. Zenbat ume egin ote zituan arek? Urtero, nik ezagutu nuanetik. Azkenean aitak

bere anaiari, Donostiko Altzan Iparragire baserrian bizi zanari eman zion. Ez dakit zenbat kobratu zion. Debalde emana izan zitekean.

Azkena egin zuan umea etxean gelditu zuten. Lenago Ataundik ekarri zuan zaldiarekin ibilita, bien artean mando ori sortu zuten. Bastante urtean irurak etxean izan zituzten. Gero, astoa eta zaldia naikoa zituztela eta uskeri batean eman zidan neri mandoa. Artean lanerako ondo zegoan. Amar bat urte egin zituan nere etxean. Beko aldetik bizkarrean jarri ta goiko aldetik bera kargatuta, oso ona zan. Lenago ere banekian aren berri. Gustora ibili nintzan berarekin.

Ura ere zartu egin zan. Gauza onik ez orduan. Bialdu egin bear. Karnizero bati deitu nion. Etorri zitzaidan. Ikusi zuan.

– Kilo gutxi dago emen –esan zidan.

Laguna nuan lendik. Galdetu zidan:

– Zenbat diru nai dezu?

Erantzun nion:

– Zuretzat balio dizuna emaidazu eta kito.

Begira egon zan pixka batean pentsatzen.

– Nik au bi milla pezeta baiño geiago ez daukat ordaintzerik. Noiz eramango det?

– Nai badezu, biar bertan; bestela, etzi –esan nion.

– Isidrorekin bialduko det.

– Bialdu bederatziak alderako.

– Bai; nere kontu.

Orduan bi milla pezeta eman zidan da “urrena arte” esanda, ala alde egin zuan.

Gero deitu nion Isidrori. Esan nion zer lan zeukan.

– Noizko? –galdetu zidan.

- Nai badezu, biar. Bestela, etzi.
- Bueno, biar bertan etorriko naiz.

Zortzi t'erdietan, esan bezela, an agertu zan paxara ederrean. Etzan presaka ibiltzen. Gaixoa makala zegoan gora igotzeko. Artu genduan batek sokatik tiraka, besteak atzetik bultzaka. Derrigorrean sartu genduan gaixoa. Ainbeste lan eginda, pena ematen zidan ola bukatu bearra. Esan nion Isidrori:

- An nola ustu bear dezu bakarrik?

Parrez jarrita esan zidan:

- Nik atzeko posteari lotuko diot soka batekin. An aterako da nai ta ez. An geldituko da lurrean. Nik soka kenduko diot eta or konpon.

Kargatu genduanean esan zidan:

- Berriz ere bearako dezu, ba, kaballeriren bat?
- Ez dakit nora asi billa.

Ori nola egoten dan zai, peri guzien berri ikasita, Tafallan zegoala kaballerien peria urrengo astean; nai banuan, joango giñala biak.

Ni ere pozik berarekin joateko. Ura nola zegoan ganadu-klase guziekin ibiltzen oituta, nik baiño geiago ezagutzen zituan aziendak.

Urrengo astean, eguna etorri zai. Deitu zidan bezperan, goizeko zazpietako pronto egoteko. Esandako ordurako etorri zan. Neri ere olako gauzetan ala gustatzen zait. Naiago det neroni zai egon, besteak zai eduki arazi baiño.

Atera giñan. Kapesne pixka bat eman zion emazteak. "Illuntzerarte" esanda alde egin genduan. Bidean ibiltzeko gozoa zan Isidro. Oso gustagarria. Itz bat txarrik etzuan. Zenbaitek badu maldizioa eta gaizki itzegin bearra. Ni barrendik asarretu egiten nau alakoak. Poza da Isidro bezelakoekin ibiltzea.

Orrela iritxi giñan. Lenengo, kamioia aparkatu. Gero, plaza guziari buelta eman. Ikusi genituan

danak. Asto aundi bat zegoan. Biok begiratu genion ostikorik botatzen ote zuan, mantsoa ote zan. Ortzetan, alde guzietara miatu zuan. Etorri zaigu ijito bat:

– *¿Qué? ¿Hace falta la burra?*

Neri bildurra ematen dit ijitoak. Igual da iñon dan onena bada ere. Baiñan nere lagun ori oitua zegoan danekin. Ura etzan apuratzen iñorekin.

Galdetu zion zenbat balio zuan, eta ogei milla duro esan zion. Eta Isidrok parrez jarrita esan zion:

– *La burra será buena, pero el precio no es para nosotros.*

Abitu egin giñan.

– *¿Cuánto vale para ustedes?* –deitu zigun.

Siñale zuan saltzeko ekarri zuala. Gu bueltatzea nai zuan. Esan zidan lagunak:

– Ori gero ere or egongo da. Orain aurrena gosaldu egin bear degu. Emen gaur aukera aundia dago. Gero ikusiko ditugu.

Ola, joan giñan taberna batera. Gosaldu genduan. Ederki jarri giñan plazan ibiltzeko. Asi giñanean astoaren ondora arrimatzen, ezagutu giñun:

– *¿Qué? ¿No quieren comprar?*

– *La burra es muy cara.*

– *¿Cuánto me pagáis?*

– *Tiene que bajar mucho para que ofrezcamos algo.*

– *Si ofrecéis algo, bajaré yo también.*

– Onekin alperrik ari gera –esanda, abiatu zan Isidro beste aldera. Ni ere bai atzetik.

Ikusi genduan beste mando bat dezentea. Urte batzuk bazeuzkan, baiñan lanerako ondo oraindik. Miatu zuan lagunak anketan, belarritik elduta osti-

korik egiten zuan. Inguratu zitzaion beste ijito bat, oso mantsoa zala esanez.

Galderak egiten zizkion saltzaille ari ere. Mando ura zenbat balio zuan galdezka. Euskalduna zan nagusia.

– Merke emango dizuet –esan zigun.

– Ori nai degu – esan zion Isidrok.

– Amabi milla pezeta.

Orduan galdetu genion ea lanean probatuko al genduan.

– Bai, gizona –esanda askatu zuan.

Bertan edukitzen dute karro edo galera aundi bat preparatuta, nai zuanak ari loturik ibiltzen ziran *arre* eta *so* buillaka. Karroa preparatuta edukitzen dute. Nai bada, arrastaka jartzen da, indar aundiko animalia baldin bada. Guk zerbait lotuta, baiñan errezago probatu genduan.

Ikusirik guretzako balio zuala, askatu ta eraman zuan Isidrok lengo lekura. Galdetu zigun:

– Gustatu al zaizue? Urte batzuk dauzka, baiñan oraindik sasoi dauka onek. Zenbat pagatuko dezute?

Saltzaillearen lagunak orduan deitu zigun:

– Atozte, gizonak. Tratua bukatuko al degu?

Urrena saltzailleari esan zion:

– Zu bajatzen bazera, egiña dago. Ekatzu bostekoa. Erdibana lau milla pezeta oiek.

Besteak etzion eman. Pentsatu zuan ea beste milla bajatu arazten zion. Berriz alde egiten asi zan. Orduan, nola zegoan plaza guzia beteta kaballeriz, bildurtu egin zan besteren batekin egingo ote genduan tratua. Atzetik deitu zigun, esanez:

– Beste milla jetxiko naiz, eta zuentzat.

Orduan eskua eman zion Isidrok. Bederatzi milla ordaindu ta artu genduan mando ori. Kamioia zegoan lekuan:

– Igoko ote da?

Aldapa dezentea zeukan. Atea bajatu ta ni igo nintzan aurretik sokatik tiraka. Isidrok eman zion makillarekin bizkarretik. Bera saltatu zan betik gora. Laster zan barrenean. Biok gustora gelditu giñan, esanez:

– Oraindik sasoi dauka.

Lasaitu giñuzten aren mugimentuak. Andik libratuta geunden. Ala ere, Isidro etzegoan lasa. Arek biajea libre atera nai zuan. Asi zan esanez:

– Oraintxe bei-pare bat billatuko bagenitu...

– Nik orain lagunduko dizut, lenago zuk egin dezu ta.

– Aurrena bazkaldu ez degu egingo?

– Bai; onena.

Plazari buelta bat eman genion, len baiño lasago. Geren tratua eginda, obetoago ikusten genituan gauzak. Danari begiratuta alde egin genduan bazkaltzera.

Isidro etzegoan lasa nora joan bear genduan jakin gabe. Joan giñan lenago gosaldu genduan lekura. Eserita jarri orduko, etorri zitzaigun neska gazte bat. Nere lagun ori soltero zegoan artean. Asi zitzaion preskura batzuk botatzen. Neska ere gustora olako kontuak entzunez.

Esan zigun zer zeukaten. Ez naiz gogoratzen aukeratu genduana zer izan zan. Bakarrik dakit gustora atera giñala. Neskatxa ere, taberna askotan bezela, mutil gazteari itzegin naian zegoan. Urrena erri artara etortzen zanean, bisitatuko zuala esan zion Isidrok. Gustora gelditu ziran. Askotan ezkontzak olaxe gertatzen dira.

Orrela atera giñan bazkalduta. Orduan aztu zitzaizkion neskak nere lagunari. Asi zitzaidan galdezka:

– Nora jo bear degu?

Esan nion:

– Goazen Puente la Reina-ra. An badauzkat eza-gunak, beiak saltzeko nun dauden dakitenak. Pare bat billatuko ditugu.

Poztu zan ori entzun zuanean. Bereala an giñan. Bide gutxi dago. Iritxi giñanean, kamioia utzi plaza-baztarrean, eta joan giñan lagun baten etxera. Bekoan burnizko aldaba aundi bat eukitzen dute. Jo nuan arekin, siestan bazeuden, esnatzeko moduan.

– *¿Quién es?* –deitu zuan.

Konturatu nintzan bera zala bozean.

– *Baja un poco* –esan nion.

Etorri zan bera. Ikusi giñunean:

– *Pero ¿cómo habéis venido sin avisar? Suerte tenéis que estaba.*

Esan genion nola etorri giñan mando baten billa. Erosi genduala ta zerbait geiago billatzen genduan etorri giñala.

– *Pues donde llevasteis hace dos o tres años ya habrá alguna. Tiene dos novillas recién paridas, y otras dos para parir, buenas.*

– *¿A qué precio andará?*

– *Yo pienso que por menos de quince no te la va a dar. La otra, si te la da en catorce, no está mal. Porque la primera anda de veinte para arriba. La otra, de dieciocho o por ahí. Os vendería las dos, si le ofrecéis veintinueve, porque tiene otras dos para parir en seguida.*

Orrela, joan giñan gizon orrengana. Deitu zion eta ikuilluan zebillen. Atera zan. Ni ikusi orduko, asi zan esanez:

– *¿Qué andan estos vascos aquí? Buenas tardes*
–esku emanetz.

Uste det pentsatuko zuala: “Bei bat benik erosi-ko balute...”

Gurekin etorri zanak esan zion:

– *Quieren comprar alguna, si tienes para vender.*

– *Si me pagan bien, dos igual* –erantzun zion.

Andik aurrera bagenduan zertaz itzegiña. Bereala asi zan gure Isidro...

– *Vamos a verlas entonces.*

Sartu giñan. Ikuillu galanta zan. Etzuan ematen, kaletik sartuta, atzean alako tokia egon bear zuanik. Eskiña batetik bestera danak ikusi zituan. Asi zan esanez:

– *Bueno, ¿quiénes son las que quiere vender?*

Bi ume egin berrietan nai zuana; eta, biak nai bazituan, berdin.

Esan zion orduan:

– *¿Cuánto dinero por las dos?*

– *Treinta y un mil pesetas.*

– *Mucho pides.*

– *Tú ¿cuánto me pagas?*

– *Veintisiete.*

– *No te equivoques ofreciendo demasiado.* –erantzun zion.

Beste laguna entzuten zegoan. Arek bazekian bien berri.

– *Poco trabajo tenéis. La diferencia a media. Dale la mano. Está hecho.*

Biak jarri ziran alkarri begira. Zein aurreratu etzekiten. Isidrok luzatu zion. Besteak ere bai pozik. Itz bitan egin zuten tratua. Isidrok esan zion:

– *¿No tiene otra para vender?*

– *Si quiere alguna de ésas que están para parir...*
–erantzun zion.

Zer prezio izango zuten galdetu zion Isidrok, eta ogei ta amarna mila pezeta.

– *Un poco menos. ¿Ventiséis mil por cada una?*

Ganadu-jabeak:

– *Son de buena raza y por menos de treinta mil no las quiero dar.*

Etzuten traturik egin. Lengoeekin gelditu ziran.

Orduantxe pixka bat lasatu giñan. Emazteak al zuanetik gustora eman zigun. Tratu artatik espero zuan beretzako irabazia. Jateko denboran kontatu genien eguneko ibili guzia. Isidro ere gustora zegoan izan zuan suertearekin.

Mandoa erosi genduanean, jarri zan pentsatzen neri bideko buelta kobratu gabe irabazia nondik aterako ote zuan; nora joko galdezka.

Nik ere ortantxe lagundu nai nion. Beretzat traturik egiten bazuan, banekian etzidala ezer kenduko. Orregatik esan nion:

– Nik badauzkat Puente la Reina-n ezagunak.

Ori biontzat ondo etorri zan.

Etxera etorri eta apalondoan kapea ta kopatxo bana artuaz, asi zan neri zer egiteko neuzkan esaten. Gure ikuilluan utzi zituan nere kontu mantentzeko.

– Pentsua biar goizean ekarriko det. Zuk eman ondo. Esnetan ez ditezela bajatu, saltzeko. Geiago ematen badute, diru geiagoan salduko ditugu. Pentsatzen det oiek danak badakizkizula. Orregatik uzten dizkizut ganaduak zuri.

Erdi parrez jarrita, arpegira begiratzen zidan.

– Eta biltzen dituzun esneak, etxekoandreak gorde ditzala, udaran oporretara biok joan zaitezten.

Ura begiratu gozoa egiten zion nere emazteak! Bere artean pentsatzen zuan: “Ez dituk gaizki etorriko”. Gustatzen zitzaion esku artean lasai xamar ibiltzea. Baiñan etzuan alperrik asko botako. Bazekian tarteka iganderako arkuma erdi bat edo beste ekartzen.

Urrengo goizean jarri nizkion etxeko esneak egunerokoei eramateko, eta berrogei litro esne-saltzailleari eramateko. Lau pezetara igota zegoan; erre-al bat merkeago ematen zion, eta bestea gustora. Arek berrogei ta bost igual egingo zituan.

Gureak, beintzat, eun da berrogei ta amar peze-ta egunero. Arentzat gozamina izaten zan beiak saldu arte. Arek naiago zuan egun batzuetan salduko ez balitu. Amerika emen zegoan arentzat.

Batean Isidrok ekarri zuan erostuna bei baten-tzat. Tratua egindakoa, erostunak onela esan zion:

– Sartu zak beia automobillean. Onek bialdu egin nai dik, berak, tratua eginda, ez gobernatzegatik.

Eta emazteak albotik:

– Ez, ez. Beste astebetean emango diogu jaten ondo, utzi nai badezute.

Isidrok esan zion besteari:

– Entzun al dek ori? Ok lana egingo lutekenean zeudek. Ala dek itxura.

Ni beste aldera nengoan, baiñan:

– Oentzat ona bada, neretzat ez al dek txarra izango, ta sartu zak eraman dezagun.

Bien artean laster sartu zuten lenengo bei ori. Gu atzetik begira gelditu giñan, emaztea eta biok.

– Biarko ogei litro esne gutxiago –zion arek. Berea gogoan.

– Egon lasai, emakumea. Oraindik ogei litro badauzkagu; eta, bestea ondo bada, laster degu esne berria.

– Bai. Eskerrak orri. Itxura ederra dauka. Suerte bagendu txekorra jaiotzeko...

– Ez ditu egun asko pasako, aurreratzen ari da ederki ta.

– Ondo izan dezala. A zer errapea daukan!

Emazteak zion:

– Ea besteak baiño esne geiago ematen duan.

– Larri ibili.

– Jaunak ala nai badu, orrekin ere pezeta batzuk baditut neretzat.

– Bai, emakumea. Ez dizkizut nik kenduko. Aurrezki-Kutxan illaren azkenean jasotzen dedana naikoa det neretzat. Zu ere saiatu, bi bei oiek etxean dauden arte, diru pixka bat sobratzen. Laster ume-tuko da. Baiñan amabost bat egun bearko ditu saltzeko moduan jartzeko. Zenbat esne ematen duan ikusita, orduan jakiten da zenbat eskatu.

Egunero etxeko beiarekin larrera bialtzen nuan. Mesede izaten du kanpoan ibiltzea umea egiteko. Goiz batean atera zanean, pentsatu nuan: “Gaur larri ibiliko da”.

Amarrak aldera jetxi nintzan ikustera. An zegoan baztar batean etzanda, bakarrik. Pentsatu nuan: “Au etxera eraman bear det”.

Artu nuan aurrean, baiñan etzuan bakarrik joan nai. Derriorrean sartu nuan. Pentsu pixka bat emanda utzi nuan. Laster joan nintzan berriz. Janak bukatu gabe, etzanda zegoan.

Laster asi zan kejatzen. Ordu baterako egin zuan umea. Bereala deitu nion Isidrori. Jetzi nuan. Eman nion txekorrari bi botillakada esne, indartu zedin. Beste zortzi bat litro beiari. Gustora edaten dute, egarriak egoten dira ta. Barrena garbitzeko ona izaten omen dute. Ala entzun izan det.

Ordu erdi bat baiño len kendu bere burua lurrari. Isidro etortzerako, kalera ateratzeko moduan zan. Jaio berria urruxa zan da poz artu nuan. Isidrok esan zidan:

– Au ez da gaztetan ilko. Onek izango du eskea. Zenbat esne zeukak?

– Amar bat, bai.

– Ogeira iritxiko al da?

– Ogei ta bostera ere bai, nere ustez.

– Nik al detena lagunduko diot.

– Bai; ori espero det. Segi zuk ortan. Orrek diru asko balio du.

Bere txekor da guzi nere esku utzita, alde egin zuan. Bestearentzat erostuna bazuala esan zidan; laster etorriko zala.

– Saltzen badu, lan gutxiago; dirua ere bai –emazteak.

– Negua pasatzean, udaberria etortzen da, Datorrena artu bear.

Andik bi egunera deitu zidan Isidrok: bei-eros-tunarekin zetorrela; pixka bat garbituta jartzeko.

Saiatu nintzan txukuntzen. An etorri zan bere lagun orrekin: lenago berrogei bei zeuzkana zala. Ori ikusi zuan ondo: nolako zaiñak zituan; esnea jezten erreza ote zan; azkazalak ondo ote zeuzkan; jale ona al zan... Enteratu zan ganaduaren detaille guzietan. Zenbat esne zeukan galdetu zidan:

– Atzo ogei ta bost kendu nizkion.

Orduan Isidrori galdetu zion:

– Orain zuri asiko naiz. Zenbat diru bear dezu?

– Ogei ta zortzi milla pezeta –esan zion.

Etzan batere asarre jarri. Bazekian bei onak zer balio zuten. Pixka batean pentsatzen egon zan, eta auxe esan zion:

– Pentsatzen nuan balio duan baiño geiago eskatu zidazula. Geitxo eskatu didazu.

– Orduan zuk esan zazu zenbat balio duan.

– Neretzako, ogei ta bost balio du. Besteren batek geiago aginduko al dik? Gaur ez dek beintzat ortan emango. Pixka bat jetxi zaitea.

Eta besteak:

– Gora ez det egingo. Baiñan bera ere gutxi –erantzun zion.

Biak bazekiten bukaera nun zeukaten tratuan, eta erostunak atera zuan itza:

– Nai al dezu bukaerako bidea nik jartzea?

– Ona jartzezn badezu...

– Iru milla pezetaren aldea daukagu. Ni igoko naiz erdira; zu jeisten bazera...

– Ori eskatzen duan gizonari ez dago ukatzerik. Nai dezunean eramango zaituztet biok.

Orduan esan nien:

– Tratu ori busti bearako degu pixka bat, sukaldera joan da trago bana egiñez.

Ordu erdi bat pasatu genduan kontu kontari. Laster aldegin zuten. Urrengo ostegunean ordainduko ziola esan zion. Neri ere esan zidan Isidrok joateko, alkarrekin meriendatuko genduala. Baiñan ez nintzan joan.

Egun gutxi barru etorri zan beiarentzat pentsua ekartzera, Bazekian bukaeran zirala. Ama ta umeari begiratu zien. Txekorrak ederki irabazi zuala zion. Esnetan nola zebillen galdetu zidan.

– Ogei ta bost pasak dabil. Bi egun barru seira iritxiko da –esan nion.

– Onek diru asko balio du –esan zidan–Txekorrak ere balio aundia dauka, olako beiaren umea. Esnetara dedikatzen dan batek begiratuko dio zeñen umea dan.

– Bai, bai. Ez dudarik eduki ortan. Bei ori erosten duanak ez du txekorra utziko.

Gustora joan zan, aiei begira egonda. Gu ere ala geunden. Txekorrari amar bat litro ematen nion egunean baldetik. Jaio berrian, errez erakusten zaio ontzitik. Lenengo beatza txupatzen asten da. Orduan, poliki-poliki, eskua esnetan sartu. Beatzaren baztarretik esnea edaten asten da. Pixkana beatza atera agotik. Azkenean, beatzik gabe. Bi egunean errez ikasten du baldetik edaten. Dana izaten da beiari jezten zaion ontzitik ematea.

Ogei ta amasei edo emezortzi gradu omen dauka beiaren barrenean esneak. Al dan beroena emanda, on geiago egiten omen dio. Orregatik, ez da ohea ontzi batetik bestera aldatzea, graduak gutxitu egiten zaizkiolako. Surtan berotu bear bada, kontuz ibili geiago berotu gabe. Beroa emanda, berealaxe tripak gaixotzen zaizkio. Orra nola gobernatu erakutsi. Asi nadin lengo bidean.

Txekorrari amar litro emanda, beste amabost gelditzen dira emazteak kalera eramateko. Aiekin eguneko ogia zaitu gabe ez dago ezer.

Beste amar bat egun olaxe pasatu genituan: nik beia gobernatu eta emazteak aren esnea. Etxekoak ere bai.

Bi egunetik etortzen zan Isidro bere bisita egitera: nola zeuden ikusi. Kontu batzuk esanda, alde egiten zuan. Nik ez nuan pentsatzen nere senide bat etzanik, ain ondo etortzen giñan da.

Iritxi zan eguna: beia nork artua bazuala; urrengo arratsaldean etorriko zala. Jarri nion ondo garbituta, azpi ederrean txukun egon zedin.

Siestatik jeiki nintzan orduan, kamioiaren otsa. Berak ekartzen zuan. Gero, beia eta biak eramane. Esanda ekartzen zuan zenbat balio zeukan. Sartu ziran ikuillura. Begiratu zien bie.

Arek ere esnea kentzen samurra ote zuan. Or alde aundia baitago: samurra edo zailla izan.

– Paltarik etzeukak onek, ik ez badiok jartzen.

– Zenbat diru bear dek?

– Nola nai dek eskatzea: justu edo gero bajatzekotan?

– Nai dean bezela.

– Nik komeni zaitena eskeñiko diat: ogei ta amaika milla pezeta.

– Gero jeistekotan eskatuko uan?

– Oso betik ez adi asi, gerorako lan asko utzita.

– Ogei ta zortzi neretzat.

– Ez; ortan neretzat bearko diat.

Isidro lasai zegoan, baiñan bestea zer pentsa, gora igo bearko ote zuan. Esan zion:

– Erdibana egingo al diagu?

– Ez. Ik bi gora igo adi, eta ni bat bajatuko nauk.

Berriz erdibana eskatzera etzan atrebitu:

– Bueno, etxera eraman zak eta ogei ta amarrean neretzat gelditzen dek.

Besteak bezela, ostegunean Ernanin ordaintzekotan gelditu ziran. Ondo saldu zuan da gu ere gustora gelditu giñan. Ondorengo egun batean etorriko zala esanda alde egin zuten, beren bei eta txekor.

Andik bi egunera etorri zan. Lengoan bezela, Martilluna joateko idean. Baiñan nere emazteak berak jarriko zigula esan zigun. Bertan gelditu giñan. Apari ederra eman zigun. Kontua pranko esan ere bai. Azkenean, zenbat diru bear nuan galdetu zidan.

– Batere ez –esan nion nik.

Orduan emazteari eman zion eskupeko dezentea. Nunbait ondo atera zan ganaduekin. Sobratu

ziran pentsuak etxekoei emateko esanda utzi zituán. Gustora gelditu giñan.

Kontatu zizkigun berak zerabilzkian ideak edo ametsak: lenengo asmoa edo gogoa zeukan baserri bat artzeko. Baiñan ez nion galdetu, errentan ala erosita, nola artu bear zuan. Esan izan banio, seguru nago garbi esango zidala.

Lengo lanean segi nai zuan ganaduarekin: bizitakoak eta iltzekoak ere, ikuillu ona zeukala baserri orrek, egunero lan pixka bat bertan egiñez...

Beste buruauste bat bazeukan: urtetan gora igo ta berrogeitik gora, eta aspertu zala bakarrik bizitzen. Emaztea artzeko idea zuala. Ni poztu egin niñun ori esanda. Opa nion ondo izatea. Oso lagun ona zan neretzako.

Andoaingo trenaren apeaderoaren goiko aldean, oso leku ederrean zegoan baserri ori. Igande batean joan nintzan ikusi naiean. Suertea izan nuan: antxe zebillen ikuilluan, ganaduari jana emanda: bost bei, bi txekor eta asto bat, jatenak ekartzeko.

Denak zuzendu zituanean, esan zidan:

– Goazen sukaldera.

Sartu giñan. Sukalde ederra. Garbi zeukan. Nere pentsamentua izan zan; emaztegaia izango ote zan aiek garbitzen zituana. Arritzekoa etzan da ondo preparatuta zegoan. Bazeuzkan azeitunak, ogia eta ardoa. Eseri ta tertuli gozoa egin genduan biok. Galdetu nion:

– Noiz esposatu bear dezute?

– Atzo amabost –esan zidan.

Egonaldi ederra egin da amaiketakoa bezela ere bai, umore ederrean partitu giñan.

Esan zidan bere emaztegaia zein en arreba zan. Gure etxean piñudi bat botatzen ibili zan batena.

– Oso laguna degu bere anaia; jator askoa.

Jakin genduan esposatu zirala. Seguru ez nago, baiñan uste det Andoaiñen kalean bizi zirala. Bearbada bera kanpoan asko ibiltzen zan, eta emaztea bakarrik baserrian ez egotearren biziko ziran kalean.

Bakartu giñan da ez genduan ezeren berririk denbora aldi batean. Pentsatzen genduan, ezkonberritan oi dan bezela, zorionsu biziko zirala. Gaur ez gera batere arritzen ezkondu ta urtebete barru asarratu ta partitu egin dirala entzunda. Oiena tristea-goa izan zan.

Gizon ura ikusita, zeñen umoretsua! Arrazoitakoa, umilla. Maldizio bat sekula ez nion entzun. Berriketan beti.

Ez dakit zenbat denbora zuten. Izan zitezkean bi urte edo lau ezkondu zirala. Gutxiena pentsatzen genduan garaian asi zan zabaltzen sinistu ezin leiken kontu negargarri bat. Nere barrenak ezin zion utzi sinistu erazten.

Egun batean atera zala etxetik baserrira ango lanak egiteko; eta emaztea etxean bakarrik. baiñan goizean asi zala jendeari abisatzen zer gertatzen zan. Joan zirala gizonak beraren billa. An billatu dute ganbarako egur bati lotuta soka bat, bera, ganadujana botatzeko zegoan zulotik pasata, ikuilluan zintzilika sokatik.

Inguruko batzuk artu zituztela. Emaztea ere artu omen zuten kartzelan. Laster bialdu zutela uste det; eta azkenean, ezeren gauza garbirik atera gabe gelditu zala. Berak bere burua galdu edo ito ote zuan esaten zuten.

Nik galdetuko nuke: zer izan zuan arek ori bere buruari egiteko? Sinisteak lan du. Lagun bat gutxiago munduan.

Ordizin erositako beia

SARTU nadin lengo bidean: peritik perira. Beti izan naiz perizalea, zerbait ikusi naiean. Neroni bertan bizitua naizenez, Ordizira joatea oso gogokoa izan det.

Joan nintzan orain dala urte batzuk asteazken batean, egun-pasa egiteko idean. Bertara irixtean, lenengo, nere anai zanaren alaba estazioaren ondoran tabernarekin dago, eta berari bisita. Badaki zalea naizela.

Katillu bat salda eskeintzen dit. Nik ezetzik ez diot bein ere esaten. Bestela, urrengoan igual ez dit eskeiñiko. Ortarako ohea da beti artzea.

Askotan, bere ama, nere koiñata, an nagoala agertzen da. Ordu beteko lana badegu geren barre-nari ustu bat ematen. Arek bere pameliaren gorabe-rak, eta nik nereak. Batzuetan pozezkoak, bestetan penazkoak, danetatik gertatzen dira mundu ontan. Deskantsu bat artzen degunean partitzen gera, "gero arte" esan da laztan bana emanez.

Andik goiko plazara. Garai artan ganadu-periak segitzen zuan. Erdiko plaza aundian ere bazan zer ikusia, gaur bezelaxe. Ezagun guziekin itzegiñez, pixkanaka betik gora.

Amabiak alderako leku jakiña izaten genduan. Gaur ere ala gertatzen da: dozen erdi bat lagun bil-duta, iruna edo launa baxoerdi. Orduan bezela gaur ere.

Len esan dedan egun artan, nere etxeko bi suien anaiarekin topo egin genduan. Sartu giñan berriz biok. Arek ez dio tabernari kasorik egiten, zer ikusia plazan dagoan arte. Nunbait bere egitekoak egin zituan goizean. Etxean gosaldu eta ezer geroztik artu gabe zegoala eta pintxo bana eskatu zituan, botil txiki bat ardorekin eserita jarrita artuko genduala. Bazkaltzera etxera joan bear zuala esan zidan.

Nik, berriz, Ordizira joan ezkerro, dozena bat pameliarrak dauzkat. Esanda nago neretzat bazkaria danak daukatela. Lagunak ere presarik ez.

Jakin nai izaten zuan bere anaiak eta beren pameliak zer moduz zebiltzan.

Gero asi giñan tratu-kontuan. Tratalaria baizan bera. Garai artan galdetzen bazenion lan asko al zerabilkian, onela erantzuten zuan:

– Bai; gure kontura, badakizu, ibili zerbait iñoiz. Asto zarren bat erosten badegu, guri tratua gustatu egiten zaigu eta ibili bueltaka.

Mundu ontan alde aundikoak gera izketan. Bati galdera egiten badiozu, asiko zaizu esaten:

– Bai. Lengoan erosi nuan bei bat, ogei ta bi litro zeuzkala esanda. Ekarri nuan etxera. Asi nintzan pentsua ematen. Esandakoak bazeuzkan da pentsatu nuan ogei ta lauen izenean saltzea. Urrengo ostegunean Ernanira eraman da amar milla pezeta geia-goan saldu nuan.

Bere burua nondik goratuko, sekulako azioak eta irabaziak, eta berekin makilla ta bruxa bakarrik.

Besteak or ibiliko dira ixil asko, baztarretan zer ikusiko. Galdetzen badiozu:

– Ezer egin al dezu?

– Aspalditik ibilia pranko alperrik. Oiñetakoentzat diña atera badegu, badago gu baiño abillagorik –esanda utziko zaitu.

Orrela itzegiten dutenak naiago ditut nik.

Biok tertulian geundela, esan zidan bei bat zeukala suiza, aundia eta ederra, merke erosita.

– Baiñan paillo aundia dauka. Ez dago esan gabe iñori ematerik.

– Zer dauka?

– Pixa odoletan egiten du. Saldu duanak lanerako bear du, eta arek ez du balio lanerako. Etxean esnea kenduz gizenduta, irabazia badauka.

Ikusten nuan nik artuko ote nuan ari zala. Banekian ura etzala ni engaiñatzeagatik ari. Esan nion joango nintzala ikustera. Esan zidan etzegoala saltzerik zer zeukan esan gabe. Gero nola agertuko zan zeukan gaitza, esan bearra esan bear zala orrelakoa zanean. Pasadizoak kontatzen saio ederra eginda partitu giñan.

Arek alde egin zidanean, pentsatu nuan: “Anaiaren seme zarrenak arategia dauka Ordizin bertan. Geienetan bisita egiten diet senar-emazteei”.

Sartu nintzanean, emazteak:

– Zer degu, osaba? Perira etorrita?

– Bai. Buelta bat egin bear dedala pentsatu det.

– Zer moduz zabiltza?

– Zer esango degu? Orrenbestean kontentu.

– Gusto badezu, alkarrekin bazkalduko degu.

– Ez da arrazoi txarra –esan nion.

– Ba, ementxe daukat, lanak egiñez bazkaria jarrita.

Senarrak etzeukan iñor orduan. Esan zion:

– Baxoerdi bana artzera goaz.

Arategiaren aurrean dago pasteleria. Antxe artu oi degu askotan. Ala, sartu giñan. An gure gaztetako bi emakume dira. Aiekin tertuli pixka bat egiñez, trago bana eginda atera giñan.

Ordurako emaztea zai zegoan, etxerako bazkaria boltsan artuta. Gertu daukate berak bizi diran etxea: bost minutu. Aszensorean igo ta bizileku ederra daukate. Seme-alabak dituzte. Eskolako edadea biak. Semea badakit Zaragozan ibiltzen dala ikasten. Alaba, berriz, bertan. Irurak bakarrik askotan jaten.

Gaztetako kontuak berritzen ditugu bion artean. Nik etxetik alde egiterako, ura asi zan nere lanak egiten. Gero alde egin zuten danak Ordizira. Baiñan Urki baillara gogoan. Ondoko baserri bat saldu zan puskaka. Aren erdiak artu zituan. Biok biltzen geroan, ezin aspertu ango kontuekin.

Orrela pasatu nuan egun erdia. Arratsaldean, bukatuak peririk aundienak, buelta bat egin nuan; baiñan alde bereala andik jubilatuen *Hogar*-era. An billatu nituan betiko lagunak.

Bat, nere koiñata. Baita ere beste iru edo lau emakume, alargunak danak, ni bezelaxe. Ordu pare batean musean antxe gozatzen degu iru bat gizon lau bat emakumerekin, duro bat zeñi kenduko.

Nik seiretan trena artu eta etxera. Goizago askotan. Alaba jeisten zait kotxearekin estaziora. Agertzen bada, gustora artzen det, aldapa igotzeko nekatu gabe, ankak moteltzen asita daude ta. Biotza ere bai lagun bearrean.

Illuntzean bildu giñanean esan nion suiari zer esan zidan bere anaiak. Orduan galdetu zidan ea ikusi nai al nuan.

- Buelta bat egingo nitek.
- Larunbatean, nai badezu, eramango zaitut.
- Ondo zegok -esan nion.

Ni larunbata etorri zai. Iritxi zanean, an etorri zan bere kotxearekin. Ura ere pozik senideetara joateko. Laster giñan Berastegin. Orduan soltero artean, anaiarekin bizitzen zan.

Sartu giñanean, lenengo gosaltzeko esan zigun etxeko anai zarrenak. Guk ere ondo artu genion. Barrena berotuta, jarri giñan traturako moduan.

Alboan etxe xar bat daukate berena. An edukitzen dituzte ala ekarritako ganaduak, badaezpada ere aparte. Gure Jose tratante ori zai zegoan guri erakusteko bere beia.

Ikusi genduan. Berak esan zidan bezela, ganadu ederra. Gustatu zitzaigun. Gorputzez altu eta zabala. Aragitan etzegoan gaizki. Baiñan ondo gizen-duta, beste eun bat kilo ezartzeko moduan esan zigun. Kontuak aterata zegoan,

Guri, nola giñan pamelikoak, etzigun engaiñatu nai. Beraren gogoa zan ezer galdu gabe besteri irabazia ematea. Ortarako lana egin bear zan. Nola bera etzan etxean egoten, zerbait irabazia kenduta bialdu, garbi esanda zer zeukan.

Lanean ibili gabe oso ondo zegoan, pixa garbia egiñez. Lanean artu ta nekatzen bazenduan, pixka bat beartuta, erdi gorria egiten zuan.

Etxean ikusita neukan olakoa. Baiñan gutxi gal-tzen badu, ondo gizentzen da eta arakiñak pozik artzen dute. Gizena badago, aragi txuriagoa izaten duala esan oi dute.

Ain zan dotorea, pasako balitzaio, pentsatzen nuan zenbat irabazi leiken; eta ez bazan sendatzen, gizendu ta galerarik etzeukan. Oiek danak pentsatu ta galdetu nion:

– Zenbat diru bear dezu, Jose?

Goxo-goxoa da izketan. Olaxe esan zidan:

– Nik irurogei ta amabost milla pezetan emateko moduan daukat, eta zuretzat ere irabazia badauka.

Ari etzegoan ezer erakusterik lan ortan. Nola giñan etxekoak, ez nintzan gutxiago eskeintzera atrebitu.

– Orduan, nai dezunean eramán.

Nola ibiltzen ziran furgoneta batekin, urrengo larunbatean an agertu zan bere beiarekin. Sartu genduan ikuillura. Zer dotoretua eman zion . Lotu ta gero ere, atzetik begira egon zan. Ala zion:

– Au sano egon bazan, zenbat diru balioko zuan?

Ain zan dotorea, buruz, adarrez... Amalau bat litro esne ere bai.

Gustora asi nintzan jana ematen. Bere gastua esnearekin ondo ordaintzen zuan. Atzetik begira egoteko ere etzuan gutxi balio. Orrela eduki nuan illabete batean.

Oso garbia egiten zuan pixa. Ni egunero ari begira. Otsa entzuten nuanean, korrika ikustera nolakoa egiten ari zan. Odolaren arrastorik ez. Ura nere poza. Sendatu ote zan? Ezin etsi progatu gabe.

Egun batean pentsatu nuan uztarrían lotu bear nuala. Beste bei bat baneukan aren antzekoa, nere osaba bati erosia, suiza ura ere. Bei-pare ederra artuta, joan naiz sorora. Goldea lenago eramán nuan.

Gauean Pasaiko puertoan goarda egoten zana zegoan leiotik begira. Deitu nion. Oso lagunak giñan da etorri zan, esanez:

– Umetako lanean asi bear al degu?

– Bai. Jarri aurretik.

Abitu giñan. Ura ganadu-parea! Ordu pare batean ura gorriketa egin genduan!

– Gaurko naikoa degu –esan nion.

Goldea artu airean da atarira. Askatu genituan eta beren tokian lotuta, azpia dana garbitu egin nion, ikusteko pixa garbia egiten zuan edo ez. Nik bildurra nuan bezela atera zan.

Bazkalondoan, siestara baiño len joan nintzan

ikustera egin ote zuan. Atzeko aldean putzu gorria zeukan. Etsi nuan alperrik zala esperantza aundia edukitzea. Esnea kenduz gizendu eta mataderara bota, galerarik ez neukan. Bizitako saldu banu, irabazi geixeago zegoan.

Baiñan ori etzan saldu zuanaren kulpa. Bane-
kian ekarri aurretik. Zer zeukan esanda eman zi-
dan. Begiak ikusteko izan, lanean nenbillela.

Aurretik aitatua badet auzoko bat nola ibiltzen
zan. Beirik edo txekorrik iñun bazan sobran ala pal-
tan, laster ekarriko zizun erostuna bezela saltzaillea.

Urrengo igandean, seguru nerekin itzegiteaga-
tik, joan izango zan meza nagusira. Mezetara joaten
zan, baiñan amarretakora gutxitan. Elizatik atera
giñanean, laster inguratu zan galdezka:

– Kaixo, Bixente!

– Ola, Saturdino!

– Zer moduz?

– Ondo esan bearko. Zu ere bai?

– Bai; orrenbestean kontentu –erantzun zidan.

Berea zeukan gogoan:

– Lengoan ikusi zaitut ganadu pare dotoreare-
kin lanean.

– Bai. Txarragoarekin ibilia naiz prankotan.

– Biak etxekoak al zenituan?

– Orain beintzat nereak dira.

– A zer beiak! Begira egon nintzan. Nere burua-
ri esan ere bai: “Gaur Altzan olako beste pare bat ba
ote dago?”.

Inbusteri pixka bat egitea gustatzen zaio.

– Ekarri berria ba al dezu? –galdetu zidan.

– Bai; orain illabete,

– Ondo pagatu bearko zenduan?

– Bai; eskatutako dana.

Asko esatea da, baiñan enintzan galdera ori egi-tea batere arritu. Komeni dana esan da bestea gorde.

– Merke ekarria daukat, ondo egon bazan. Baiñan badauka berekin oker txiki bat.

Ori esan nionean, larri zan oker ori jakin artean. Eta:

– Garbi esan bear dana, nere suiaren anaiari erosi diot.

– Zeiñi: Joseri? –esan zidan.

Arek ezagutzen zuan.

– Bai. Ari artu nion. Etxean jana eman da ama-lau bat litro esne emateko ez dauka ezer. Lanean artzen badezu, lengoan bezela, pixa gorria egiten asten da. Garbi esanda eman zidan. Sendatzen ez bada ere, ez dago galerarik orrekin. Ematen duan esnearekin ordaintzen du bere gastua.

Orduan esan zidan:

– Saldu nai al dezu?

– Bai. Dirurik galdu gabe bearko du izan.

– Biar etorriko naiz –esanda alde egin zidan.

Ni lasai nengoan. Banekian ez neukala galera-rik. Berak ere ori ikusi zuan.

Etorri zan urrengo goizean. Begiratu zion ondo. Zenbat eta geiago begiratu, orduan da inbiri geiago ematen zion. Noizbait galdetu zidan:

– Zenbat diru bear dezu?

– Amazazpi milla duro.

– Badakit galerarik ez daukazuna. Merkexego ez daukazu ematerik?

– Ez. Justua eskatu dizut.

– Bueno, biar etorriko gera erostuna eta biok. Zuk ez esan zer prezio duan.

- Etorri. Nik emango dizut beia.

Ala, joan zan etxera, berriz urrengo egunean etortzeko.

Emazteak galdetu zidan:

- Saldu egin bear al dezu?

- Bai. Neretzako ez du balio. Lanean ez dago ibiltzerik eta dijoala.

Urrengo goizean etorri ziran, beren soka artuta. Artzailleak ere begiratu zion ondo. Zenbat esne zeukan galdetu zidan.

- Amalautik gora -esan nion.

- Umetu berria ote da?

- Ori ez dakit. Ez nion galdetu. Baiñan ez det uste, onek umetu berrian doble esne bear du eta.

Ni bildurrez nengoan pixa egiten asiko ote zan. Esan gabe igual egongo zan. Bistatik beintzat alde egin zuten, da pakea neretzat. Esan nion kejurekin neregana ez etortzeko; nik ez nuala ezer jakin nai. Ez dakit nola saldu zion. Ondo atera bazan, beretzako obe.

Andik denbora pixka batera galdetu nion beia zer moduz. Keja eman zidan, baiñan konpondu giñan.

- Ez du galerarik. Esnea ondo ematen dio eta gizentzen ari zaio.

- Irabazia seguru dago arekin. Ura da beia balio aundikoa. Bost pameliri irabazia eman die. Orrenbeste tratanteri laguntzen dien beia ez da txarra. Azkenekoak ere suertea izan dezala.



Ordiziko peria

Londresko beiak

BESTE au ere neri gertatua da. Gure bizileku au sona aundikoa da. Alde batean Paris daukagu; bestetik Londres. Bi baserri oien erdian bizi gera.

Orain berrogei ta amar urte Londresen zeuden bi aizpa ta anai bat, danak edadekoak. Ezer bear zutenean, auzora guregana eske.

Egun batean etorri zan aizpa zarrena: beia umea egiten asi zala eta ea joango al giñan. Ori ezin ukatu. Bildu giñan lau lagun. Jarri giñan zai noiz azalduko besoa, laguntzen asteko.

Okerra pasa ta gero bururatzen dira gauzak. An ere ala gertatu ziran. Ganaduak beren atzean leku gutxi zeukaten. Lenago ere askotan gertatu gera ikuillu artan. Leku justuak, naiz ondo atera.

Besoak azaldu ziranean, asi giñan tiraka. Txekor aundia zetorren. Danon artean atera genduan erdiraiño. Orduan da momenturik estuena. Nola ez duan arnasik artzen, denbora gutxian galtzen da. Atzean lekurik ez eta beiaren bizkar aldera tiratu genion. Atera ere bai txekorra, ito ta gero. Beia ondo ustez genduan. Jaio zana atera genduan kanpora, eta beiari begira danok.

Altxatu arazi genduan. Zutik jarri zanean, odola botatzen asi zan. Bildurtu giñan danok etzala gauza onik. Pixka bat gelditu zitzaion, eta nik esan nion gizonari:

– Martxial –ala zuan bere izena–, txekor au ere

larrutu eta karnizero bati eraman ezkeru, zerbait emango luteke.

Eta Martxialek:

– Zeiñek larrutuko du?

– Ni saiatuko naiz.

Ura nai zuan arek. Joan nintzan etxera labana billa. Bueltan nentorrela, oska joateko azkar: beia akaatzera zijoala. Bildu giñan berriz danok. Odol-putzu bat egiña atzean, eta bukaeran zegoan. Esan nien:

– Onak ez du odol asko eukiko barrenean. Baiñan ohea da kajara labana sartzea.

Danak esan zidaten:

– Obe.

Zulatu nuan ondo ustez eta zerbait bota zuan; asko ez. Orduan olako ganaduak Zangitotarrak artzen zituzten, militarrei emateko izenean. Au bezelakoak ez dituzte koartelean jango, bi urteko bei gaztea zan da.

Ari deitu genion. Laster etorri zan beste lagun batekin. Ikusi zuten. Eskeiñi zioten, aragi ona zeukala esanez, berak nai zutena; eta ixilik eman egin bear. Jaso zuten kamioi batera. Ez naiz gogoratzen zenbat diru eman zion.

Txekorra zuloan sartzeko esan zigun. Nik larrua kendu nion, ondo kostata. Zailla izaten da txekorjaio berria larrutzen. Biguna eta bustia, eta labanak alakoak. Beintzat, garbitu nuan.

Zaku plastiko batean sartu txekorra, astoaren gaiñean jarri ta Errerara eraman nuan, nere lagun bati, paella egiteko benik arrozari nasteko salduko zuala esanda. Artu zidan. Bosteun pezeta eman zidan.

Etxera etorri nintzanean, eman nizkion Martxiali. Pozik artu zituan gizarajoak.

Ordurako arreba gazteena illa zuten. Jaunak berekin dezala. Beste biak xartuak.

Bi beirekin gelditu ziran. Belarra segatzeko ia etzan gauza. Bat antzu zeukaten, saltzeko moduan. Bestea, gaixoa, oso piña zan. Jaten emateko etziran gauza. Baratzako aza-osto batzuk emanda, akabo urrengo egunera arte. Egunean bi aldiz zeukan esnea kendu. Etzuan asko emango.

Esan genien obe zutela bi beiak saltzea. Auzoko Migelek ere ori esan ziela. Bazekiala olakoak erosten zituana zein zan. Nai bazuten, esango ziola. Aiek besteren esanera jarri bear.

Neri deitu zidaten joateko: gizona etortzeko zutela eta etzekitela zenbat eskatu. Nik esan nien, al bazuten, geiago artzen saiatzeko; baiñan zortzi milla pezetaz bera ez emateko. Nik artuko niela prezio ortan. Etxera etorri nintzan.

Auzoko Migel ori an sortua zan. Ura zuten beren santua. Nik alde egin nuanean, arengana bialdu zuan Martxialek bere arreba, nik zer esan nien esatera; eta esan ziela nere esana egiteko.

Etortzeko zan gizon ori neregana etorri zan, Londres nun zegoan galdezka. Nere ezaguna zan da biok joan giñan bei ori ikustera. Ikusi zuan. Bestea ere bai. Arekin etzuan ezer jakin nai. Zutik justu-justu zegoan.

Ea zenbat diru bear zuan. Martxialek neri begiratzen zidan. Bildur nintzan zortzi milla pezetaz bera ez emateko nik esan niola esango ote zion. Ez; ixilik gorde zuan. Amar milla pezeta eskatu zion. Besteak, asko eskatu ziola esanez, zazpi agindu zion. Orduan besteak:

- Ez. Zazpian ez dizut emango.

Bestea beiari begiratzera joan zanean, beatzarekin ezetz esaten nion. Berriz ikusita, zortzi agindu

zion. Orduan pentsatu nuan: “Ea zortzira jeisten zaion!”. Neroni aurreratu nintzan, esanez:

– Zortzi eta bederatzi zaudete. Ori egin erdibana eta bukatu tratua.

Martxialek laster esan zion:

– Bixentek esan duan ezkerro, nai badezu egiña dago.

Bestea ere jarri egin zan. Orrela bukatu zan bei baten pesta. Urrengo egunean etorriko zala kamioiarekin esanda alde egin zuan.

Nere etxeraiño biok etorri giñan. Galdetu nion beti tratutik bizi al zan. Baietz esan zidan, iñoiz tokatzen zirala konpra onak. Beste batzuetan justu xamarrek ere bai.

– Gaurkoarekin irabaziko dezu.

– Etzazula uste ganga aundirik dagoanik. Jan ere ortik egin bear det. Nunai dago gastua. Nik dirurik ez det sobratzen. Ala ere naiago det ola ibili, lanean asi baiño, bizitzeko aiña ateratzen dedan arte –esanda, alde egin zidan.

Urrengo egunean etorri zan kamioi batekin. Goiko belardira igo ta koska batetik errez kargatu zuten. Kartera atera ta ordaindu zion bezperan agindua. Gustora gelditu zan Martxial gizarajoa. Pentsatuko zuan naiko dirua bazuala bere bizi guzirako.

Besteak alde egin zutenean, galdetu nion:

– Beste onekin zer egin bear dezu?

Nola etzeukan janik emateko, zutik justu zegoan, oso galdua. Pentsatzen nuan: “Au emen uzten badet, biar edo etzi deituko dit akaatu dala ta ea zuloan sartuko dedan”. Ikusten zan gosea besterik etzeukala, sano zegoala. Errukia ematen zidaten bai nagusiak ala ganaduak. Pentsatu nuan: “Ea nere etxera eraman da bizirik ateratzen dedan”.

Laster esan zidan:

- Eraman, nai dezunean. Orrek ez dauka gosea besterik. Gu ez gera gauza orri jana emateko. Ementxe akaatuko da gaixoa, ori izan dan beiarekin. Erosi ta ekarri genduanean Buztintxuloko Migelek eta biok Ernaitik, emezortzi-ogei litro ematen zituan. Bi ume ere egin zituan. Azkenean, gu zartu gera eta ori goseak. Ea bizirik ateratzen dezun.

Illuntzean joan nintzan, suia eta bere koiñadoa artuta, erori etzedin bi aldeetatik eusten ziotela. Etxera zutik iritxi zanean, gustora giñan. Ikuilluko atea itxita zegoan. Geok sartzen ibiltzen genduan atetik sartu nuan. Deitu nion emazteari:

- Ara emen bei berria.

Atera zan sukaldetik, eta ikusi zuanean:

- Baiñan au zertarako dezu? Laster akaatuko da. Zuloan sartzen lana. Sartu zazu ikuilluan, begien bistatik kenduta. Ez det ikusi ere egin nai.

Lenago zer pentsa banentorren, ederki gelditu nintzan. Sartu nuan ikuillura. Bota nion jatena. Aren poza! Laster asi zan. Pentsua ere bai, baiñan bildur nintzan emateko. Nola etzeukan indarririk ausnartzeko, pixka bat ematen nion.

Goizean begiratzen asi nintzan esnerik bazeukan. Bi egunetik bein jezten zutela eta litro bat eskas kentzen ziotela esan zidan. Nik litro erdi bat ezin. Arekin etzegoan pentsu asko ematerik.

Egunetik egunera jaten geiago tragatzen zuan. Gustora nengoan piztuko zala pentsatuz. Egun batean eman diot nunbait pentsu geiegi. Jarri zait unkaka dijestioa egin ezinda. Bildurtu nintzan. Esan nuan:

- Akabo nere beia!

Emaztea erritan zertarako ekartzen nituan olako gauzak etxera. Len penaz banengoan, a zer laguntza atzetik!

Deitu nion albaiteroari: Inazio Markuleta. Berealaxe etorri zan. Len esan bezela, gizon galanta, eun da berrogei ta amar kilotik gora ibiltzen zana. Ona bai; zuan guzia ona zuan arek. Begiratu zion ondo, petxuan belarria jarrita. Esan zidan:

– Au sano dago. Onek ez dauka indarrik. Emaizkiozu pastilla batzuk.

Neosaben zuten izena. Pastilla aundiak ziran. Egunean bi emateko esan zidan txekorrari. Uretan bustita ematen nizkion, pentsuari nastuta, zortzi egunean.

Nik esan nion albaiteroari:

– Gosea pranko ikusi du onek.

Erantzun zidan:

– Ez; asko ez du ikusi. Bat bakarra, bukatu gabea.

Orrela asi nintzan pastilla oiekin segituan. Bitaminak zirala indartzeko. Siñalatu zan bereala jaten, da esnea ematen ere bai. Igo zan zortzi litrora. Emaztea gustora jarri zan, ori ikusi zuanean.

Udaberria etorri zan. Egun batean atera nuan larrera eguzkitan. Aren poza! Ille zarrak samurtu zitzaizkion. Joan nintzaion burnizko eskubilla bat artuta. Gustora artzen zuan. Larreari utzi egiten zion, artzen zuan atsegiñarekin.

Gero asi nintzan egunean bein esnea kentzen, ondo gizendu zedin. Azkenean suertea izan nuan: ondo gizendu ta saltzeko suertea etorri zan. Bere gastuak ordaindu zituan. Besteri mesede ginda, nere buruari ere bai.

Kontuz ibili bearra

BESTE gertaera au ere aitatu nai det. Bei bat palta etxean. Ikasi nuan nun zegoan saltzeko: Errenteriko baserri batean. Gure auzoko tratante bat zegoan tartean sartua. Galdetu nion ea egia al zan baserri ortan ganaduak saltzeko zeudela, eta:

– Bai, gizona. Merke emango nizuke; baiñan diru asko daude zorretan neri, eta an ez dago dirurik. Nik ere nerea oiekin atera nai det.

Banekian nola zebillen: pameli ura lurpean sartua zeukan, ikusten zanez. Nagusia gizarajo xamarran zan, eta besteak alakoak nai. Bei bat palta zuteanean, ari esan ekartzeko. Arek besterik etzuan nai. Ekarriko zien bei ona, baiñan tranpa asmatua zeukan. Berari kostatakoa ta beste milla duro geiago esan.

Zepoan sartzen zituan. Etzeukatela segituan ordaindu bearrik. Orrekin engaiñatzen zituan. Etzuten pentsatzen gero ordaindu bearko zutenik.

Ni etorri berria nintzan. Baiñan auzokoak bazekiten zer zebillen. Ba omen zeuzkan iru-lau bat pameli, oiek bezela engaiñatuta zeuzkanak. Nere osaba bat baserri orren gertuan bizi zan. Berak esanda asi nintzan. Abisoa eman zidan osabak:

- Kontuz ibili adi orrekin.
- Bai; badakit ori zer dan.

Nere bizi-lagunarekin joan giñan meta belarra eta lera bat ekartzera. Tratante orrekin itzegin da an

nagusiak etzuan ezer pintatzen. Beiagatik galdetu genien zer prezio zeukaten. Bi emakume zeuden. Etxeko nagusia uste det kanpoan lanean ibiliko zala, jango bazuten. Bei bat zortzi milla pezeta zeukala balioa jarrita. Berak etzuten ezer agintzen. Beste bei pinto bat, geixeago balio zuana, esan nien arek zenbat zuan prezioa.

–Amalau milla.

Asko iruditu zitzaidan.

– Asko eskatzen dezute onengatik.

Uste det ama-erraiñak izango zirala bi emakume aiek. Gazteenak erantzun zidan:

– Amalau pagatutakoa da.

Ori esan zidanean, arrituta:

– Bueno, berarekin etorri bearke degu –esanda, alde egin genduan, berriz ea beiarekin tratua egiten genduan.

Deitu nion teleponotik: ea joango al giñan beiagatik itzegitera. Esan zidan bere etxera joateko; an itzegingo genduala. Segituan joan nintzan. Galdetu zidan:

– Esan zizuten zenbat balio zuten?

– Bai. Bei zuriagatik zortzi esan digu.

– Bai. Aiek merkeago igual. Ez baitago bururik an, zeñekin zorrak pagatuko dituzten. Zenbat balio du zuretzat?

– Neretzat, zazpi milla.

– Geixeago pagatuko dezu.

– Ez. Geiago nai badezu, nai dezunari saldu.

Ikusi zuanean ez niola geiago aginduko, onela esan zidan:

– Nik diru asko daukat artzeko, ta orrekin nabil larri. Nai dezunean ekarri zazu.

Neri pena ematen zidan pameli arek: beren ganaduak ikuillutik atera ta bestek dirua artu; eta pameli triste ura ez bei eta ez diru. Tratantea kontra egiten bezela laguntzen saiatu bazan, ondo bizi bear zuan pamelia. Etxea ustuta, utsik zegoan baserri zar batera bialdu zituan. Orra azkenean zertara beartu zituan.

Urrengo astean deitu zigun bi bizi-lagunei, larunbatean kontuak egiñez apaltzera joateko Martillun jatetxera. An bildu giñan irurok. Etzan nere gustoko aparia. Gauza bat gogoan eta bestea esan bear. Asko lagundu balie bezela itzegiten zuan. Nik ez nuan asko gozatu apari artan. Ez dakit beste bei ura zeinek erosi zuan.

Beste tratu geiago egin nituan berarekin. Belardi-sail aundiak zeuzkan, ebakitzeko zeudenak. Bat eskatu nion. Tratua egin ere bai. Berak sei zaku autsak ekartzekotan, nik zabaldu. Eskatu zidan belarrak eta autsak balio zutena. Agindu nion. Etxera ekarri ere bai bi korte. Autsa bota geniolako, belar ona atera zan.

Azkeneko kortea pagatzeko neukala esan zidan. Ni urte guziko belarrak artu nituala nengoan. Esan nion:

– Bestea bezela mendean artu nai ni ere?

Baiñan etzuan ortan lanik urrengo urtean. Ganadu batzuk saldu egin nituala ta ez nuan belarraren bearrik esanda utzi nuan. Orduan merkeago emango zidala esan zidan. Ezetz esanda utzi nuan.

Ezkontza-tratuak

Perira

BASERRIKO kontuak ola izan oi dira. Batean sobra, bestean palta.

Etxe batean aita-semeak, ama laguntzeko zute-la, irurak bakarrik bizi ziran. Seme bakarra izan zuten. Aren esperantzan gurasoak. Ondo bizi ziranak, ikusten danez. Etxeko pasadizoak gauean apal-tzerakoan iruren artean itzegiten omen zituzten. Ori bai dala etxe baterako bearrezkoena. Semea nola zebillen lanik gogorrenak egiñez, onela esan die ba-tean aita ta amari:

– Or bei txar orrekin eziñean nabil lanak egiten. Beste bei on bat ekartzea ez al genduke obe? Zer iru-ditzen zaizute?

Aitak bereala:

– Neroni ere orixe pentsatzen egoten nauk. Idea ona daukak.

Eta amak:

– Ekarri, ba, orduan. Orrenbeste diru egongo al da etxean!

Irurak, alkarrizketa sukaldean eginda, joan dira ikuillura, oera joaterako belar ondu pixkabana gana-duari emanda. Semea, “gau on pasa” esanda, kuar-toan sartu zan. Aita sukaldean sartu zanean, ala omen zion amak:

– A zer suertea daukagun gure Jaungoikoak olako semea eman zigulako!

Eta aitak:

– Bai. Oberik ez dago eskatzerik. Datorren ostegunean biok joan bear degu Ernaniara. Agertzen bada bere gustoko beirik, jarri bear diot, pozez bizi dedin.

Emazteak:

– Bai, gizona. Azaltzen bazaio bere gogokoa, diruari ez begiratu. Gustora bizi dedilla.

Biak ala oeratu ziran lotara. Urrengo goizean, aurrena jeiki ta ikuilluko lanak egiten asita zegoan semea. Alde ederra dago gurasoak jeiki ta oska jeiki arazi edo aurretik lanean asi.

Urrengo peri-eguna noiz etorriko zegoan zai. Iritxi zan osteguna. Goizean argi zebillen lanak egiten, al zan goizena perira joateko.

Gurasoak jeiki ta gosaria prestatu zuten. Lanak bukatu zituanean, sartu zan semea sukaldean, “Jainkoak egun on” esanez.

– Lanak egin al dituk? –galdetu zion aitak.

Eta semeak:

– Bai. Goizeko lanak eginda daude.

– Bueno, gosaldu dezagun eta goazen perira.

Pozez zebillen semea, bere gisara erdi parrez. Laster preparatu zan. Alde egin zuten amari agur eginda. Iritxi ziran perira goiz xamar. Artean ganadu gutxi zegoan. Agertu ziranak kaskar samarrak. Tristetu egin zan, etzuanean bei onik ikusi. Aita lasai zegoan:

– Oraindik etorriko dituk. Bei onak azkena etorzen dituk.

Ola zebiltzala, etorri ziran bi, bat olandesa, bestea suiza; baiñan ez ain onak. Andik denbora gutxira, bost Andoaindik. Bat suiza, besterik ezean trantuan asteko modukoa. Urrutitik ari begira, “Besterik ez bada...” esaten zuten aita-semeak.

Azkeneko, *Ormaiztegiko Beltza* deitzen zioten, izen orrekin ezagutu nuan nik, ura azaldu zan lau

ganadu aurrean zituala buillaka. Bat, oso ederra, gustatu zitzaien. Baiñan etzuten nai segituan ondorra joaterik. Bestela, asko eskatuko ziela. Disimuluan asi nai zuten.

Bueltan sartu ziran. Aita bakarrik aurrena, semea atzean geldituta. Asi zitzaion galdezka.

- Beiren bat palta al dezu?
- Artuko gendukela esaten aritzen gera.
- Beia bear badezu, emen daukazu, ba.
- Zer prezio dauka?
- Milla pezeta.

Orduan etzan millaka itzegiten; ontzakoak. Amasei duroko urrea zan ontzakoa. Milla pezeta zan amabi ontzako eta erdi.

- Asko eskatzen dezu -esanda alde egin zion.

Etzuten ikusten iñor beiei begira. Lasai zeuden erosleak. Beste bat ere polita bazegoan. Ari begira gelditu ziran. Baiñan bakarka joaten ziran. Eguerdia arrimatzen ari zan. Baztarrera joan da itzegin zuten aita-semeak. Aitak esan zion semeari:

- Amaika ontzako eskeintzen badiogu, gero erdira eskatuko digu, eta amabi duro jetxi bearko du.

Ideak egin zituan bere ustez. Gero ikusi bear zertara jartzen dan.

Joan zan aita. Semea urrutitik begira zegoan. Esan zion asko eskatzen zuala eta pixka bat jexteko. Besteak, ea zenbat pagatuko zuan.

- Amaika ontzako -esan zion.
- Ez daukat prezio ortan ematerik.

Nola etzebillen bei orren erostunik, pentsatu zuten, bazkaltzera joatea, ordua zan da. Alde egin zuten, baiñan ez lasai. Semeari asko gustatzen zitzaion. Aitak nai zuan zerbait bajatu arazi eta al zuana bajatzea.

Etzuten lasai bazkaldu, ea beiazen erostunik agertuko ote zan.

Inguratu ziran beiarengana. Artean jabea palta. Biak begiratu zioten ondo. Alde egin zuten beizalea etorri arte. Laster azaldu zan. Aita bialdu zuan semeak, "Ea traturik egiten dezun" esanda.

Esan zion erostunak:

- Bueno, traturik egingo al degu?

Eta besteak:

- Nai dezunean.

- Diferentzia erdibana egingo al degu?

Besteak:

- Amabi ontzakotan. Berago ez daukat ematerik.

- Asko da -esanda alde egin zion, emango ziolakoan. Baiñan etzion kasorik egin. Itzegin zuten aita-semeak:

- Artu zazu -esaten zion semeak.

Berriz joan zan, ez al zuan emango esanez.

- Beia merke dezu. Ogei litro esne badauzka. Uztarrarian, bi eskuetatik berdin. Olako beia ez dezu nunai billatuko.

Ikusi zuanean etzuala bajatu nai, onela esan zion:

- Neretzat gelditzen da.

Jabeak orduan:

- Pixka bat jetzi egingo det. Bidean ibiltzeko oso gaizki dago, goizean jetzi gabe ekartzen degu ta erdiak kenduta obeto dago.

Artu zuanak esan zion:

- Jetzi nai dezuna.

Ekarri zuan, tabernara joanda, balde bat. Asi zan jezten. Aita-semeak begira. Titi-zuloak ederrak

zituan, aparra ugari zuala. Gustora zeuden erostu-
nak. Amar bat litro kendu zion.

Urrengo ostegunean azalduko zirala esanda,
semeak artu zuan sokatik. Aita atzetik. Lau kilome-
tro bide zeuzkaten beren etxera.

Semeari aisa segitzen zion. "Bizkorra da" zion
semeak.

Aitak berriz, erdi parrezka:

– Laster gaituk etxean.

Biak gustora zijoazten, beren gustoko beia topa-
tu zutenean, kontu kontari. Semeak zion:

– Onuzkero ama leiotik begira egongo da.

– Bai; seguru. Arek ikusi gabe ez gaituk etxean
sartuko gaur.

Bazijoazten arrimatzen. Etxe-bistara aillegatu
ziranean, semeak aitari:

– Ara! Leiotik begira dago!

Parrez biak.

– Au ikusten duanean, aren poza! –zioten biak.

Inguratu ziranean, atera zan ama atarira, bere
gisaka parrez. Malkoak erortzen zitzaizkion. Semeak:

– Arratsaldeon, ama. Gustatzen al zaizu?

Eta amak:

– San Antoniok bedeinka dezala –esan zien–. Au
dekazienda billatu dezutena! Sartu zak barrena.
Gaixoa ederki nekatuta etorriko dek.

Eta semeak:

– Ez, ez, ama. Aisa etorri da.

Sartu zuten. Beretzako tokia pronto zeukan,
bere kate ta guzi. Lotu zuten. Jaten goxoa eman ere
bai. Goseak zegoan da aren poza, jana arrapatu zua-
nean! Berari begira pixka batean egonda, esan zien
amak:

– Goazen sukaldera, meriendatu dezagun.

Irurok ala sartu ziran. Beren poza gorde eziñik, periko kontuak kontatuz, meriendatu zuten ederki. Orduan semeak esan zion:

– Nik biar goizerako ganadu-jatenak ekarri bear ditut.

Aitak esan zion:

– Bion artean egingo al dizkiagu?

Eta semeak:

– Ez. Zu egon amarekin sukaldean.

Alkarri begiratu ta irriparrezka gelditu ziran.

Illunabarra etorri zan, beia jezten asteko. Zenbat esne emango ote zuan? Lenago amar litro kendu zion. Asi zan berriz.

– Bai erreza daukala! –zion semeak.

Momentu batean kendu zion amar litro paseak. Ala zion:

– Au atzo gauean ere bildu gabe egongo zan.

Eta aitak:

– Ikusiko diagu biar goizean zenbat ematen duan.

Semeak besteak jetzi arte, jatenak eman zizkien. Azpiak zuzendu ere bai. Ondo moldatzen ziran biak.

Amak aparria jarrita zeukan. Irurak apaldu ta oerako pronto. Semeak buelta bat egin zuan ganaduetara. Orduan, “gau on pasa” esanda lotara joan zan.

Gurasoak sukaldean, kontu goxoak esanez, alkarrekin pixka batean. Nola zekiten goizean semea asiko zala lanak egiten, etziran presaka jeikitzen. Ondo pentsatzen jarrita, zorionean bizi ziran seme orrekin. Gaurko gazte asko ikusi edo alde ederra dago.

Goizean, gurasoak oiean daudela, semea jeiki ta ikuilluan lanean. Besteak jeiki orduko, ganaduari jana eman da danak jetzita zeuzkan. Etorri ziranean, galdetu zion aitak:

- Asko eman al dik?
- Ortxe dago aparte jarrita.

Ala zioten:

- Ori da suertea izan deguna!
- Gaur orrenbeste eman duanean, biar ere emango du orrek -aitak esan zion.

Egun pare batean etziran asi uztarrarian lotzen. Esnetan oso gustora zeuden. Jaten ere bai; emandako dana. Garbi uzten zuan aska. Bi egun pasatu ziranean, esan zion semeak:

- Uztarrarian probatuko al degu?
- Nai badek...

Segituan artu zuten uztarrria. Edeak askatu ta lotu zuten. Lenengo, etxekoa, eskubitik. Oitura izaten da lenengoa eskubitik lotzeko, gure etxeetan beintzat. Gero jarri zuten ezkerretik. Asi ziran semea aurretik jarri ta aita akuilluarekin atzetik.

- Aida! -esan da zulatu zuan pixka bat.

Salto ederra egin zion, baiñan arek etzekian zergatik zulatzen zuten. Esan zion aitak:

- Onek etzekik esku ontatik lanean.

Askatu zituzten biak, lotu zuten berria eskubitik eta bestea ezkerretik. Deitu diote:

- Aida! Etorri!

Danak alperrik arentzat. Aitak orduan erdi parrez ala dio.

- Etzian gezurrik esan. Bietatik berdin esan zian, da egia dek: bietatik batere ez. Askatu ditza-gun. Oni uztarrarian erakusten erreza zegok.

Urrengo goizean, gosaldu zutenean, esan zion aitak:

– Bei oiek lotu egin bear dizkiagu.

Semea gustora jarri zan. Lotu zuten etxekoa aurrena; gero bestea. Atarira atera ta utzi zituzten bertan. Leku zelaia zeukaten. Etzegoan min artzeko bildurrik. Berak joan ziran aurreko sorora. Andik begiratzen zioten.

Ordu erdi bat pasatu zuanean, aspertu zan gure beia geldi egoten. Asi zan pausoa ematen. Baiñan besteak buelta ematen zion. Lengo lekuan utzi zioten beste ordubetea. An zebillen bueltaka, leku berean aspertuta.

Orduan etorri zan aita. Muturrean igurtzi zituan. Deitu zien “aida!” esanez, akuillua artuta. Abiatu zan etxekoa. Bai bestea ere. Aspertuta zegoan geldi egoten.

Eraman zituan eun bat metro bidean. Buelta emateko, etxekoa gelditu ta zulatu zuan berria. Ederki eman zuten buelta. Etorri ziran ikuilluko atera. Semea etorri zan korrika parrez, “Asi da!” esanez. Gustora zan ola ibiltzen ikusi zuanean.

– Biar beste piska bat ibiliko degu, bera utsik artuta. Tiratzen ikasi dezala. Egun gutxi barru jarriko da ondo ibiltzen.

Ala, urrengo egunean beste eskutik lotu zuten. Batetik ikasi ezkeru, erreza da. Indarreko lana ez, baiñan ibiltzen segituan jartzen da.

– Urrengo ostegunean esateko moduan da, len ez, baiñan orain dagoala uztarrian ikasita.

Lanean ederki jarri zan. Gustora biak. Urrengo ostegunean, agindu bezela, ordaindu egin bear. Dirua etxean zeukaten, ikusten danez. Astearte gauean, egunero bezela, ikuilluko lanak egin da bildu dira sukaldean, umorezko tertulia egitera. Ama zai zegoan, aparia prestatuta.

Zer gauza atsegiña izan bear duan senar-emazteak seme batekin, irurak alkarrizketa ori egiteko pozak! Beren maitasuna antxe zeukaten. An etzegoan ixilik gordetako konturik. An bai dagoala zorionezko pakea.

Aitak esan dio semeari:

– Bueno, Jose: bidean dek agindutako eguna. beia ordaintzera joan egin bear ko diagu.

Semeak:

– Bakarrik joan zaitez.

– Ez. Biok joan bear diagu. Ik ere ikasi tratuak egiten eta agindutakoa ordaintzen.

Amak:

– Bai, Jose. Ondo esaten dizu. Gaur aitarekin zabiltza. Gaur edo biar zerorri bakarrik ibili bear ko dezu.

– Baiñan, ama! Etzaidazu olakorik esan! Nik zuekin bizi nai det zartu arte.

– Bai; guk ere ala nai degu, zuk bezelaxe: Jainkoak nai duan arte. Badakizu iñor ez gerala emen betiko.

– Ama, utzi itzazu kontu oiek. Itzegin dezagun biar ko periarekin.

Aitak esaten zion amari parrez:

– Onek ez du iltzerik nai.

Semeak:

– Ezta zuk ere. Eta naikoa degu ortik.

Orduan aitak:

– Ez. Biar biok joango gaituk. Beia ordaindu, kafea pagatzen badigu, ura artu eta peria pixka bat ikusiz buelta batzuk emanda. Amak merienda ematen badigu, etxeko lanak egingo zetiagu.

Amak orduan:

– Nik merienda ederra emango dizutet, an gatatatu bear danarekin.

Urrengo bazkalondoan joan ziran biak plazara. An zebillen gure *Ormaiztegi*ko Beltza. Laster ikusi zituan. Poz bat bazeukan berekin: bazekian beiaeren kejarik etzutela eramango. Ezta eraman ere. Gustora zeuden berarekin. Alaxe esan zien:

– Badakit gustora zatoztela.

– Ez. Keja emateko idean gatoz.

– Ala etorri baziñate, etzenduan arpegi orrekin esango.

– Gezur bat esan zenigun.

– Gezurra? Ez da aundia izango. Uztarrarian bi eskuetatik berdin egia da.

– Bietatik batere ez.

Berealaxe aitzakia asmatu zien:

– Nik erosi berria nuan. Alaxe esan zidan: bietatik ondo zekiala orduan.

Erosi zuanak esan zion:

– Orain bai dagoala ondo ikasita.

– Ari erakusten erreza zegoan. Arek danetarako balio du. Merke artuta neukan da zuentzat izan da suertea. Esne asko du. Lanerako indar asko eta lasaia. Diruz ez da ordaintzen olako beia.

Kartera ateratzen asi zan erostuna, eta besteak:

– Goazen Martiñen Kafera –esan zion.

Uraxe nai zuten besteak. Ala, sartu ziran barrerna, bazterreko maian eseri zan tratantea, izkutuan dirua artzeagatik. Oiek bildur izaten dira dirua artzeko garaian. Asko ibiltzen dute ta orduan ere lapurrak izango ziran, gaur bezelaxe. Eman zizkion aginduak. Kontatu zituan.

– Ea suerte on bat izaten dezuten –esan zien besteak.

– Eskerrik asko –erantzun zion.

Eskatu zituan kafeak irurentzat. Kopa bana edanez, kontu kontari pixka batean egon ziran. Ala esaten zion saltzailleak erostunari:

– Suertea badezute, bei orrekin urtetarako badezute serbizio ederra etxean.

– Bai. Gustora gaude berarekin.

– Berriz ere bei-paltan gertatzen bazerate, esan bildurrik gabe. Billatuko dizutet nai dezuten modukoa. Merkexegoa nai izanda ere, errezagoa da billatzen. Ona kostatzen da geiena arkitzen.

Kafea ta kopa bana eman zien, espero zuten bezela; eta ganadu geiago bazeuzkala saltzeko esan da alde egin zien. Besteak gustora gelditu ziran, kopari txurrut egiñez.

Laster alde egin zuten plazara. Buelta batzuk emanda, esan zioten alkarri:

– Emen alperrik gaude. Orain obe degu etxera joatea, ama ere bakarrik dago ta.

– Bai; goazen –esan zion semeak.

Biak patxara ederrean joan ziran. Ama ere bai gustora, aiek etxean ikusi zituanean. Laster artu zuan zartagia eskuan bie merienda jartzeko. Arraultza bana, bina txorixo-mutur eta solomo-xerra bana. Biak alkarri begiratu ta parre egiten zuten. Semeak esaten zion:

– Merienda au tabernan eskatu izan bagendu, ederki ordaindu bearko genduan.

– Bai. Pezeta banarekin ez giñuan egingo. Eskerrak etorri geran.

Ederki meriendatu zuten. Segituan, semea arropak aldatu eta ikuillura joan zan.



Bezente Barandiaran arkume zai

Tratu berria

GURASOAK sukaldean kontutan gelditu ziran, askotan bezela, beren barrengo aitortza egiten alkarri. Aitak Markos zuan izena; amak, Maria. Aitak esaten zion:

- Oraintxe gustora dago, ba, gure mutilla.
- Bai ni ere.

Mariak zeukan barrenean kezka bat, esan gabe ezin gorderik. Nola artuko ote zion? Ezin atrebitu esatera. Baiñan Markos oso umore ederrean zegoan eta esan egin zion:

- Aizu: gauza bat esan bear dizut.

Gizonak, parre egiñez, galdetu zion:

- Zer daukazu esateko?

- Zuek biok oso ondo zabilzate kanpoko ta etxe-ko lanak egiñez, eta ni bakarrik nago. Orain ikusi det ikuilluko beia berak eskatu zigula, eta ekarri dezute. Suertea izan da: bei ederra. Pozez zaudete biok. Ni ere bai; alaxe nago orrekin. Orain, beia bezela erraiña ekarriko balu, poz geiago artuko nuke.

Markos zer pentsa jarri arazi zuan. Pixka batean ixilik egonda, erantzun au eman zion:

- Badakit bakarrik zaudela. Guk ere lagunduko dizugu al deguna lanak egiten. Oraindik berrogei ta amarna urte dauzkagu; mutillak, berriz, ogei ta lau bakarrik. Ez da etxetik ateratzen ez dana. Igandero or dabil lagun artean, neska eta mutil danekin. Dantzan ere, nik ez det ikusi, baiñan badakit egiten

duana. Gaiñera, oso ondo dantzatzen dala jakinda nago.

Mariak orduan:

– Ala entzun al dezu? Nik baiño geiago dakizu orduan.

Berriz Markosek:

– Bai, Ori ez da atzera begira egoten dana. Gaiñera, ez da gure semea dalako, baiñan ondo ikusia dago lagunartean. Igual dauka bearbada begia botata guri esan gabe; eta nik naiago nuke berak billatuko balu.

Mariak orduan:

– Oso ondo esaten didazu. Poztu nazu. Ea, ba, len bezelako suertea izaten degun.

Urrengo igandean egiñalak egin zizkion galtzak ondo plantxatu ta zapatak brillua botatzen zutela. Atzetik begiratzen zion, esanez:

– Iñor bearrean billatuko ote du?

Eskandalo aundirik elioke jarriko etxera ekartzan zuanari.

Ala zebiltzan irurak, alkarri nundik on egingo. Egun batean, gosalduta zuten. Aita-semeak altxatu ziranean, aitak esan zion semeari:

– Orain ibili ditugun ontzi oiek garbitu ta jaso izkiok amari.

Etzion esan amari laguntzearen, baizik ama bakarrik zegoala kontura zedin. Disimulo ederrean enbido jo zion. Igual kontuan eroriko zan beintzat.

Orrela bizi ziran. Oso seme ona zeukaten. Igual asiko zan zapatak garbitzen edo sukaldea. Ikusten zuan lan guzia beretzako jotzen zuan. Orrela zijoazten egunak eta asteak.

Beti bezela, igande-arratsaldean atera zan “arratsera arte” esanda. Pasa zuten illuntzera arte.

Asko dantzan zebiltzan. Etorri zitzaion Joseri lagun bat, esanez:

– Jose, goazemak dantzara.

Preparatu zan eta:

– Ik egin zak Joseparekin. Nik Mariarekin nait diat.

Besteak ere Josepa zeukan bere gogokoa. Mesedez eskatu zieten. Bai esanda, asi ziran. Segituan soiñua ixildu. Danak parrez gelditu ziran, kontuak esaten.

Berriz asi zan. Ekin zioten berriz. Momenturik gozoenak. Alkarri begira dantzatu bear; eta, al bada, biak berdin. Onak badira, berdintsu egiten dute. Soiñua ixildu zanean, Josepak esan zion:

– Ni etxera noa. Bide asko daukat.

Orduan Josek esan zion Josepari:

– Nik laguntzea nait al dezu?

Eta besteak:

– Zuk nait badezu, bakarrik baiño naitago nuke.

Orrela abiatu ziran bidean lasai. Bide ona zeukaten, ormigoiarekin egiña. Kontuak esanez iritxi ziran. Gelditu ziran etxetik gertu.

Ama luze iritzita zegoan, besteetan goizago etortzen zan da. Leio ertzetik disimuloan begira, atari aldean ote zegoan. Konturatu zan norbaitekin zegoala. Etzegoan lasa, zein ote zuan jakin arte.

Jose, berriz, zerbait esan naiean joan zan. Ondo kostata esan zion ea arekin bizi nait al zuan. Eta Josepak parrez esan zion:

– Lenengo etxean esan bear det. Ez det uste ezetz esango dutenik. Nere partetik beintzat, bai.

Ori esan zionean, leptetik eldu ta laztan bat emanda alde egin zion Josek.

Bi familien poza

JOSEPA an sartu zan sukaldean, eta onela esan zion amari, bakarrik zegoan da:

– Gabon.

– Bai zuri ere. Berandu zatoz –ezer ez baleki bezela.

Josepak parrez jarri ta esan zion:

– Mutillarekin etorri naiz. Ara zeiñekin: Goikoetzeko Joserekin.

– Antxe bazegon, ba, txulo polita, gurasoak ain onak dituan seme bakarra: Jose. Ezer esan al din ezkontzeko konturik?

– Bai; berarekin bizi nai al dedan.

– Zer esan dion?

– Zuei esan bear dizutela lenengo. Ez dedala uste galeraziko nazutenik. Nere partetik baietz.

– Galerazi Joserekin ezkontzea, orixe besterik ez giñunan nai ta? Makiña bat aldiz begiratu zionat nik mutil orri.

– Bai nik ere; begiratzen nion. Baiñan etzidan ezer esaten; da, gaiñera, ez gera zarrak: arek ogei ta lau urte ditu, eta nik badakizu ogei ta bi ditudala.

– Bai, neska, bai. Sasoi ederrean zaudete biok ere.

Jose, berandu benik, iritxi zan. Amak, asarrerik gabe:

– Gaur berandu zabilta, Jose.

- Bai -parrez esan zion-. Neska laguntzen izan naiz.

- Ara, berriz! Zeiñi lagundu diozu? -galdetu zion amak.

- Etxeberriko Josepari.

- Jesus, Jaungoikoa! Josepari?

- Uraxe neukan neretzako modukoa jota.

- Ezer esan al diozu?

- Bai: nerekin bizi nai al duan.

- Eta zer?

- Baietz esan dit. Gero itzegingo degu -esanda, ikuillura joan zan.

Aita ere bai orduan, sukaldean kontu goxoak sentitu baizituan, zer berri ote zan. Maria begiak sekatzan ikusi zuan. Markos, arrituta.

- Zer? Berri txarren bat?

- Ez ikaratu. Pozarekin nago negarrez. Biotza lertu zait.

Pixka bat lasatu zanean, esan zion:

- Errain-gaia badegu.

- Zein?

- Etxeberriko Josepa.

Markosek:

- Ez dio txarrenari begiratu! Ez orixe!

- Nere bizi guzirako Josepa dedala erraiña pentsatu utsarekin, biotza lertzen zait.

Senarrak:

- Makiña bat aldiz begiratu diot neska orrixe. Ain da umilla eta ondo itzegiña. Asko gustatu zait beti. Orain etxerako degula esan al du?

- Bai. Ea berarekin bizi nai al duan esan omen dio, eta baietz erantzun diola esan du.

- Zartzaro ederra datorkizu, Maria.

- Bai zuri ere.

- Bai. Arengandik arrazoi txarrik ez det espero.

- Bera ere gure ondoan uste det ondo biziko dala.

- Bai. Alegiña laguntzeko gaude.

- Zer esango ote dute Pelipek eta Iñazik?

- Poza artuko zutela pentsatzen det -zion Markosek-. Beti alkarrekin izan gera senideak beze-la. Orain bai bearko degula, senide gera ta.

Sartu zan semea ikuilluko lanak eginda. Asi zitzaion aita esanez:

- Zer berri diagu? Tratu berriren bat egin al dek?

- Bai. Gaurko au erreza zan -parrez esan zion.

- Erreza? Batzuk larri ibiltzen dituk tratu ori egiten.

Orduan semeak algaraz erantzun zion:

- Nik musu bat eman diot, eta nai detenean neretzako dala esan dit.

- Orduan beia baiño merkeagoa dek.

- Bai. Debalde ere etorri naiean zegoala uste det.

Zer apari pozgarria izan zuten! Besteak ere ala izango zuten: Pelipe ta Iñazi, iru alaba ta bi seme. Ala omen zion Iñazik:

- Lenengo alaba beintzat etxe onean sartuko da, ta orain izango degu paseatuz nora joana.

Senarrak:

- Len ere lagunak genituan, da orain berriz geia-go.

Orrela apaldu zuten irurak Joseren etxean. Semeak bere kontuak esan zizkien, da oera joan zan.

Amak esaten zion aitari:

– Ez al zera konturatzen gure Jaungoikoak suerte ikaragarria ematen digula? Seme bat bakarra izan genduan. Penaz gelditu giñan. Beste bat edo bi nai ta ez genduan izan. Orain daukagun semea, urrea balio duana; eta datorkigun erraiña? Ni pozez txoratzen nago.

Gizonak:

– Bai ni ere, zuri datorkizun laguntzagatik.

Tertuli ederra eginda, joan ziran biak oera.

Urrengo goizean jeiki ziranean, ikuilluan kantari ari zan Jose beiak jezten.

– Orrek dauka umorea! –zion aitak.

Laster etorri zitzaien egun onak eman ez.

– Ondo lo egin dezu? –galdetu zion amak.

– Bai; ederki –esan zion–. Eta zuek?

– Ni Joseparekin akordatzen nintzan –esan zion amak.

Josek erantzun zion:

– Ori neri ere bai.

Biak alkarri begiratu ta parre egin zuten, da partitu ziran.

Baiñan bazeukan Josek bere kezka barrenean. Nola esan zion gurasoei esango ziela, zer erantzun eman ote zioten? Badaezpada ere, etxe azpian zeukaten sorora joan zan, atxurra aitzaki artuta, Josepa zaldi ta karroarekin zetorren ordurako.

Ikusi zuan parera baiño len. Zai zegoan kaso egingo ote zuan. Gora begiratu ta karroan zutik jarrita, besoa altxatuz agur egin zion. Gustora gelditu zan Jose, Josepa beretzako zuala pentsatuz. Etxera joan da esan zion amari:

– Beko bidetik agur egin dit. Gustora dago. Gurasoak ontzat artuko zioten.

- Ori seguru banekian nik -esan zion amak.

Pozik joan zan Jose aitarekin lanera. Eguerdian ganaduarekin asi zan Markos. Bestea bere bidean atxurra artuta. Beko belardian bera ikusi zuan amak sukaldeko leiotik. Deitu zion Markosi:

- Atoz pixka bat. Ikusten al dezu ori? Neskaren bidera dijoa, bueltan datorrenerako. Oiek daukate gozamina!

- Oraintxe gozatu dezatela. Guk ere pasa genduan -esan zion aitak.

Agertu zan Josepa. Bestea jetxi ere bai. Karroaren gaiñera igo zan Jose. Alkarri musu bana eman zioten. Neskak gora begiratu zuan. Bai ikusi ere mutillaren gurasoak sukaldeko leioan. Besoa altxatuz agur egin zien.

Neska-mutillak eserita jarri ziran. Zer alaitasun ote zegoan beren barrenean? Josek galdetu zion:

- Zer esan zizuten gurasoak?

- Ama konturatu zan lagunarekin nengoala.

- Bai? -esan zion bestea-. Eta zer?

- Ezjakin egin zidan lenengo, berandu nentorrela esanez. Nik segituan esan nion mutillarekin etorri nintzala. Larri zegoan. Ez baizekian zein ziñanik. Norbait zegoala bai.

- Zein zenduan? -galdetu zidan.

- Goikoetxeko Jose -esan nion.

Uste nuan mareatu egingo zala artu zuan pozarekin. Gero galdetu zidan ea aitatu zidazun ezkontzeko konturik.

- Bai. Ea berarekin bizi nai al dedan.

- Eta zer esan diozu?

- Lenengo zuei esan bear dizutela. Zuek nai badezute, nere partetik baietz.

Eta amak:

– Guk nai badegu? Besterik ez genduke desea-
tzen.

Aitari deitu zion:

– Atoz pixka bat.

– Zer degu, ba? Konturatu naiz kontu berriren
bat badegula, bai.

– Gizona, Goikoetxeko Jose omen degula gure
sui-gaia. Ea utziko al diogun ezkontzen esaten du.

– Utzi bakarrik, ez. Baita lagundu ere al degun
guzia. Ondo ezagutzen deguna da. Nik oberik ez det
espero. Amaika aldiz egon naiz mutil orrekin pen-
tsatzen. Azkenean, bera degula! –esaten zuan aitak.

Orduan amak esan zidan:

– Urrengo igandean, gure etxe ondora etortzean,
atarian gelditu gabe, sartu barrena.

Gurekin apalduta joango ziñala etxera. Eta nik
esan nion etzenduala gelditu naiko; ikuilluko lanak
zeure esku zeneuzkala eta berandu arte etzenduala
gelditu naiko.

– Ondo esan zenion –erantzun zion Josek.

Baiñan Iñazik bere etxean ikusi nai zuan.
Orduan pentsatu zuan, da:

– Ori zuzendu leike –esan zion amak alabari–.
Igandean, illuntzerako etorri bearrean, lenago azal-
du. Nik jarriko det apari-merienda pronto. Zuek
etortzean, laurok pasako degu rato gozo bat, eta
dijoala gero aitari laguntzera. Ori den mutilla!

Karro gaiñean zenbat kontu esan zion Josepak?
Konturatu ziranean, ordu erdi bat pasea.

– Bueno, Jose. Zuregatik etxean asarretuko
zaizkit.

– Nere kulpa bota zuk. Neri ez didate erritarik
egingo.

Ala partitu ziran, laztan bana alkarri emanda.

Alkarren etxean sartu

LASTER ziran bakoitza beren etxean. Josek bere ama zai zeukan, zer notizi ekarri ote zuan. Kontatu zizkion Josepak esandako danak. Mariak laster esan zuan:

– Orduan urrengo igandean an apaldu bear dezute? Oso ondo pentsatua daukate. Ezagutzen zaituzte, baiñan beren etxean ikusiko naiko zaituzte. Baiñan guk ere bai. Lenengoan aien etxera. Urrangoan emengoa egoki daukazute. Arratsaldea plazan pasa. Illuntzean etorri biak. Josepa gurekin dagoan arte, zuk ikuilluko lanak egin. Gero apalduko degu laurok, eta orduan zuk lagunduko diozu etxera.

Urrango egunerako bazuan Josek zer kontatua bere lagunari. Esan zion bigarren igandean beraren etxera etorri bearko zuala.

– Ez dit ajolik, betirako edo bizi naizen guztirako etortzeko idean nago ta.

Esan bezela, legean bildu ziran plazan. Arratsalde erdira arte etzan soiñurik asten. Batzuk jokuan, besteak aiei begira, ordu pare bat pasa zituzten. Esan zion Josek:

– Abiatuko al gera? Neri berdin zait emen egon edo bidean denbora pasatu.

Josepak esan zion:

– Maria lagunari esan bear diot nola goazen.

Joan da esan zion mutillak ikuilluko lanak egin

bearra zeukala, eta amak apari-merienda jarriko zuala, eta goizago joateko.

Orduan Mariak:

– Baiñan ogei ta lau urte zeuzken da festak eta neskak danak utzita ikuillura joan bear al din? Ori, lengo santuak bezela, penitentziak egiñez bizi den, zerua irabazi naiean. Joan adi, joan adi, ik merezi baiño obea tokatu zain da.

Biak algaraz partitu ziran. Laster asi ziran etxera bidean kontu kontari. Akordatu gabe pasatu oi dira orduko bideak. Illundu aurretik iritxi ziran.

Ama, Iñazi, atea iriki ta zai zegoan. Kontu-otsa entzun zuanean, Pelipe ere laster zan. Biak besarkatu zituan eta sartu ziran barrena. Maia prestatua zeukan Iñazik.

Pelipe sartu zan gela batean. An ekarri zuan armearma-sarez betetako botilla bat. Garbitu zuan uretan eta esan zion:

– Au gorde nuanean, enian pentsatzen irekin ustu bear nuanik. Baiñan alaxe gertatu dek eta biok ustu bear diagu.

Amak jarri zien dena etxeko jatena; arrautza, txorixo, urdaiazpiko, xolomo eta gazta; postrea, berak eginda, bizkotxo; ardoa, ogia, kafea eta pata-rra, gozokia ere bai, oiek izango ziran dirua ordaindutakoak.

Nola ezagunak ziran lendik aita eta sui-gaia, zer gozamina artu zuten biak! Aitona zar batek bezela laguntzen zion izketan. Botillan etzan alperrik galtezko gelditu.

– Ederki jarri gera –zion Josek–. Orain ikuillura joan bearra ere...

– Nik lagunduko dizut –zion Josepak.

Eta bestea:

– Ez. Ortara doble lana; berriz etorri bear ko det.

Lenengo sarrera pozgarria egin zuan, beraz, Josek. Beste besarkada bana eman zien aita ta ama-gaiei.

Josepari, ateraiño laguntzeko esan zion. Bestea pozik joan zan. Ez da gutxiagotarako, bere bizi guzira-ko olako senargai bat suertatu zaiola jakiñik. Urrengo igandean bere etxera joan bearko zuala esan da musu bat emanda, alde egin zion.

– Laster da etxean –esanez, sartu zan Josepa.

Irurak etzuten beste konturik: Jose gora ta bera. Gurasoak ere alabak bezela pentsatzen zuten. Ogei ta lau urte eta aitak denbora asko duala beirik ez duala jetzi.

– Ori ez da gaurko kontua. Siñale du orrek. Ogi-puska bat da ori. Suerte ederra baden –esaten zion amak.

Alabak galdetzen zion aitari:

– Zuk zer diozu?

– Nik esango dizut ez dezula besterik palta: osasuna eta suertea. Beste guztiak zerekin dauzkazu, alkarri lagunduz bizitzeko.

Alkarrizketa ori egin da bukatu zuten. Gero etorri ziran seme-alaba gazteak. Danei aparria eman zien amak. Danak alkarri “Ondo lo egin” esanda oeratu ziran.

Urrengo egunean, bakoitza bere lanean. Josek bere laguna gogoan, eguerdia etorri zai, bidera jexteko. Bajatu zan bide-ertzera. Laster etorri zitzaion. Pozez beregan jarri ziran. Biak karroan eserita, galdetu zion Josek:

– Gustora al dira gurasoak?

– Bai, gizona. Amak ala zion: “Sekula ez diñat ikusi gure Pelipe orrenbeste kontu esaten maiean. Orixe poztu den suertatu zaion suigaiarekin”.

– Eskerrik asko –esan zion Josek–. Urrengo

iganderako badakizu: zu ere Goikoetxera joan bearean zera. Ondo artua izango zerala uste det.

– Nik ez daukat bildurrik. Lendik ezagunak ditut. Deseatzen nago biei ongietorria egiteko. Gero ere beraiekin bizi bearko det, zu senar artzen bazaitut.

– Nik ere alaxe nai nuke.

– Presaka al zaude? –galdetu zion Josepak.

– Ez. Nik ez daukat presarik. Oraindik gazteak gera.

– Bai. Badakit gazteak generala. Baiñan bein pentsatu degun ezkerro, neri ez liket ajolik zuk nai dezunean alkarrekin jartzea.

Josek:

– Pozten naiz etorri naiean zaudela ikusita.

– Ez al da ala, Jose? Bein lagun egin geran ezkerro, nik naiago nuke alkarrekin bizi, aparte baiño.

Ori entzun da erantzun zion Josek:

– Arrazoi aundia daukazu ortan. Baiñan ni ere zure alde nagoan arren, egun gutxi dira. Lenengo, bi aldeetako gurasoak bisitatu bear ditugu.

Josepak:

– Bai, Jose, bai –algara egiñez–. Ez nizun esan nai beintzat datorren astean ezkondu bear degunik.

Konturatu zan Jose luzaroan zeudela gustora.

– Biarko utzi ditzagun –esanda, salto egin zuan–. Biar arte!

Laster zaldia jarri zuan laukoan Josepak. Bereala zan etxean; baiñan berandu. Akordatu gabe denbora gustoko lekuan pasatzen da. Oiei ere bai. Garairik pozgarrienak oietzek dira. Pasatu dituunak badakigu. Aazten ez diran egunak.

Etorri zan urrengo igandea. Goizean amarretarako mezetara an bildu ziran. Ondo zeukaten:

Joseparen etxea gertuena. Biak alkarrekin lenengo ara joan ziran.

Iñazik nola zekian edo pentsatzen zuan alkarrekin etorriko zirala, salda ederra zeukan jarrita. Sartu ziran barrena. Segituan amak "eseri" esan zien.

Josek:

- Ni jatenak egin bearrean nago.

Josepak:

- Nik lagunduko dizut.

- Zuk lanean ala kontutan?

Algara goxo bat eginda:

- Ar zazu salda -esan zion.

Eserita artu zuten. Gero, txorixo-mutur bana atera zien. Ardo pixka bat ere bai. Antxe biak. Ama, bazkaria jartzen. Jose ere, arritzekoa ez da-ta, neska-karen ondoan lasatu egiten zan. Ordubete pasatu zanean, ordulariari begiratu zion. Josepak esan zion:

- Lagunduko dizut.

Eta besteak:

- Ez; bakarrik lenago egingo det -esanda, alde egin zion parrez.

Amagiarrebari gauean berandu etorriko zirala abisoa eman zion, nola ziran Joserren etxean apaltzekoak, joateko esanda.

Maria eta Markos etzeuden aaztuta. Bizi ziran arte gau eta egun lagundu naiean etorri nai zuana zetorren.

Arratsaldea pasa zuten lagun artean. Beti beze-la, bukaera dantza librean. Zenbat gozatzen diran, batez ere ondo dantzatzen diranak! Izerdi ederrik atera genduan gazte denboran. Aspertu ziranean, esan zion bere lagun Mariari:

- Joserren etxera goaz apaltzera.

– Larri aiz oien artera sartu arte. Joan adi, etzain damutuko ta. Ik izan den suertea! Poz aundia zeukenat iri tokatu zaiñalako mutil ori. Gure baillan etzegon beste bat olakorik.

– Irea txarra al den?

– Ez. Ni ere gustora negon. Baiñan irea askori gustatzen zitzaigun. Baiñan batek bear eta iri suertatu. Zaindu zan ondo.

Bereala abiatu ziran Joserren etxera. Zai zeuden Markos eta Maria. Sartu ziranean, ango poza alkar besarkatzen aitagarreba eta amagarreba beren denboran laguntzen izango zutena etxean. Naiz eza-guna izan lendik, orain ikasi dutena berena dutela. Gogoz artu zuten.

Laster alde egin zien Josek ikuillura lanak egi-tera. Eseri ta kontutan egon ziran pixka batean. Gero esan zion amak:

– Bueno, etxea ikusi naiko dezu nolakoa dauka-gun.

– Igual. Gurea aiñakoa egongo dala pentsatzen det.

– Au ere baserria da, zuena bezelaxe.

– Ondo jarria dago au. Dotore daukazute. Egiten dezu emen lana, ama.

– Bai. Asko neretzat.

– Emendik aurrera bion artean egingo ditugu –esan zion Josepak.

Ori entzutean, lepotik eldu ta musu eman zion Mariak. Sartu ziran Josek lo egiten zuan koartean.

– Dotore dago au –esan zuan Josepak.

– Bai. Ez dago gaizki. Baiñan mueble berriak sartu nai ditut, zuek ezkontzerako.

– Eta oiei zer egin bear diezu?

– Beste koarto utsean jarriko ditut.

– Pena da beintzat botatzea olako muebleak. Nola kaso egiten diezun gauzei!

– Bai. Al dana aprobetxatzea gustatzen zait.

Ikusi zituzten danak: pasillo ederra, iru koarto aundiak, kuarto-bañua eta sala ederra. Jetxi ziran bera. Orduan sartu ikuilluan. An zebillen Jose beien erdian bere baldearekin.

– Asko al daukate? –galdetu zion Josepak.

– Bai. Ia bukatu ditut. Zoaz emendik sukaldera. Bestela, eramango dezu ikuillu-usai ederra.

Aren esana egitearren, gurasoengana etorri zan. Irurak antxe. Amak esan zion:

– Zu etorri zeralako, apari gozoa jarri det gaur, bai.

Josepak esan zion:

– Zu ere asi al zera ongi-etorria egiten?

– Nola ez, betirako guregana datorrenari? Pentsatu det esparrago batzuk, urdaiazpiko pixka bat eta angulak.

– Jesus! Angulak?

– Bai. Eguberri aldean ogei ta lau milla pezeta inguruan ibili da. Orduan gure modukoak etzegoan jaterik. Baiñan orain amabi milla. Kilo t'erdi ekarri nituan gaurko zure etorrera zelebratu naiean.

– Milla esker, ama.

Jose, lanak egin da libratu zanean, garbitu, dutxatu ta dotore jarrita an sartu zan sukaldean erdi parrez, egin bearrak bukatu zituanean gustora. Orduan etzion inportarik ordubete beranduago lotarra joanda ere.

Amak atera zien apartaia. Aitak ekarri zuan aspaldian gordeta zeukan botill ardo zarra:

– Guk ere zelebratu egin bearko diagu etxekoandre berriaren sarrera –esanez.

Semeak esan zion:

– Au zegoan lekuan besterik gelditu al da?

Eta aitak:

– Au ez al diagu naikoa? Edan, motell! Besteren bat izango dek.

Biak parrez gustora zeuden. Aurrenekoak bukatu zituztenean, ama zai zegoan zartagia eskuan zuala. Asi zan lenengo errain-gaiari ematen.

– Eman aitari aurrena.

– Ez. Gero asiko gera. Gaur zuri.

Partitu zituan erdiak. Berak presaka janda, joan zan besteak jartzera. Bero-bero zeudela partitu zituan danak. Orduan bai lasai jan zutela. Aitak ala zion, jaten ari zala:

– Zerbaitegatik egiten du orrenbeste diru. Gauza goxoa da angula.

Ederki gelditu ziran. Gaiñerako, pastelak zeuzkan ekarrita. Andik ere saiatu ziran. Gaiñean, baserriko kafea. Gaur baserrian ere kafe ona egiten ikasita daude. Aita-semeak, kopa bana. Ez dute purua erretzeko oiturarik.

Gazteak lasai zeuden. Gurasoak gustora, biak ondoan zituztela. Noizbait esan zion Josek:

– Bueno, joango al gera?

Eta Josepak:

– Bertan geldituko nintzake pozik.

Parrez saio bat egin da altxatu ziran. Laztan bina eman zien gurasoei, da:

– Laster emen naiz –esanda, alai asko atera zan, Joseri besotik elduta.

Besteak, zer esan etzekitela, alkarri begira gelditu ziran. Ama asi zan esaten:

– Ori da laguna datorkiguna! Ori badakizu zer dan sukaldean. Pameli txikia gauden etxean, luzaro

ez dira ezkondu gabe egongo. Baiñan luze egin bear zaigu.

– Bera ere deseaten dagoala uste det –esan zion Markosek.

Eta Mariak:

– Aizu: badakizu beste lau senide dauzkala etxean. Bat berandu etorri dala, besteak alkarri erritan... Bere anaiak ogei urte ditu. Aizpak emezortzi. An ez dago emengo pakerik.

Au ikusi duanean, bertan geldituko zan ura. Baiñan guraso eta senideak ezin utzi baztartuta. Bidean ala zion Joseri:

– Alde ederra dago gaur gure etxean bizi edo zurean.

– Bai. Zuk arrazoi daukazu. Baiñan oiek txandan etortzen dira. Gure etxean emendik aurrera txiki bat ondo etorriko litzake, gurasoak pozteko.

– Lasai, Jose. Jainkoak nai badu, sortuko da.

Beren bizimodua nola pasa pentsatzen egin zuten etxera bidea. Iritxi ziranean, sartu ziran barrera.

Orduantxe etorriak gazte danak. Laurak, arratsaldean egindako azioak kontatzen. Neskak, mutil-kontuak; besteak, beren artekoak. Aita eta ama aiei entzuten ixilik.

Bikotea sartu zanean, Felipe segituan altxatu zan. Botilla bat artuta an dator:

– Kopa bana artu ditzagun. Nik ere zure aitazian beste bat artuko det –esanez.

Jarri ziran laurak maiaren bueltan eserita, zer modu pasa zuten galdezka. Josepa asi zitzaien kontatzen zer arrera egin zioten:

– Zai zeuden aita eta ama. Ito bearrik ibili nautte. Lepotik eldu ta aien musu eman bearra! Goikoe txearen etxekoandrea jarri didate izena. Kontutan

saio bat eginda, asi giñan etxea ikusten. Bean, sukalde ederra; gela dotorea, saloi bat, ango butakak... Telebisioa oso ondo jarria; alboan koartu-bañua; eskillarak jarri berriak; gora igo ta dana berri-tua dago... Iru kuarto, zein baiño zein, oso dotore jarrita; saloi aundi bat, zer esanik ez; nola dagoan beste koartu-bañua, besteak bezela ura ere... Begiei gozatu bat eman genien, alako gauzak ikusten. Jexi giñan bera. Jose ikuilluko lanak egiten ari zan. Sartu nintzan, baiñan alde egiteko esan zidan, an ganadu-usai aundia zegoala ta. Sukaldean zai zeuden jaten asteko. Etorri zan Jose. Garbitu ta ekin genion: esparrago, urdaiazpiko... Azkenean, angelak jarri zizkigun: lau lagunentzat kilo t'erdi uste det, eta sobratu. Gaiñean, pastelak zeuzkan eramanda. Andik beste saio bat. Kafea artuta, atera giñan etxe aldera. Berriz sarri joateko esan zidaten. Aiek deseitzen daude laguna ikusteko, eta ni ere bai. Pentsatu degun ezkerro, jartzea obe.

Prestaketak

URRENGO egunetan asi ziran biak ideak ateratzen noiz ezkonduko ote ziran. Ala dio Josepak Joseri:

- Aizu: badakizu egun ederra zein litzaken?
- Ea, ba, zer daukazun buruan.
- San Jose eguna.

Besteak:

- Oso ondo dator. Bion santua da. Pentsatu dezu, ba, zuk ori.

- Gaizki al dago?

- Ez, emakumea. Egiña dago. Illabete gelditzen da, eta bazkari-lekua billatzen lanak. Goazen gaur bertan.

- Nora joan bear degu?

- Nere lengusu bat ezkondu zan lengo illean. Badakizu nun izan giñan? Oiartzungo partean dago *Lintzirin* izeneko jatetxea. Oso ondo eman ziguten. Galdetuko al degu?

- Bai, bai. Goazen. Aurten, gaiñera, igandean dator.

- Ez da lekurik izango.

- Goazen. Ikusiko degu.

Sartu ziran barrena eta galdetu zioten etxeko-andreari ea lekurik zegoan San Jose egunerako. Entzun orduko parrez asi zan bertakoa:

- Au da suertea! Zenbat lagun zerate?

– Seguru ez dakigu: irurogei bat inguru.

– Bai; badago. Baiñan suertez gaur goizean deitu digute: lenago eskatuta zeukatenei ama il zaie-la eta atzeratu egin dutela ezkontza. Lenago beste bi etorri ziran eske eta ezetz esan genien. Orain bildurrez geunden iñor ez ote zan etorriko. Orra suertea. Zuentzat ere bai.

– Bildurrez etorri gera.

– Iru illabete bazan eskatu zutela.

Josepak orduan:

– Il zaien amonak zeruan gozatu dezala, ondo bagera guk ere gozatuko degu ta.

Gero asi ziran nolako bazkaria nai zuten. Ezkongaiak esan zioten etorriko zirala etxean itzeginda. Pozik gelditu ziran danak, ezkongaiak batez ere: pentsatu zuten egunean bazkari-lekua billatu! Josek esaten zion bere lagunari:

– Nere amaren poza, esaten diogunean ezkontzeko eguna aukeratu eta bazkari-lekua billatu degula! Suerte ederra izan degu. Orain gure etxera joango gera. Ikuilluko lanak egin da bertan apalduko degu; eta gero lagunduko dizut.

– Nai luke! Ez al nazu ordu oietan bakarrik bialduko!

– Ez. Lasai egon.

Orrela iritxi ziran baserrira. Baiñan etzuten uste aruntz joango ziranik. Ala ere gustora ziran.

– Zer zabiltzate? –galdetu zion Mariak.

Eta Josepak:

– Zuei poz bat ematera gatoz.

– Poza bear degu, ba, guk –erantzun zion.

– Gaur lan asko egin degu.

– Zer lan egin dezute?

Jarri zan jakin naiean.

- Ezkontzeko eguna erabaki.
- Ara, berriz! Noiz?
- San Jose eguna.
- Jesus! Bion santua dezute. Oso ederki dago.
- Beste lan bat ere egin degu.
- Geiago ere bai?
- Bazkari-lekua billatu.
- Nun degu?
- *Lintzirin* jatetxean.
- Tokia bazegoan? -galdetu zion amak.

- Suerteza izan degu. Lenago eskatua zeukaten eta atzo deitu diote ezkongai baten ama il zaiela ta atzeratu egin dutela ezkontza. Bildurrez zeuden besterik ez ote zan azalduko. Poz ederra artu zuten, gu joan giñanean lekurik zegoan galdezka.

- Ori da suertea!
- Besteak txarra izan dute.
- Zuentzat ondo etorri da.
- Bai. Gustora giñan, ori esan zigunean.

- Orra, ba, ama -esan zion Josepak-, laster degu alkartzeko eguna.

Eldu ta bi musu eman zion Mariak:

- Illabete au ez da neretzat motza izango -esanez.

- Lasai egon, bereala da ta.

Gero bururatu zitzaion:

- Aizu: San Jose igandean degu aurten.

- Bai; baiñan don Antoniok igandean berdin egi-ten du boda, bazkaltzera joateko esan ezkerro, arek duan apetituarekin. Nere lengusuarekin ere an genduan. Ez det uste dudarik jarriko duanik.

Maria ta Josepa sukaldean izketan ari ziran arte, aita-semeak ikuilluan pasadizoak kontatzen sentitzen ziran, parrez ari zirala.

– Orduan laster diagu erraiña etxean? –galde-tzen zion aitak.

Eta semeak:

– Bai. Etorri naiean dagoala uste det.

Josepak sukaldean:

– Nola gozaten diran biak nere kontura!

Amak esan zion:

– Uste det semeak aiñako poza badaukala aitak zu emen ikusteko. Laster emen dezu musuka, oiñetakoak kenduta.

Sartu zan Markos koarto-bañuan. Garbitu ta an dator parrez berarengana. Eldu zion besarkada bat emanetz.

– Enteratu naiz zuen idearen berri.

– Eta zer derizkiozu?

– Neri oso ondo. Baiñan nere seme au oraindik ere ez dago seguru kontatua.

– Bai?

– Alamoduzko kontuak entzun ditut ikuillu alde ortan.

– Nere kontura gozatu zerate biok.

Jarri ziran eserita laurak, maia erdian zutela, apaltzen. Bereala asi ziran San Jose eguneko bazkariarekin: zer jarri bear zan. Ortarako, ama ta errain-gaia: batek, esparragoak; besteak, urdaiazpikoa eta almejak.

– Zer? –Josepak zion–. Berak esango digute ondoena zer datorren.

– Bai orixe. Urrengo igandean itzegingo degu, bertara joanda.

– Eta zenbat lagun?

– Lengoan jardun giñan kontatzen. Dezente bilduko gera.

– Bai, Baiñan jendeak bazkaria ordaintzen du: diru edo erregalia. Ez da galduan ateratzen.

– Milla pare bat pezeta ordaindu bearko da orduan.

Markosek, semeari erdi parrez begiratuta:

– Bi txekor politak badauzkagu, ta ori egingo degu.

Semeak begiratu goxo bat egin zion, da orrela bukatu zuten aparia, tertuli ederra egiñez. Josepa asi zitzaion Joseri esaten:

– Aizu: zu lasai zaude, goxo-goxo zeure etxean. Nerean ere egongo dira itzegingo lutekenak. Onuzkero, leiotik begira aspertu da gure ama.

– Bai orixe. Goazen, ba. Nik berriz etorri egin bear. Naiago nuke bertan geldituko baziña.

– Laster, Jose. Itxoin. Gutxi palta zaigu. Bereala degu alkartzeko eguna.

– Ondo etorri dedilla.

Orrela atera ziran.

– Laster emen naiz –esan zien gurasoei.

Egunik goxoenak pasatzen zebiltzan, alkarri lagunduz. Etzaizkie aztuko beren denboran.

Bereala ziran beste etxean. An ere zai zeuden, ezeren berririk ote zuten. Sartu orduko, asi zan galdezka ama:

– Ondo al zabilzate?

– Bai –Josepak–. Kontu berriak baditugu.

– Bai? Zer degu?

– Ezkontzeko eguna erabaki degu.

– Ara! Noizkoa?

– San Jose jaia aukeratu degu.

– Ez da egun txarra zuentzat. Zeuon santua dezute. Egun zoragarria aukeratu dezute. Lagun deizuela zeuen bizitzan. Eta bazkaria pentsatu al dezute nun egin?

– Eskatuta daukagu.

– Jesus! Noiz egin dezute orrenbeste lan?

– Gaur bertan danak. Aurrena, ezkontzeko eguna nik pentsatuta neukan lendik. Gaur esan diot eta ondo artu dit. Orduan bururatu zaigu berandu gabiltzala bazkari-lekua billatzeko. Esan diot gure lengusua ezkondu zanean Oiartzungo *Lintzirin* jate-txean oso ondo eman zigutela. Pentsatu degu segituan joatea.

– Etzerate ganadu onak. Eta zer?

– Eskerrak joan geran. Esan diogunean, parrez asi zaigu: “Badaukagu; baiñan suertez. Zenbat lagun bezela?” galdetu digu. Eta irurogei bat inguru. “Leku au bi illabete baiño geiago da eskatu zutela. Atzo goizean deitu ziguten. Neska ezkongaiaren ama il zaiela, eta atzeratu egin dutela. Beste bi bodazaleak etorri ziran eske. Etzegoala lekurik esanda bialdu genituan. Orain, ori entzunda, bildurrez geunden ez ote zan iñor etorriko. Zuentzat poza eta guretzat suertea. Egun ortarako, neskak edo ezkonduak eskatuta genduzkan. Aiek etorrita ezin bialdu ezer eman gabe. Lasatu naiz ni beintzat”. “Bai gu ere” esan nion. Jose ere bildurrez zegoan, berandu genbiltzala esanez. Zer lasatua artu genduan! Gero, zer bazkari jarriko zuten galdetu zigun. Urrengo batean etorriko giñala etxekoekin egonda esan genion.

Pelipe ta Jose ikuillura joan ziran beiak ikustera. Ama-alabak sukaldean. Aien goxotasuna!

– Gustora egongo aiz? –esaten zion amak.

– Zu ez al zaude ala?

Amak:

– Bai, neska. Ik den suertea! Olako etxea; ta mutilla, berriz, urrea balio duana. Osasunik badezute, etzaitzuet erruki. Eta gurasoak? Aiei ondo lagundu ien beintzat.

– Aizu, ama: al detena laguntzeko idean nago. Emen bezelaxe, pakean bizi nai det an ere.

– Bai. Pentsatzen diñat gozatuko dirala irekin. Suerte ederra badiñagu olako etxe batean sarrera izatea.

– Bai, bai. Uste det arrera ona egingo dizutela.

Jose atera zan ikuillutik, esanez:

– A zer tertulia egin dezuten! Lotarako garaia da. Nik urruti daukat oraindik.

– Ba! Laster zera etxean –esanez, lagundu zion ateraiño Josepak.

Partitu ziran “biar arte” esanda. Egun gutxi gelditzen zaie San Jose egunerako. Laster dute alkaritzeko zoria. Bakarkako egunak bukatu dira.

Egunero biltzen dira alkarrengana. Biak txofer ikasita daude. Kotxerik ez oraindik. Josek erosi egin nai du. Esan dio aitari zer deseo daukan; eta aitak:

– Lenago esaten nian. Ori artu ta ibili pixka bat, beajera joaterako.

Urrengo egunean joan ziran ezkongaiak ea gustokorik billatzen zuten. Aukera ederra bazegoan. Dozena bat bai dotoreak. Batzuk galesti xamarrek. Eskerrak etzutela diru asko eramán. Bestela, tentazioa bazuten. Aiek kotxe dotoreak!

Buelta eman zieten danei, eta azkenean *Peugeot* bat gustatu zitzairen. Lareun milla pezeta balio zuan. Matrikula urrengo egunerako jarriko ziotela. Billa joateko. Etxera baiño len, segurua egin zuten. Andik zortzi egunera joateko ordaintzera.

Justu ibili ziran, baiñan danak ondo eginda jarri ziran beren egunerako.

Urrengo egunean joan ziran kotxe billa. Artu zuten berebil ori. Biak bildurrez nola asiko ote ziran. Mutillak neskari esan zion artzeko, eta besteak:

– Ez, ez. Artu zuk.

Sartu zan Jose. Arrankatu zuan primeran jarrita, atera zan garajetik, sartu zuan segundan ederki, gustora biak. Erdibidea pasa zutenean, esan zion Josek:

– Zuk artu orain.

Gelditu zan baztarrean, aldatu ziran, artu du bolantea Josepak, asi da poliki, gero bigarreanean... Oso ondo.

Lenengo Etxeberrira joan ziran. Ikusi zutenean beren alaba kotxea artuta, aien poza! Atera ziran nolakoa zan ikustera:

– Au da gauza ederra! Urte askoan gozatu deza-zutela.

– Zuek ikusiz –erantzun zioten.

Sartu ziran barrena. Merienda pixka bat egin zuten, eta berriz beste gurasoetara biak, erosi zutena erakustera. An ere poz ederra artu zuten, alako gauza dotorea ikusi zutenean. Leku apraposa zeukaten. Legorrean antxe sartuta utzi zuten.

Gero, betiko lanak: ikuillura, batek jetzi eta besteak janak eman. Maria ta Josepak tertuli ederra sukaldean. Galdetzen zion Mariak:

– Ez al zenduten bildurrik kotxearekin asteko?

– Nik bai. Baiñan Josek artu ta atera duanean, ni ere artu naiean. Erdibidera etorri geranean, neri utzi dit. Gustora artu diot. Bein asi ezkerro, erreza da. Naiago nuke biar ere ibili bear banu.

– Emendik aurrera izango dezu naiko aukera.

Aita ta semea or datoz apari billa. Maria prestatuta zegoan. Atera zien jarrita zeukana. Markosek esan zien:

– Baneukan gogoa kotxea etxean ikusteko.

– Ara; badezu, ba –esan zion emazteak–. Nik ori bakarrik ez nuan nai.

– Ez. Pentsatzen det. Erraiña ere naiko zenuan.

– Orixe beintzat nola ez, ba?

– Lasai, ama, lasai. Laster naiz emen zurekin.

– Nik nai ordurako etzera etorriko.

– Emendik aurrera egunero nator zuregana. Etzi San Jose degu. Bukatu da bakarrik bizitzea.

– Datorrela ondo.

Ordubete bat umore ederrean pasa zuten, eta Josepak esaten dio:

– Bueno, Jose: oraindik etxera eramán bearko nazu.

– Bai. Gaur da biar eramango zaitut, eta libre naiz.

– Gustora al zaude etxean artzeko?

– Bestela ez nizun esango.

– Goazen, ba. Ondo lo egin zazute eta biar arte –esanda, alde egin zuten, kotxea artuta.

Aita, atzetik begira nola ateratzen zuten, parrez. Sartu ziran barrena.

– Ori da gauza ekarri dutena!

– Dotorea da oso –esan zion Mariak.

Gustora zeuden biak kontutan. Berealaxe an dator Jose bere berebillarekin.

– Ara: emen da! Laster etorri da.

– Bai. Kotxeak ortarakoxe balio du: azkar ibiltzeko. Gastua badu, baiñan aberirik ez duala, ondo.

– Istripurik ez dedilla beintzat gertatu.

– Ori da gauza tristea.

Semea sartu zan:

– Emen naiz.

– Azkar etorri zera.

– Bai; orrekin errez. Ta gustoa ematen du ibiltzeak.

– Ea, ba, suertea izaten dezuten.

– Ori da bearrena. Bueno, ni lotara nijoa. Nekatu naiz.

– Bai, bai. Zoaz.

– Gau on pasa –esanda joan zan Jose.

Besteak ere berealaxe erretiratu ziran urrengo goizera arte.

Beti bezela, seirak alderako ikuilluan zan Jose. Konturatu ziran gurasoak asi zala lanean. Beste lo pixka bat eginda, zortzi t'erdia aldera jeikitzen ziran.

Lenengo lana, gosari txikia semearentzat. Deituko zion amak. Laster sartuko zan sukaldean, “egun on” esanez. Katillukada bat kafesnea zopaz beteta. Ordurako apetitua egin da gustora jaten zituan. Berrero, lanak bukatzera, ikuillura. Laster zan gosari billa. Esan zion amari:

– Atzo agindu nion Josepari gaur joango nintzala kotxearekin. Esneak eramanez, enkargu batzuk dauzkagu egin bearrak. Kotxearen segurua ere gaur ordaindu bear degu. Beste zerbait ere izango degu noski. Joan egin bear det.

– Bai, gizona. Zoaz, Orain izango dituzute egin bearrak. Guk ere al deguna lagunduko dizuegu. Lasai ibili. Badakizu egun oiek zer diran.

Ala, atera zan bere kotxearekin. Ikusten zan nerbioso zebilela. Ez naiz arritzen. Leiotik begira

zegoan Maria, ea noiz pasatzen ziran. An datoz; eta Josepak, leio iriki ta besoa altxatuz, agur egin zion. Zer ordu atsegiñak diran benetan egun oietan!

Kaleko egin bearrak egin zituzten. Ustez lasatu ziran pixka bat. Josepak ere ikusten zuan apuratu-ta zebillela.

– Lasai, Jose –esan zion–. Ni ere emen nago. Ez daukagu estutzeko ezer. Biar elizara eta ez nago ezetz esateko idean.

Parrez jarri arazten zuan. Lenengo Etxeberrira joan ziran. An marmitak eta enkarguak utzita, bere etxera alde egin zion Josek, ganadu-jatenak egin bear zituztela esanda.

Bazkaltzeko zai zeuden, iritxi zanean. Bazkaldu ta beti oitura zuten siesta pixka bat.

Laster joan zan Jose sega artu ta belarra mozte-ra. Bi eguneko jatenak ekarri zituzten.

Orduan joan zan Iturburura Martiñekin itzegite-ra. Lenago esan zion ea bera kanpoan zan arte beiak jetziko zizkion.

– Bai, motell! Joan adi lasai! Illabete bat pasa zazute. Nik kaso egingo zioat ganaduari.

– Ez. Jetzitzea naikoa dek. Aitak gobernatuko dizkik.

Bere lagunik aundiena du Martin ori. Bodarako ere esanda dauka lendik. Lasai ibiltzeko esaten zion.

– Astebete naikoa izango diagu –esan zion Josek.

Eta Martiñek:

– Aizak: orain ago libreena, e? Ibili adi orain. Illabete bat pasatu zak. Emengo lanak egingo zetua-gu.

– Esker milla, motell. Ikusiko diagu nola gabil-tzan. Biar arte –esanda, partitu ziran etxera.

Etorri zanean, amari esan zion meriendatu ta Etxeberrira joan bear zuala.

– Bai, bai. Azkeneko eguna. Aparte ez dezute itzegin bearko kontuekin.

– Oiek esanda dauzkagu lendik. Ezeren berririk badu entzunda, laster naiz emen.

Ikuilluko lanak egitera kotxea artuta atera zan. Baratzen lanean ari ziran. Ikusi zuanean, Josepak deitu zion:

– Artu atxurra!

Orduan danak etxera etorri ziran. Kontu batzuk esanda alde egin zien. Ondo lo egiteko esan zion Josepari, kolore onekin azaltzeko elizara bere ondorra.

– Alegiñak egingo ditut. Ikusiko degu zu nola etortzen zeran.

Eztaiak

IRITXI zan San Jose eguna. Eguerdiko ordu batean zuten beren ezkontzaren billera, Errenteriko Zamarbide baillarako ermitan. Lagun asko zituzten beren ondoan. Bertan izaten dira praileak. Aietako batek ezkondu zituan. Oso elizkizun ederra, abesti eta guzi. Gustora irten ziran.

Badakigu zer gertatzen dan ataeran: danak ezkonberriak musuka jan bearrik, guztien zorionak artuta. Argazkiak, zer esanik ez.

Gero bizi guzirako danen pozgarri argazkiak atera Errenteriko *Ezgar* izeneko etxe sonatuan. Ara joan ziran. Olako lekutan ordu erdi bat errez pasatzen da. Alde guzietara begira atera gabe ez dituzte bialtzen. Gero, ederkiena atera dutena bistan jarriko dute, jendeak ikusi dezan, ea geiago joaten diran ura ikusita.

Askotan gertatzen da gonbidatuak maiean zai, ezkonberriak joan arte. Ala ere, erritarik ez da izaten egun ortan. Danak txaloka, maia osatu zanean. Praileak bedeinkatu zuan artu bear zutena, eta asi ziran jaten, *Lintzirin* jatetxean. Egun alaia izaten da olakoa.

Bukaeran, jakiña, tartaren etorrera. Soiñua ere asi zan da alkarri tarta ematen. Gazte jendea alkarri musu emateko eske. Ezkonberriak ere lotsak botata zeuden.

Kafea artu zutenean, asi zan musika, eta lenengo berak asi bear. Baiñan oituta zeuden lendik

ortan. Altxatu ziran. Gazte guziak dantzara orduan. Beren gurasoei agur eginda, alde egin zuten. Lagunak galdetu zioten nora zijoazten; eta Josek esan zien:

– Emazteak ez du nai egazkiñean sartu. Bildurra ematen dio. Kotxean goaz Alicante aldera. Gaur Zaragozaraiño bakarrik. Biar ikusiko degu.

Esan zion Josek Martiñi:

– Lanak ire kontu.

– Bai, motell. Illabetean ez adi onera azaldu. Guk lanak egingo zetuagu.

– Eskerrik asko –esanda alde egin zuten.

Ibillaldia

LENENGO, etxera. Arropak aldatu eta maleta artu zuten. Ekin zioten bideari seirak aldean. Erdi bidean errefresko bana artu ta kotxeari gasolina bota zioten, bukatu baiño len; da segi berriz ere beren bidean, alkarri kontuak esanez.

Amarrak alderako espero zuten irixtea. Lasai zijoazten, presarik gabe. Amarrak eta ogeiean an ziran, Pilarikaren ondoan. Lenengo, otela billatu zuten. Gero, kotxea garajea sartu. Orduan etxera deitu zuten.

Ama Mariak artu zuan. Erraiñaren boza entzun zuanean, aren poza!

- Omentxen zai geunden oera joateko.

- Ondo iritxi gera. Otel ederra billatu degu. Kotxea sartu ere bai. Orain pixka bat apaldu ta lotara goaz. Deitu zazute nere etxera.

- Bai. Segituan deituko det, zai egongo dira ta.

- Deituko degu berriz biar edo etzi.

- Bai. Deitu sarri nola zabilzaten, zuekin pentsatzen gaude ta.

- Bai. Agur -esan zion.

Ezin bukatu. Orduantxe lasai gelditu ziran. Zerbait jan da lotara.

Urrengo goizean, pentsatu utsarekin egun guzia libre zeukatela, ezin zuten sinistu egia zanik, oituta zeuden bezela.

Bertan gelditu ziran urrengo egunera arte. Pilarikari otoitz bana egiñez, eguna ondo pasa zuten. Etzuten ezagutzen da onela esaten zioten alkarri:

– Au da lasaitasuna!

Eman zioten buelta osoa Zaragozari. Amarrak aldean sartu ziran otelean. Berealaxe ekarri zieten karta, nai zutena eskatu. Ondo ematen zuten. Ederki apaldu ta lotara. Etzeuden oituta gauean zinera joaten. Ala obe. Baserrian ez da izaten ortarako denborarik.

Urrengo goizean, naiko lo eginda, jetxi ziran gosaltzera eta kontua eskatu zuten. Ordaindu ere bai.

Atera ziran Alicante aldera. Nola etzuten presarik, egun guzia berentzat. Erdi bidean gelditu ziran bazkaltzen, kotxe asko zegoan jatetxe batean. Eskatu zuten zer ekarri eta ondo eman zieten. Gustora atera ziran.

Berriz artu kotxea eta Alicante aldera. Garaiz iritxi ziran. Loreak indarrean zeuden dotore asko. Lenengo, otela billatu zuten. Gero, kotxea garajeen sartu.

Jende asko ikusten zan. Plaia ederra. Baiñatzen zebiltzan, emen agoztuan bezela. An zegoan giroa. Ogei gradutik gora. Erdi larrugorrian danak.

Bederatzietan aparia esan zieten. Aiek bezelaxe, asko sartu ziran ordu ortan. Baiñan apalondoan danak kalera. Musika jotzen zuten otel batzuetan. Ango dantza egin bearra! Ordubete gustora pasatu zuten aiei begira.

Amaikak aldera oera joan ziran. Baiñan zeinek lo egin? Abitazioa plaia aldera suertatu zitzaien, da ordubiak arte etzegoan lo egiterik. Jendea nola bizi dan, ikusi gabe ezin sinistu leike. Guk baserri aldean txintxoago ibili bear izaten degu. An etziran, ba, danak aberatsak izango. Josepak esan zuan:

- Ok danak dirudunak ote dira?

Josek parre egin da esan zion:

- Emengo erdiak baiño geiago Aurrezki-Kutxari dirua kendu ta gero ordaintzekotan ibiliko dira. Etxea beren izenean edukiko dute ta ura ez da galduan aterako. Goizean presaka plaiian lekuri onena zeñek artuko. Beren arropa utziko dute amakaren gainean eta gosaltzera. Emengo bizitza ere asko ikasi degu.

Lau egun antxe pasatu zituzten. Etxera gauero deitzen zuten. Esan zieten amarretatik aurrera merkeagoa zala telefonoa. Aiek ere ikasi zuten ori. Etxetik esaten zieten aiek ondo zebiltzala eta lasai ibiltzeko. Nola zebiltzan deitzea nai zutela.

Andik Elche-ra joan ziran. Ogei ta bost bat kilometro daude. Oso leku ederrak billatu zituzten. Bai jatetxea ere, bere garaje eta guzi. An kotxea sartu ta lasaiago ibiltzen ziran. Buelta bat eman da bazkaltzera.

Bastante jende zegoan. Aiei euskeraz sentitu ta nungoak ziran galdezka etorri zitzaien bat. Esan zioten Errenterikoak zirala; ta bera Irungoa zala. Bi illabetean an zegoala. Oso leku ona zala beretzat. Irunen bronkioetatik gaizki ibiltzen zalako asi zala ara joaten. Edade aundia zeukan. Oso lagun egin ziran.

Arratsaldean lagunduko ziela esan zien. Asi ziran ibiltzen. Eraman zituan Huerta del Cura esaten zioten lekura. Zerbait ordaindu bear zan barrena sartzeko. Ango arbola palmera da. Beste klase guziak danak zer izen duten jarrita txapa batean, eta ibilbide danak piztiz beteta. Ango zozo, birigarro, usoak!... Emen ezagutzen ez diran eizak. Nola ez dagoan tirorik egiterik, ez dira izutzen. Ura gozatua!

Arratsaldea pasatu zuten bertan. Terreno ikaragarria da. Kilometroak dauzka bueltan. Nekatu egi-

ten zan ango edertasunari begira. Ango iturriak, arri tarteetan bera putzuak egiñez. Atak, antzarrak eta beste zenbat klase...

Illundu arte bertan. Andik atera ta taberna batean trago bana egin zituzten, pintxo banarekin. Ala erretiratu ziran apaltzera. Sartu aiñean etortzen ziran zer zegoan esatera. Apaldu ta an etzegoan musikarik. Lotara joan ziran.

Irungo lagunak esan zien goizetan gutxi ateratzen zala. Liburu bat irakurriz, eserita orduak pasatzen zituala.

Urrengo goizean, jeiki ta gosalduta zuten. Lenngo, an etzegoan Alicante-n bezelako plaiarik. Ekin zioten baztarrak ikusten. Badago *villa* ederrik mendi aldera, beren jardinaekin. Aberatsak izango dira bertan bizi diranak. Langilleak dauzkate jardinari kaso egiteko. Diru asko bear da orren dotore zaintzeko. Kotxe eleganteak ondora arrimatzean, atea bera irikitzen zan. Josepak galdetzen zion senarri:

- Atea zeinek iriki dio?

- Ori ondo erakutsita dago, bai. Zuk ea ola erakusten diozun gure etxeak.

Parre egiten zion gizonak, eta esaten asi zan nola zeukaten gauza bat jarrita, kotxea azaltzen zanean atea irikitzen zuana.

- Zuk nundik dakizu ori?

- Toki askotan dago jarrita.

Oso arrituta gelditu zan Josepa. Olaxe pasatu zuten goiz-partea, eta pentsatu zuten bazkalondoa Benidorm-era joatea, ango aundiena ikusi zutela esanez alkarri.

Bildu ziran jatetxera. An zegoan aurreko eguneko laguna. Bildu zan berengana, galdetuz zer moduz pasa zuten.

– Oso ondo –esan zioten. Nun ibili ziran ere bai.
– Emengo lekurik aberatsena ura da. An bizi dira emengo jauntxo aundienak. Eta arratsaldean nora zoazte?

– Bazkaldu ta Benidorm-era goaz.

– Bai. Ura, onen aldean, elegantea da.

– Ikusi bear degu ura ere.

Berak esan zien:

– An bi plaia daude. Ezkerreko plaia-iskiñan Hotel *Bilbaino* dago. Etxekoandrea Getarikoa da. An geiena euskalduna izaten da. Oso ondo ematen dute.

– Billatu bear degu –esan zion Josepak.

– Bai. Joan lasai. Lekua badago. Ondo artuko zaituzte. Nagusiak Pedro du izena. Emazteak, Mari Jose.

– Ara: gu ere alaxe gera: Jose eta Josepa.

– Orduan izena etzaizute aztuko.

– Ez ori, Gogoan eramango degu.

Ematen zuan pena ematen ziola aiek alde egiteak. Euskaldunak etxetik urruti laguna billatzeaz poz aundia artzen du. Arek ere ala artu zuan. Danagatik eskerrik asko esanda partitu ziran.

Berrogei ta amar bat kilometro inguru zeudela esan zien. Ekin zioten bideari, pozak euskaldun artera zijoaztela jakiñik. Aiek ere oiekin naiago.

Garaiz iritxi ziran plaia ertzera. Galdetu zioten gazte bati, eta:

– *Ahí delante, en la esquina* –esan zien.

Bertatik ezin zan joan. Kontrako bidea zan, da buelta eman zuten. Otelaren ondora sartu ziran. Bertan bazegoan tokia kotxea uzteko. Sartu ziran barrena. Andre bat euskeraz ari zan izketan atarian. Bertako etxekoandrea zan.

– Arratsaldeon –esan zioten–. Lekurik badauka-
zu?

Erdi parrez asi zan. Galdetu zien:

– Neri ez dit inportarik, baiñan senar-emazteak
al zerate?

– Bai, bai. Lengo astean ezkonduak –esan zion
Josepak.

Orduan esan zien:

– Abitazio bat daukat, eta ura oe batekin.
Aundia da, baiñan bakarra. Ondo konpontzen baze-
rate... –esan zien parre egiñez.

– Bai. Ez det uste asarretuko geranik –esan zion
Josepak.

Orduan ekarri zuten maleta. Giltza eman zien.
Karneta eskatu izenak artzeko. Jetxi ziran bera.
Galdetu zien:

– Moldatuko al zerate?

– Bai. Ondo gaiñera. Suerte ederra izan degu.
Gustora gelditu gera. Buelta bat eman bear degu
–esanda, atera ziran.

Plaia ertzean paseo ederra zegoan. Ibili ziran
bastante. Gero, apaltzera. Arek ematen zuan poza:
erdiak baiño geiago euskeraz izketan. Denak nungo-
ak ziran galdezka. Ondora etorrita, esan zieten zer
zeukaten eskatutakoa. Segituan ekarri zuten.

Ura bukatzean, gora tabernara nai zuanak.
Kafea esnearekin, manzanilla, kopa batzuk whisky
eskatzen zuten. Etzegoan jendea dirua gastatzeko
bildurrez. Gero, musean erronda jokutzen. Aien
algarak gezurretan alkar engaiñatzen. Galtzen zute-
nak ordaintzen zuten, eta oera danak edo geienak.

Baziran oraindik kalera ateratzen ziranak.
Ezkonberriak arrituta zeuden, jendea nola bizi zan.
Goizeko ordubiak arte ezin zan lorik egin kaleko

otsarekin. Aien errian festa-egunean bezela, beti jai zegoan an. Urrengo goizean, arropa garbiak jantzi ta bat baiño dotoreago bestea agertzen ziran.

Gosaldu ta laster plaiara. Itxas-ertzean anakak bustiz buelta bat ematen Jose eta Josepa ere asi ziran. Aiek ikusita, baiñatzeko arropak artu ta joan baiziran badaezpada ere.

Gustatu zitzaien ango bizitza. Egun geienetan beren artean jaten zuten etxeko pameliak, senar-emazteak beren seme-alabekin. Ura zan benetako alkartasuna. Nola etzan jendea gustora joango, bertako berdintasuna ikusita? Beren buruak aiekin bat egiten zituzten, batez ere Mari Josek.

Bera baserriko alaba izanda, nola artzen zituan euskaldunak! Ez bikote ura bakarrik; besteak berdin. An etzan iñor baztarten. Arpegi ederra eta alaia, goxo-goxo itzegiñez, otordura biltzeko pozak. Danekin itzaldi eder askoa. Kafea artu ta nai zuana siestara. Ezkonberriak ere asi ziran. Gauean etzegoan asko egiterik ordubiak arte ango buillarekin.

Eguna joan da eguna etorri, astea bazijoan. Etxera deitu ta ondo al zebiltzan. Baietz esan bear. Lasai egoteko, lanak errez egiten zituztela eta. Josepak Joseri esan zion zer esan zioten. Noiz arte egongo ziran galdetu gabe zegoan oraindik. Ortik pentsatu zein gustora zebillen.

– Zuk nai dezunean.

Parre egin da:

– Ola bizi liteke –zion Josek.

– Aizu; betiko ez giñan etorri –esan zion Josepak.

– Badakit, etxea an degu eta.

Jarri zan pentsatzen, eta:

– Gurasoak etxean bakarrik –esan zion–. Biar joango al gera, Josepa?

– Bai, bai. Ez nuan uste emendik penaz atera bear nuanik. Nere bizian etzait aztuko Benidorm-ko otel au. Baiñan berriz etorriko generala esan da goazen.

– Pena ematen al dizu?

– Zuri ez?

– Bai; baiñan amabost egun pasa ditugu, bai ederrak, batez ere emen.

– Bueno, kontua eskatu, ordaindu ta biar goizean danak agurtuta etxera bidean jarriko gera lasai. Zai egongo dira an ere.

Goizean gosaldu ta danak agurtuta, Mari Joseri esan zioten urrengo urtean, ondo baziran, bisitatuko zutela; eta esan zien aurretik deitzeko; lekua pozik gordeko ziela.

Penaz alde egin zuten. Plazara joan da biderako jana artu zuten; baita ere botilla bat ardo eta beste bat ura. Orrela atera ziran, eguraldi ederrarekin.

Eun bat kilometro pasa zituztenean, asi zan etxea bururatzen. Aurreko gauean deitu zuten, urrengo egunean etxean lo egin nai zutela esanez.

– Lasai eta ondo etorri –erantzun zien Mariak–. Zai egongo gera noiz azalduko.

Orrela zetozen, bidean alkarri kontuak esanez.

Josepak kotxeko kilometroak kontatzen zituan. Berreun pasa zituztenean, ala zion:

– Berreun pasatu ditugu.

Josek:

– Gustora zoaz?

– Bai orixe. Kanpoan ondo ibili gera, baiñan nik daramat poza oe berrian eta etxe berrian lo egiteko. Baita gurasoak eta senideak ikusteko ere.

– Obea da orrela joatea, bai. Ondo dago, al dala, aurten guk egingo deguna egitea. Bizi ere egin bear

da. Etxetik atera gabe, ez da ezer ikusten. Badago ondo bizi dana ugari. Goizean plaian eta gauean apalondoan dantzan, “¡Viva la Pepa!” ordubiak arte. Jendea ola biziko zanik nik ez nuan uste.

Josek parre egiten zion:

– Gu orain asiko gera bizitzen –esanez.

– Bai, aurki ankagorriak ekartzen baditugu.

– Orixe nai degu. Baserriak segi dezala. Aita eta ama bizi diran arte, kaso egingo diote, deseaten daude ta.

– Bai orixe. Gure ama Mariak txiki bat besoetan baleuka, zer poza berarena!

– Jainkoak nai badu, sortuko al da! Elitzake aztua izango.

– Aizu, Jose: ordubiak dira. Ni gosetzen asi naiz.

– Bai, bai. Teruel pasa genduan. Urrena bideertzean ikusten degunean olako geltoki bat, geldituko gera.

Laster agertu zan. Lau bat lagun bazkaltzen ari ziran, inguratu ziranean, euskeraz izketan. Iru mai zeuden asientu eta guzi. Konturatu ziranean euskaldunak zirala, beren alboan jarri ziran, egun on eman ez. Poztu ziran. Urrutian euskaldunak alkartzean, lagunak gera.

Jaten asi ziranean, bat altxatu ta zato ardoarekin etorri zitzairen. Esan zioten berak bazeukatela, baiñan alperrik zan. Eman egin bear. Josek trago bat egin zien, eta Josepak basoan artu zien, gustora uztearren.

Gero asi alkarri nungoak ziran galdezka. Gure ezkonberriak, Errenterikoak zirala. Berak naparrak, Elizondo ingurukoak. Balentzi aldean pasatu zituztela amabost egun. Bi anai eta bi koiñado zirala. Siñale zuten jatorrak zirala.

Bazkaltzen bukatu zutenean, esan zieten urren-
go gasolineran gelditu bear zutela, gasolina eta kafea
artuz.

– Guk ere orixe egin bear degu.

– Goazen –esanda abiatu ziran, naparrak aurre-
tik, Jose eta Josepa atzetik.

Etzuten presarik. Errez segitzeko moduan zijo-
azten. Besteentzat obe era ortan. Ikusi zutenean
bartzartu zirala, atzekoak ere bai. Artu zuten gasoli-
na. Gero kafea kopa banarekin gizonaekoak. Jose-
pak patarrik etzuan artu.

Josek kontua eskatu zuan, da eginda zegoala
esan zion tabernariak. Dirua eskeñi zien, baiñan
etzioten artu. Urrena gelditzean artuko zutela esan
zioten. Benetako lagunak sortu zitzaizkien.

Abiatu ziran berriz. Tudela aldean zetozen,
geroz ta gerturago. Larogei ta bost bat kilometro
Iruñera zeuden. Iru ordu laurden.

Belate alderako bidera iritxi ziranean, naparrak
gelditu egin ziran. Besteak ere bai. Atera laurak eta
despeditzeko eskuak luzatzen asi zan bat; eta Josek:

– Beste trago bat egin gabe partitu bear al degu?
–esan zien.

Besteak, berriz:

– Gaur bezelaxe uste gabean bilduko gera berriz
–esanda, danak besarkada bana alkarri emanda
partitu ziran. Senar-emazteak Irurtzun aldera beren
bidean.

– Au da suertea izan deguna –zion Josepak–.
Alde ederra da bakarrik ibili edo olako lagunekin.

Josek:

– Bai; ala da. Beste kafe bana emango nien
pozik, lentxeago gelditu balira.

– Berriz ikusteko gogoarekin gelditu gera bein-
tzat. Ala obea da.

Ari zan etxea gerturatzan. Alaitasuna beren barrenean.

– Azpiroztik bera Tolosa aldera laster gera –zion Josepak.

– Bai. Ordu erdi bat. Onuzkero leiotik begira dago ama.

– Zureak ere larri egongo dira.

– Bai. Gaurko arratsaldea ez dute motza izango. Ez dute baratzan lanik egingo.

– Ez; seguru.

– Ea, ba, umore onean danok biltzen geran.

Agertu ziran etxe-bistara. Bai ama ere, leiotik ikusi ta atarira korrika. Kotxea gelditu zutenean, atea laster iriki zien. Alkarri eldu ta ezin apartatu. Markos, berriz atzetik, bi begiak malkoz bustita zituala, poza gorde eziñik. Joseren lagun Martin ere an zegoan, beiak jeizteko joanda.

– Zertara etorri zerate? Emengo lanak errez egi-ten genituan.

– Ori jakin bagendu, beste astebete pasatuko giñuan.

– Joan adi, nai badek.

– Ez. Oraingoz naikoa diagu.

Sartu ziran barrena. Ama asi zan merienda pre-
paratzen. Martiñi esan zion Josek:

– Meriendatzean, etxera joan deikek.

– Ez, ez. Ik gaur arroparik ez aldatu. Nik egingo dizkiat emengo lanak.

Josek esan zion:

– Orduan, i ezkontzean, nik egingo dizkiat ire etxeko lanak.

– Bai. Aldean zegok. Naiago nitek andregai-
baneuka.

– Motell, neskak nunai zeudek, baserrira ezkontzeko pozak. Kanean lanik gabe zeudek. Gazteak, baserrian beintzat, lana segurua zeukeagu. Jana ere sortzen dek. Ez adi bildurrik egon. Ez dik inork ezeztzik esango.

Eta Josepak:

– Nik oni baietz esan nion beintzat.

– Bai. Zuk bazenekian nora zentozen.

– Eta zurekin zer: gaizki biziko al da zuregana datorrena? Uste det biar bertan, nik esango banio, ez lukela ezetz esango.

– Poz ederra ematen didazu, norbaiti itz erdi bat esan naiean nengoa da.

Josek:

– Aizu: besteak zai egongo dira. Goazen.

Martin lanak egiten utzita, alde egin zuten beste baserrira. Angoak ere zai zeuzkaten. Kotxearen otsa entzun zutenean, danak korrika atarira. Fameli osoa etxean zeuden. Ango musu goxoak alkarri!

Sartu ziran barrena. Pelipek etzuan ikuillura joateko presarik. Gustora zegoan, aien kontuak entzun arte. Joseparen senide danak zai zeuzkan. Goxo begiratzen zioten alkarri. Bere urrengo aizpak, atzetik joan da lepotik elduta, musu ematen zion. Besteak parre egin da eskutik eltzen zion. Aiek zeuzkaten benetako maitasuna.

Aita-suiak ikuillura joan ziran. Inñazi sukaldean, bere lau seme-alabekin. Josepa, nola ibili ziran konstatzen danei: nundik nora pasatu zuten denbora.

– Danetan ondo, baiñan Benidorm-koa zoragarria da.

Amak esaten zion:

– Berriz ere joan bearko dezute.

– Bai. Esan diogu datorren urtean bisitatuko degula, ondo bagera.

– Orduan gustora ibili zerate.

– Bai, ama. Egun ederrak pasa ditugu, Jainkoari eskerrak.

Etorri ziran aita-suiak ikuillutik. Inazik aparia jarria zeukan. Eseri ziran zortzi lagun, alkarri begira parrez. Ura zan apari goxoa ordukoa. Danak kontu galdezka. Besteak esateko pozak. Orrelaxe bukatu zuten beren aparia, akordatu gabe. Gaueko amarrak. Josepa asi zan esanez:

– Aizu: besteak ere zai egongo dira, Jose.

– Bai; goazen. Bestela ateak itxi egingo dizkigute –esan zion parrez.

Altxatu ziran. Urrengo egunerako lanak Josepak artu zituan bere gain: goizean etorriko zala kotxearekin esne billa kalera eramateko, lenago bezela. Baiñan lan geiago artu nai zituala.

Laster ziran beren baserrian. Zai zeuzkaten gurasoak, beste kontu batzuk esateko. Olakoetan ordu erdi bat laster pasatzen da. Amaiketan oeratu ziran.

Landare berria

URRENGO goizean, danak lanean: Jose, beiak jeizten; aita, janak ematen; Maria, gosari txikia prestatzen; etxekoandre berria, kalerako lane-tan. Bere ideak zeuzkan.

Ordura arte Markosen etxean *Gurelesa*-ri ematen zioten. Baiñan Josepak diru geiago nai zuan atera. Lenengo egunean zortzi litroko marmita artu zuan kalera eramateko, eta bere etxekoak beti bezela.

Artu zuan kotxea bere etxera joateko. Pronto zeuzkaten esneak eta zesto bat, bear ziranak ekartzeko.

Kalera iritxi zanean, bazekiten bera zala joatekoa, dozena bat esne-artzailleak an zeuzkan zai. Ango muxuak eta ongi-etorriak! Danekin goxatu bat artuta, asi zan beti bezela partitzen. Esaten zien:

– Geiago bear badezute, gaur badaukat.

Batzuek eskatu zioten litro bana geiago. Besteak esaten zioten:

– Nere bizi-lagunak ere artuko luke esne au.

– Esan biar izango dedala geiago.

Orrela egin zuan bi etxeetako esneak kalean saltzeko modua. Alde aundia zeukaten *Gurelesa*-ri eman edo kalean saldu. Ori ikusita zeukan Josepak. Lana egin bear. Ura, berriz, artarakoa izan.

Nola marmitak aundiak ziran, bere senarra asi zan kalera jeixten emazteari laguntzeko. Irabazi

aundia baizegoan kalean salduta; eta Joseparen anai zarrena etortzen zan Markoseri laguntzera lanak egiten.

Bi baserrietakoak fameli bat egin zan. Zer suertea dan ola bizitzea! Igande-arratsaldean alkarrekin meriendatzen zuten. Txandaka bilduko ziran iru senar-emazte gazteak kalean. Tertuli ederra egin. Danak meriendatu umore ederrean, eta arratserako bakoitza bere lanetara. Ori da pozez bizitzea.

Ala zijoazten illabeteak. Baiñan Josepak zeukan poz bat ezin gorderik barrenean, amari esan gabe. Sukaldean biak bakarrik zeuden. Asi zaio esaten:

– Ama, badaukat berri bat zuri esateko.

Ama konturatu zan zer izango zuan.

– Zer dezu, ba?

Biak erdi parrez.

– Lagun berriaren esperantzan nagoala.

– Jesus! Ondo etorri dedilla. Ez da gaizki artua izango. Zenbat denbora dezu?

– Lau illabete laster.

– Kontuz ibili beintzat.

– Bai. Orregatik esan nion Joseri laguntzeko, marmitak asko pisatzen dute ta.

– Bai, bai. Kontuz ibili, galdu gabe.

Bost illabeterekin joan zan sendagillearengana, begiratzer a ea ondo zeukan. Gustora bialdu zuan, esan zionean mutilla zeukala eta indar aundikoa. Etxera etorri laster. Esan zion amari:

– Semea daukat.

Amak parrez galdetu zion:

– Izena jarri al diozu?

– Ez, ama. Ori Jainkoari aurea artzea izango litzake.

- Bai. Egia da. Arrazoi dezu. Gero ere badago denbora izena jartzeko.

Orrela zebiltzan, senar-emazteak biak kalera joanez. Josek marmitak atera kotxetik, eta emazteak partitu. Bereala libratzen ziran. Lanak egin da etxerako bear ziranak artuta, laster ziran baserrian lanerako. An beti dago zerbait egiteko.

Batez ere, baratzan ari diranak. Egunero zerbait kalera eramango bada, jarri egin bear eta ondo zaindu. Lan asko du baratzak. Dirua ere andik dator.

Ola zebiltzala, iritxi zan semea munduratzeko eguna. Senarrari esan zion:

- Ni joan bearrean naiz. Au asi da atera naiean.

Pronto zeuzkan bear zituan erropak. Segituan gurasoei esan da atera ziran. Gaueko amabiak ziran, eta larri zijoan Josepa.

- Ez det denbora askoan zai egon bearrik izango -esaten zion.

Sartu orduko begiratu zioten. Segituan pasa zuten sala batera. Ordubete baiño len munduan zuten beren semetxoa.

Amak esan zien deitzeko sortzen zanean. Laster joan zan Jose. Emaztea ondo zegoala bere semearekin ikusi zuanean, deitu zuan esanez:

- Etxeko maiorazkoa badegu.

Amak etzuan denbora asko pasa telefonoa artzeko.

- Ondo al dira? -galdetu zion.

- Bai. Oso mutil ederra da.

Eta amak etzion geiago itzik egin. Pozez negarri eman zion. Laster joan zan Markosengana, malkoak sekatzuz. Ala ikusi zuanean:

- Zer dezu: okerren bat?

– Ez, gizona. Maiorazko berria badegula, eta biak oso ondo daudela deitu du Josek.

– Ondo dirala ta negar egiten al dezu? Sartu zaitetz oera, irurak dira ta, lo pixka bat egin dezagun.

Bereala ez; baiña, lasatu ziranean, artu zuten biak lo. Orduantxe ordu batzuk goxo pasa zituzten.

Josek ama-sembleak ondo utzita, etxera etorri zan ikuilluko lanak egitera. Ixilik zebillen. Lenago etzutela lorik egingo pentsatzen zuan. Beiak jetzi zituan. Janak eman ere bai. Gustora zebillen, ikusten zuanean lotan zeudela gurasoak.

Zortziak aldera konturatu ziran Jose lanak egiten ari zala. Laster zan ama sukaldean, eta galdezka:

– Nola utzi dituzu?

– Ondo. Biak lotan gelditu dira. Esan diot etxera etorri bear dedala lanak egitera, eta: “Bai; zoaz, Ni lasai nago nere mutikoarekin” parrez esan dit. Exerita nengoan; eta, lo artu duanean, ixilik atera ta alde egin diot.

– Gaixoak! Naiago nuke etxean baleude!

– Ama, laster dira, Jainkoak nai badu. Lasai egon. Orain kalera joan bear degu.

– Zeiñekin zoaz?

– Beste amak esan dit bera joango dala laguntzera.

– Bai; ondo. Bion artean errezago egingo dituzute.

Artu zituan etxeko esneak. Laster zan beste baserrian. Bere zai zeuden, pronto jarrita. Sartu zituzten ango esneak ere. Sartu ziran biak kotxean, eta kalera.

Danak an zeuden zer notizi eramango zuten. Esan zieten mutiko eder bat izan zutela. Poztu ziran danak.

– Noiz etorriko ote zaigu? –zioten danak.

Bereala esneak partitu ta enkarguak artuta, sartu ziran kotxean. Inaziren poza, bere alaba eta billoba ikustera salan sartu ziranean! Bere semeari bularra ematen ari zan. Ura elusioa egin zion! Eman zien laztan bana biei. Begiak ezin kendu txikiari. Ala esan zion Joseri:

– Ez daukazu ukatzerik. Au zurea da. Ondo iguala!

Josepak esaten zion:

– Nere antzik ez al du?

– Ez du inporta ori. Badakigu zurea dala.

Eman zion amonari besoan artzeko. Musu emanez, malkoak erortzen zitzaizkion, berari begira jarrita:

– Etzera mundu ederrera etorri. Baiñan guraso-en mende zeran artean, etzera gaizki izango.

Ori esanda, eman zion:

– Gorde zazu epelean, ezkutuan. Beste muxu bat eman bear diot.

Ala, utzi zion amari bere ondoan.

– Zer gustora eramango nukean!

– Laster joango gera.

Esaten zion amak:

– Orixe nai degu. Bueno, Jose: onek bazkaldu du. Goazen gu ere.

Baiñan Jose ezin partitu ama-semeen ondotik. Noizbait, biei laztan bana emanda:

– Gero arte –esan zion–. Beste ama ere ekarri egin bearko det.

– Bai, bai. Deseatzen egongo da. Seguru.

Ala etorri ziran. Lenengo, ama Inazi eramanzuan etxera. Felipe ere zai zegoan.

– Zer moduz utzi dituzute? –galdetu zien.

– Oso ondo daude. A zer mutilla dan! Aita iguala. Ez dauka ukatzerik. Ondo ezagutzen da zeinena dan, musu gorri-gorriekin. A zer maiorazkoa, suertarik badu.

Josek alde egin zuan, “Illuntzera arte” esanda. Bere gurasoak itxoitzen zeuden kontuak esateko.

– Zer moduz daude? –esan zion amak.

– Ondo gelditu dira. Bularra ematen ari zan. Nola tiratzen ziola, ama parrez zeukan, berari begira. “Nola tiratzen didan! Ederki ustuta utzi nau” –zion berak. Oso indarrean dago.

Orduan Markosek:

– Laster bei aurrean ibiltzeko moduan.

Eta Mariak:

– Bai. Biar goizean. Ondo bada, asiko da, bai.

Ortan ere kontuak esanez, bazkaldu zuten; eta Josek esan zion amari:

– Nik siesta pixka bat egin bear det, gauean ez det asko egin eta.

– Bai, bai. Zoaz.

– Zu pronto egon zaitetz, biok joateko.

– Bueno. Ondo da.

Ordu betean etzan esnatu. Señale zuan premian zegoala. Etorri zan sukaldera begiak garbituz.

– A zer gozatua artu dezun!

– Bai. Azkar joan da ordubete ori.

– Bearrean zeunden señalea.

Aitari galdetu zion:

– Jatenak bai al daude?

Eta aitak:

– Jatenak? Joakin emen izan da goizean. Arek ekarri du naikoa.

Eta Josek:

– Obe, ekarri baditu –esanda, atera ziran ama-
-semeak beste ama-semearengana.

Iritxi ziranean, an zeukan Josepak bere gazteta-
ko laguna, Maria ura ere. Zer ongi-etorria egin zioten
alkarri! Amak, beste amari bi musu emanda, galde-
tu zion:

– Nun dezu mutiko ori?

– Emen dago ixil-ixilik.

Lotan zegoan da etzan atrebitu esnatzera.
Tapakia altxa ta ikusi zuan. Ala dio:

– Au, orratik, Goikoetxeko arraza da, ondo igua-
la da eta.

Mariak, gaztetako lagunak, esan zien:

– Amarena ere izango du zerbait.

– Bai. Geiena orrena. Bederatzi illabetean orrek
mantendu du.

Danak parrez jarri zituan.

Gero Joseparen aizpa, bere urrengoa, zan joate-
koa. Arek ere ikusi egin nai. Lanetik ateratzean, an
agertu zan. Ura ere aizpari lepotik eldu ta begi
guziak bustita altxatu zan. Pozak biotza lertu araz-
ten du. Ari ere bai. Gero artu zuan illobatxoa beson-
an. Aren musuak goxoak ziran. Orra zer dan maita-
suna, gaur asko ez badago ere. Pena ematen zien,
baiñan bertan utzi bear gaua pasatzen. Josepa
beren aurrean bañuraino joan zan oso ondo.

– Biar etxera –esan zion Josek.

– Naiago nuke. Emen ondo nago, baiñan an
naiago nuke.

– Lasai, Josepa. Biar etorriko gera.

– Bai; etorri. Zai egongo naiz.

Danak musu bana eman zioten, eta an gelditu
zan bere puska pozgarriari begira.

Sarri etortzen zitzaion bertako gaixoak zaintzen zegoana. Oso ume-zalea zan. Ordu erdi bat pasatzen zion kontuak esanez. Errenterikoa bera ere, euskalduna.

– Orain lo pixka bat egin zazu –esan da alde egin zion–. Ezer bear badezu, deitu lasai. Etorriko naiz.

Gustora gelditu zan. Mutikoa lo zeukan. Berak laster artuko zuan.

Urrengo goizean, bi famelien poza bakarra zan ea illuntzean Goikoetxe baserrian danak biltzen ziran. Danak beren lanetan zebiltzan.

Aurreko egunean bezela, ganaduak jetzi zituan Josek. Aitak janak eman. Josek kotxea kargatu esnearekin, gosaldu eta Etxeberrira ango esnearen billa. Danak pronto zeuzkaten. Iñazi ere bai. Sartu zituzten angoak ere. Ama-suiak kalera.

Esne-artzailleak zai zeuden, geienak notiziak jakin naiean. Palta ziranak laster etorri ziran. Partitu ziran danak. Etxerako enkarguak artu zituan Iñazik, eta laster ziran ama-semeen ondoan.

Biak argi billatu zituzten. Josepak esateko zeukan bere notizia. Laster esan zien:

– Sendagillea emen izan det.

– Zer esan dizu? –galdetu zion amak.

– Oso ondo nagoala. Arratsaldean etxera, nai badet, joateko. Korrientea dagoan lekuan kontuz ibiltzeko. Ondo kaso egiteko nere buruari, eta seme-ari geiago, pixka bat gogortu arte.

Gustora zegoan Josepa. Bai besteak ere. Kontutan saio bat egin zuten. Josek esan zion:

– Bazkalondoan etorriko naiz beste amarekin.

– Ez du naiko –esan zion, parrez jarrita, Josepak.

– Bueno, gero arte –esanda, alde egin zioten, biak musu bana emanda.

Andik etxera, abiso onarekin. Josek ama eraman zuan bere txokora, marmitak bertan utzita. Laster zan bere gurasoekin. Jakin naiean zeuden zer berri zan. Amak:

– Zer esan dizute?

– Etxera etorri naiean dagoala. Bazkaldu eta joateko billa esan du, nai badezu?

– Arek geiegi daki deseatzten nagoala.

Ango kontuak esanez, irurak bazkaldu zuten. Josek siesta pixka bat egiteko oitura zeukan, eta amari esan zion:

– Ordubete barru pronto egon. Goizago ekarri bear degu.

– Ni noiznai prest nago.

Jose esnatu zanean, bereala atera ziran ama-
-semeen billa. Bai bestea ere prest jarrita bere prutua erakusteko. Artu zuan amonak bere billoba besoetan; eta Josepak senarrari besotik. Agurtu zituan koartoan lagundu zioten neskatxak. Laztan bana emanda partitu zan.

Kotxea gertu zeukan Josek. Sartu ziran laurak barrena. Laster ziran beren etxean. An ere zai zeuden gizaldi berriaren aiton-amonak. Kotxetik atera ziranean, eman zion aurra Mariari. Arek musu bat emanda, esan zion Markosi:

– Ara zure lenengo billoba.

Artu zuan besoan eta ala zion:

– Au gure arraza da beintzat. Ezin ukatu. Suerte onekoa izan dedilla.

– Bai. Orixe opa diogu.

Josek utzi zituan gurasoak eta emaztea, aurtxoari begira danak. Eraman zuan beste ama Etxeberrira, laster bueltatzeko berriz. Andik fameli osoa etorri nai zuten, mutil txikia ikustera.

Josek ikuilluko lanak egin zituan. Aitak jatenak eman zizkien. Amak aparria prestatu. Danak alkarrekin apaldu nai zuten, seme txikiaren etorrera omen-
duz. Etorri ziran danak. Gazteak oiñez. Gurasoak kotxean ekarri zituan Josek. Ango alaitasuna!

Josepak seaska berrian jarri zuan, dotore jantzita, danak eskuetan ez artzeagatik. Begiratzen zioten. Muxu bana eman da parrez berari begira.

Bi fameliak, alkarrekin bilduta, apari pozgarria izan zuten, gizaldi bat geiago bazala Goikoetxea baserrian esanez.

Andik aurrera, bi fameliak alkarri lagunduz bizi ziran. Igandeetan iru senar-emazteak biltzen ziran alkarrengana: jai batean Etxeberrin, bestean Goikoetxean, naiko kontuak esanez. Meriendatu ederki ta bakoitza beren lanetara. Olaxe izan zan beren bizitza.

Gizaldi berria

SEMEA azi zuten Aitor izenarekin. Gero bigarren semea sortu zan bi urtera. Etziran asarre, laguna bazuala Aitorrek esanez. Azkenik alaba izan zuten. Amona Maria poztu zan, laguna bazutela esanez. Txikiak azten, gurasoak urtetan gora, leku danetan bezela.

Aitor, eskola pixka bat ikasita, baserrian lanean. Bigarrena, karrera egin naiean. Mekaniko oso azkarra zan. Urterik utsegin gabe bukatu zuan. Asi zan lan billa. Lagun onak ere bazeuzkan Errenterian. Esan zion bati ea lantokirik bazekian iñun.

– Zer lanetarako nai dek?

– Mekaniko ikasi det.

– Galdetuko diat Papeleran bear duten.

Urrengo igandean, bazekian zer meza entzuten zuan eta jetxi zan –lenago ez det esan, Luis jarri zioten izena– ea topo egiten zuan lagun ori. An billatu zuan. Bera etorri zitzaion erdi parrez.

– Lanerako gogorik bai al daukak?

– Bai. Orregatik esan nizun.

– Ba, biar joateko zortzietarako. Baiñan sei illa-beteko, pruebarako. Ondo portatzen baaiz, orduan betiko.

– Alegiñak egingo ditut.

Baxoerdibana artu zuten, da ala partitu ziran. Luis gustora joan zan etxera, danei esatera lana bazuala. Gurasoak ere poztu ziran.

– Ala ere, ez da ezer billatu dezunean –zion amak–. Gaur ez da errez ori topatzen.

Ala, asi zan pozik.

Gero, arreba Miren orduantxe bukatzen karre-
ra: *secretaria de dirección*. Urrena lana nai. Anai
Luisi bururatu zaio Papelerako enkargatuari galde-
tzea ea palta al duten emakumerik ofizinarako: bere
arreba karrera bukatuta dagoala, sekretaria, lanik
gabe.

– Uste det artzeko idearekin dirala. Esango zioat
–esanda, alde egin zion.

Andik bereala zetorren beragana parrez:

– Ez dek suerte txarra izan: biar goizean etor-
tzeko. Orri deitzen zaio suertea.

Eguerdian etxera joateko aren poza, danei esa-
teko. Iritxi orduko, amari esan zion:

– Biar Miren lanera joateko.

– Lanera? Nora?

– Papelerara.

– Nolaz, ba?

– Nik galdetu diot lanik bai al dagoan. “Ofizinan
uste diat bear dutela” esanda, joan da laster etorri
zait parrez, “Suerte ederra izan dek” esanez. Eta biar
joateko probarako.

– Ori dek senideak maite izatea!

Amak deitu zion:

– Miren, atoz!

– Zer da?

– Entzuiozu Luisi.

– Zer?

– Biar lanera joateko.

– Nora?

– Papelerara.

- Nolaz?

- Nik galdetu diot ea palta al duten. Joan da galdetzerara. Biar joateko esanez etorri zait.

Eldu zion lepotik. Aren musu gozoak! Danak jakin zutenean, ura bazkari pozgarria izan zuten! Berriz lanera gustora jetxi zan Luis.

Urrengo goizean biak batera sartu ziran. Antxe lana egin zuten urte askoan. Oso senide maiteak ziran.

Aitor nola baserrian bizi zan, arek ere emaztea artzea pentsatu zuan. Etxean esaterako bazebillen. Lenengo amari esaten zaizkio olako kontuak. Arek laster pasatzen die danei.

Lenago famelia justukoa zan; lagun gutxikoa. Orain lasatu. Baiñan danak gustora bizi ziran. Jarri zuan eguna alkartzeko, nola etzeukan bizilekua billatu bearrik. Onek Oiartzundik ekarri zuan. Maria Isabel bere izena.

Garizuma bukatu zai egon ziran. Pazko-egunean ezkondu ziran. Gaur edozein egunetan esposatu liteke. Dana libre jarri da. Bazkaria Oiartzungo Zuberua jatetxean jarri zuten. Lengo boda maiorazkoarena zan. Oraingoa ere bai. Egun ederra pasa ta etxeratu ziran.

Ezkonberriak arratsaldeko seietan zeuzkaten egazkiña Gasteiza joateko. Urrengo egunean estranjeri aldera. Etxean jende asko nola zegoan, etzuten presarik bueltatzeko.

Besteak goizago etxeratu ziran beren lanak egitera. Anai-arrebak lanean. Luisek ere bazeuzkan bere buruausteak. Egun batean esan zien aita eta aitonari: beti etxean zebillela laguntzen lanean. Orrela segi nai zuala, inguruan bizituz. Eta etxe txiki bat egiteko tokia emango al zuten; eta aitonak erantzun zion:

– Lurra bakarrik ez. Egiten lagundu ere bai al dana.

Aitak orduan:

– Gure ondoan bizi nai badek, ez dek etxea asko ordaindu bearrik izango.

Aita-semeak oso ondo artu zioten bere gogoia. Etzeukaten baztartuta uzteko.

Ustegabeko eskeintza

GERO Miren zeukaten gazteena. Txintxo ari zan dirua sobratu naiean. Ain zan goxoa izketan, edozeiñi itza emango zion. Bazeukan andre bat beti itzegiten ziona. Miren atera bear zuan ordurako, an zebillen paseatzen. Besteak nola nai zion ainbeste, parean gelditu egiten zan berarekin. Egun batean eskatu zion ea eseriko al ziran.

– Bai, bai. Pixka batean beintzat.

Gustora gaixoa. Zerbait esan nai. Galdetu zion ea zein baserritakoa zan.

– Ni Goikoetxekoa.

– Orduan Markos ta Maria zer dituzu?

– Aitona eta amona. Ezagutzen al dituzu?

– Jesus! Nola ez? Meza nagusira etortzen ziran beti orain urteak aiek ere, ni bezelaxe.

– Bai. Asko bajatu dira.

– Bueno, biar ementxe egongo naiz.

Ola partitu ziran. Urrengo egunean an zegoan Mirenen zai. Jarri ziran eserita. Asi zitzaion galdezka ea zer pameli ziran; nun lana egiten zuan. Azkenean esan zion bakarrik bizi zala; lau seme-alaba izan zituztela; danak ondo bizi zirala; ezkondu ziranetik etzutela ezer jakin nai; senarrarekin bizitu zala ogei bat urtean; bi urtean bakarrik bizi zala; berarekin bizi nai bazuan, zeukan pisua merke emango ziola.

– Etxean egon eta biar esango dizut.

Etxera joan da esan zien. Amak laister eman zion baimena:

– Arekin bizitzen baaiz, arek ez din dirurik eskatuko. Gelditu adi biar bertan.

Urrengo goizean gustora joan zan. Bazkaltzera etorri zanean, ama zai zeukan, ezeren berririk ba ote zuan. Etzuala ikusi esan zion.

– Gauean lo egin zan berarekin.

– Ori nai du. Kale Biterin omen dauka bigarren pisoa. Ederra omen da.

Arratsaldean zai zegoan noiz ateratzen zan.

– Bazatoz? –esan zion.

– Bai; gaurko lana bukatu det.

– Eta zer notizi dakartzu neretzako?

– Ustez ona. Zurekin gaur lo egiteko esan dit amak.

– Jesus, gure Jaungoikoa!

Lepotik eldu ta musu eman zion, begietan bera malkoak ixuriz pozarekin. Segituan altxatu zan.

– Goazen etxera. Meriendatu egin bear degu.

Gertu zeukaten. Lenengo sartu zan arategian. Eskatu zion urdaiazpikoa berreun gramo; gero bi xerra samurak. Pozez beterik esan zion arakiñari:

– Neska auxe datorkit nere bizi-lagun.

– Bai? Ez da gaizki izango zure ondoan.

– Ez det uste –zion Manuelak, ala zuan izena eta.

Eldu zion besotik Mireni. Biak kontutan alde egin zuten. Beste emakume bat sartu zan barrena. Galdetu zion arakiñari:

– Manuelak zein zuan neska ori?

– Berarekin bizitzera datorrena.

– A zer suertea izan duan!

Eta arakiñak:

- Bai orixe. Ondo biziko da gaiñera. Orren pisa beretzat, sosik ordaindu gabe, orri ondo laguntzen badio, bizi dan arte.

- Arrapa zak anketik! Kale Biterin dagoan bizitarik ederrena neska orrek. Manuelari pameli txarra atera zaio.

- Txarra? Gaiztoa! Ez da berdin. Utsa zan bera gaizkille bat izan balitz. Oberik ez da posible. Besteak suertea izan du.

- Bai neska ederra. Nungoa ote da, Patxi, ori?

- Zuk ezagutzen dezu orren pamelia. Goikoe txeko Markos?

- Bai.

- Maria emaztea?

- Bai.

- Aien billoba, Jose eta Joseparen alaba.

- Orduan orixe da bizitza orren jabe egingo dana.

- Aizu: merezi du. Idea onarekin dator. Ondo aterako da. Baiñan laguntzera etorri zaio ori. Santa bat da neska ori. Izango ditu orrek zeïnek begiratuak.

- Bai, Patxi. Len ere ondo ikusia egongo zan Miren. Laster du batenbat segika.

- Suertea izan dezala.

- Bueno, agur, Patxi.

- Bai. Biar arte.

Bi bikoteren tratua

ATSEGIN aundia zan Mirenen etxean. Suerte orrekin danak aztu eziñik. Luis zebillen poza gordean ezin edukirik. Miren bere koartora sartu zan. Luis atzetik joan zan. Parrez asi zitzaion:

– Zer dek parrez jarrita?

– Iretzako kontu bat.

– Ona al dek?

– Ustez bai.

– Zer dek, ba?

– Jose Marirekin egon naun kontutan gaur. Esan zionat nola asi aizen Manuelarekin lo egiten, ari laguntzeagatik: “Daukan pisoa merke emango diola esan zio, eta lotan gelditu dek”. Eta “Ori dek suertea izan duana” esan din. Jarri den lurrera begira pentsatzen: “Aizak, Luis: bai al dakik zer pentsatzen nagoan? Ni Mireni esateko idean nitxoan, pisoaren esperantzarik gabe. Orain, berriz, doble suerte biontzat. Nai badu nerekin bizi...”. “Biar ementxe izango dek –esan zionat–. Nik jakiñaren gaiñean jarriko diat”.

Miren, kontu oiek entzunez, parrez zegoan. Onela esan zion:

– Zuek nerekin tratua egiten?

– Aizan: ez den mutil txarra.

– Ez. Bazekiat ori. Neri etortzen bazait, etzioat ezetzik esango. Nun bizia nik bazeukeat.

– Orregatik zebillen orain presaka, besteren batek itzegin baiño len esateagatik.

– Ori suerte aundia izan den.

– Bai, motell. Gustora negok.

– Bueno, beste berri bat eman bear diñat.

– Gaur kontu asko ekarri dituk.

– Au ere ona den neretzat.

– Ea zer dean.

– Iregatik itzegin genduanean, nik ere nere a gogoan, eta esan nitxonan: “Nere arreba artzen badek, koiñado egingo gaituk. Baiñan nik bi aldiz koiñado egitea nai nitek”. “Nola?”. “Ire arrebarekin ni ezkondata”. “Aizak: iregatik galdezka sarri egoten zaidak. Ez diat uste ezezkorik emango duanik. Gaur tentatuko diat. Baiñan pentsatzen diat poza artuko duala”. Ortan gelditu gaitun.

– Bai, bai. A zer tratanteak zuek biok. Deituko zioat Mari Isabeli nere etxera etortzeko. Zuek, nai badezute, etorri. Bestela, or konpon –parrez esan zion Mirenek.

Urrengo goizean Jose Mari zai zegoan Papelera-ko atean. An agertu zan gure Miren ori, eskua luzatuz. Besteak lepotik eldu ta bi laztan goxo eman zizkion.

– Alkarrekin bizitzeko al gera biok? –galdetu zion Jose Marik.

Eta Mirenek:

– Zuk nai badezu...

Beste bi musu alkarri emanda, lanean asi ziran gustora. Luis begira zegoan leio batetik. Konturatu zan alkarri baiezkoa eman ziotela. Gero, joan zan Jose Mari Luisengana, arrebak zer esan zion esatera.

– Kontatu nitxoan gure izketa. Arrituta gelditu uan.

– Ori dek suertea. Neska alakoa dek. Eta pisoa, Errenteriko Kale Biterin, azkenean iretzat. Zerria!

Etxera joan zanean, Jose Marik kontatu zion dana bere arreba Mari Isabeli. Eta gero:

– Iretzat ere bazeukenat.

– Ara! Neretzat ere bai? Pisoa duana?

– Bai. Eder askoa, gaiñera.

– Bazekiat zein izango dan piso ederra daukana. Irekin lanean dabillena izango dek.

– Nundik asmatu den ik ori?

– Berarekin pentsatu diat bein baiño geiagotan. Zai nengoan nerekin akordatuko ote zan.

– Ba, ire zai zegon.

Lepotik eldu ta musu ematen zion Mari Isabeli.

– Orduan badakin: datorren igandean laurok aterako gaitun. Deituko din Mirenek.

– Aizak: ni gustora negok. Baiñan gurea kostata egiña dek; eta irea, ori dek suertea!

– Bai. I ere baengoken ixilik.

– Ez, motell. Pozez txoratzen nerearekin.

Igandea etorri zai, an bildu ziran laurak Kale Biterin.

Mirenek kontatu zizkion pasadizo guziak Manuelari: nola senargaia zuan, eta anaia bere lagunaren arrebarekin.

– Gaur asten gera laurok.

– Nun bildu bear dezute?

– Neri deituko didate.

Orduan Manuelak:

– Orraztu nazazu pixka bat. Bera jetxi bear det danak ikustera.

Jarri zan pozak, pamelikoak balira bezela. Deitu zuten betik. An jetxi ziran biak elusioz beteta. Artu zuten danak musuka, beren gurasoa balute bezela. Mirenen senargaiak esan zion:

– Gurekin joan bear zenduke.

Aren poza! Beren ama bezela artzen zuten. Orduan esan zien:

– Illuntzean, Miren etxera datorrenean, etorri laurok gora, trago bana egitera.

Parrez alde egin zioten danak. Ura gustora gelditu zan. Besteak ere bai. Bi bikote maiteminduak lenengo aldiz atera ziran, Miren pisoaren jabe egin zalako.

Oiartzun aldera abiatu ziran. Zer arratsalde goxoa zuten danentzat. Buelta ederra eginda etorri ziran Errenterira. Musika ari zan. Mirenek esan zuan:

– Dantza egingo al degu?

– Ez degu aurrenekoa –Jose Marik esanda, asi ziran besteak ere.

Bai; etzuten asko pentsatzen lengo igandean, gaur maiteminduta dantzatu bear zutenik. Alaxe gertatu da. Illunabarrean galdetu zuan Jose Marik:

– Gora igo bear al degu?

– Bai, bai. Ikusiko dezu nola poztuko dan, agertzen geranean.

– Neri ez dit ajola, zuk nai badezu.

Besteei esan zien Mirenek. Mari Isabel lotsatu egiten zan. Luisek esan zion:

– Berak esan digu. Ez bagera joaten, pena artuko du. Baxoerdi bana ematen badigu, ura geiago.

Sartu ziran barrena. Mirenek txintzarria jo zuan. Laster zan gazteei begira. Aren poza, beragana

zijoazela ikusita! Sartu zituan eta, lenengo, etxea erakutsi. Luisek esaten zion:

– Iretzat, Jose Mari.

– Dotoregia ere badek au. Sinistu eziñik negok, ni etxe ontan bizi bear dedanik.

Mirenek orduan:

– Nerekin bizi nai badezu, emen bearko dezu.

– Zu ez uzteagatik jarriko naiz.

Manuelak aiek algarak egiten zituan! Danak arrituta, alako etxea nola jarrita zeukan, bakarrik bizita.

Eraman arazi zituan sukaldera. An zeuzkan, maiaren bueltan, exerlekuak jarriak. An zeuzkan ogia, gazta, ardoa bi gizonentzat, eta emakumeei txokolatea eginda, pastel batzuekin; eta edateko, garai artan bazan boladua deitzen zitzaion, azukrearekin egiña, boillo txikia bezelakoa. Bi mutillei esan zien:

– Artu bildurrik gabe.

Luisek esan zion Jose Mariri:

– Baldin etorri ez bagiña, zer naigabea Manuelak!

– Bai, motell. Bere denboran gogoan izango zian. Etorri geralako, bera gustora; eta gu ere bai.

Orrela meriendatu zuten, kontu batzuk esanda. Musu bana eman ez agurtu zuten. Miren berarekin gelditu zan gaua pasatzeko. Gustora zegoan Manuelak, danak bisitatu zutelako.

Biak apaldu zuten kontuak esanez, eta lotara. Urrengo goizean lanera joan bear Mirenek. Laster ziran biak lotan.

Urrengo goizean jeiki ta kafea berotuta, eraman zion oera Manuelari. Laztan bat emanda, onela esan zion:

– Lasai egon zu. Ama etorriko da litro bat esne-
rekin.

Poza artu zuan Mirenen ama ezagutzeko. Laster
jeiki zan oetik. Ekin zion salda preparatzen Jose-
parentzat. Amaiak aldera txintxarria jo zuan betik.
Laster iriki zion atea, eta goitik begira parrez. Iritxi
zanean, lepotik eldu ta musuka artu zuan:

– Zu al zera Mirenen ama? Ez naiz arritzen ona
izatea, olako alaba daukazunean.

– Ona? –galdetu zion.

– Santa bat. Zure alabak, goizean, kafea berotu
ta oera eraman dit.

Sartu ziran barrena. Erakutsi zion etxe guzia.
Arrituta gelditu zan zeukan bizitzarekin. Sartu ziran
sukaldean. Eman zion botilla bete esne.

– Alabak esan dit ekartzeko.

– Bai. Esan dit etorriko zerala. Eskerrik asko
esneagatik. Baiñan poz geiago neukan zu ezagutze-
ko. Jarri eserita. Salda pixka bana artu bear degu
biok.

Atera zituan ogi-koxkor banarekin, eta edateko
kopa bat bermuta; eta Josepak:

– Baiñan mozkortu egingo naiz.

– Onekin? Ez, ez. Ori gutxi da –esaten zion.

Zer gustora pasa zuten ordu erdi bat. Josepak
presa zeukan etxera joateko. Laster alde egin zion,
musu bat emanda.

– Biar arte.

– Bai; etorri. Zai egongo naiz –esan zion goitik.

Gustora egon zan berari begira atera arte. Zer
atsegiña dan maitasunezko bizitza!

Gero Miren etorri-zai, beste kontu aspertu bat
egiteko. Baiñan oraindik etzegoan gustora. Pentsa-

tuta zeukan Mireni zer esan eguerdian. Etorri zanean, laster esan zion:

– Zure senargaia eta anaia biar bazkaltzera guregana etortzeko esan.

Mirenek, parra egiñez, esan zion:

– Lan geiegi artuko dezu.

– Ez, ez. Pozik egingo det lan ori. Zuk gaur esan biei. Askoz erosoago daukate.

– Bai. Alde ederra. Ordu erdi bat bear dute etxera joaten, eta onera bost minutu. A zer poza biak ere!

– Zuk esan aztu gabe.

Bazkaldu ta sukaldea jaso zuan. Mirenek kontutan lagundu zion pixka batean. Gero, Miren lanera eta Manuela kuluska bat egitera epelean.

Miren Papeleran sartu zanean, bi koiñadogaiak zai zeuden. Ezeren berririk ote zuan galdetu zion Jose Marik:

– Notizirik bai al dakartzu?

– Bai. Ona, gaiñera.

– Zer da, ba?

– Biar bazkaltzera joateko biok.

– Beragana? –esan zion Luisek.

– Bai, bai; beragana. Naiako nitek emakume ori ilko ez balitz.

– Eta ara joan bear al degu? –galdetu zioten Mireni.

– Aisa. Dударik ez egin. Bestela, aren pozak bukatuko dira.

Biak parrez lanean asi ziran. Illuntzean, atean itxogin zioten Mireni, esateagatik lan asko izango zuala laurentzat bazkaria jartzen. Baiñan Mirenek ere naiago zuan alkarrekin jatea, bakarrik baiño. Esan zien:

– Nik lagunduko diot goizean preparatzen. Dana jarri ta gero berak berotuko ditu.

Ura esan zuanean Mirenek, gustora gelditu ziran.

– Alde ederra guretzat. Beragana joan bear degu.

– Goazen kontu batzuk esanez.

Orduan Luisek esan zion arrebari:

– Aizan: guri bazkaria jartzen badigu, dirua guk emango zionagu gauzak erosteko.

– Orrekin moldatuko gaituk.

An sartu ziran irurak barrena. Telebisioari begira zegoan Manuela. Uste zuan Miren bakarrik sartu zala. Mutillak ikusi zituanean, aren poza! Laster etorri zan ara, esanez:

– Nere koadrilla! Neroni lasai nengoan. Jarri eserita.

– Bai; gu etxera joan bear degu.

– Joango zerate trago bana eginda.

Atera zituan ogia eta gazta, eta botilla bat ardo. Mireni:

– Zu etxekoa zera. Artu. Badakizu nun dauden.

– Bai; zu eseri –esan zion.

Arek gozatzen zuan ematen. Luisek esan zion:

– Aizu, Manuela. Mirenek esan diguna: zuretzat lan geiegi izango da laurontzat bazkaria jartzea.

– Ez, gizona. Onek esango dit zer jarri, ta nik pozik jarriko dizuet. Lasai etorri danok. Bazkalduko degu.

Uste bezela, meriendatu zuten ederki, eta beren senideei laguntzera aldegin zuten bi mutillak. Besteak an gelditu ziran pozak.

Urrengo egunean, mutillak ala zioten alkarri bidean:

– Ik bai al dakik zer alde degun etxera etorri edo an gelditu, udaran egiten duan beroarekin? Neguan, berriz, askotan eraso galantak. Batetik ori; eta denbora, bost minutu naikoa. Alde ederra guretzat. Emakume gaixoa ori! Ori dek diruarekin ordaintzen ez dana.

– Bai, motell. Suerte txarrak eta onak zelebren sortzen dituk. Ori dek eskura etortzea.

Orrela iritxi ziran partitu bear zuten tokira. Etxera joan da bazuten zer kontatua. Amak esan zion:

– Gaur berandu.

Eta Luisek:

– Bai; baiñan gustora.

– Zer, ba?

– Ederki meriendatuta.

– Zeiñek eman dizute?

– Manuelak.

– Ara! Gaur ere ba al zenduten zerbait?

– Bai. Biartik berarekin bazkaltzera joateko abisatu digu Mirenekin. Orregatik joan gera beragana, lan asko izango duala beretzat esatera. Baiñan alperrik. Biak nai dute ta guretzako obe. Zuk badakizu zer alde dan?

– Bai orixe. Ordu erdiko bidean etorri-edo, alde ederra.

– Esan diogu Mireni lan asko artuko duala. Manuelak berak nai zuan laurok bazkaltzea. Suerteola etorri bear du.

– Bai. Gure etxera beintzat etorri da.

– Eta Jose Mari erotzen dago.

– Ez da arritzekoa. Badakizu zer dan olako piso-arekin? Eta ez gurea dalako. Zer neska artu bear du? Gustora egon liteke ura.

– Zu ere bai; suerte ederra dezute, nik bezelaxe.

– Biar orduan gauera arte.

– Ondo portatu beintzat Manuelarekin.

– Bai; merezi du.

Urrengo eguerdian irurak batera Manuelarengana. Madalen-pestak arentzat. An zegoan maia jarrita. Sartu ta lenengo muxu bana berari. Orduan Mirenek esan zion:

– Zu eserita jarri. Bazkaria nik aterako det, badakit zer dagoan da.

Danak, kontuak esanez umore ederrean bazkaldu zuten. Luisek ala zion:

– Alde aundia zegok bidean ibili edo ola lasai bazkaltzen, batere nekatu gabe.

Ordubete kontutan pasa zuten, eta lanean aste-ko bapo. Manuelari siestara joateko esanda, irurak lanera joan ziran.

Era ortantxe pasa zuten urtebete, alkarri lagun-
duz. Igandero bixita egiten zioten laurak, uraxe nai zuan da.

Eztaiak

ASI ziran alkarri esaten ezkondu ere egin bear-ko zutela. Luisek atera zuan lenengo itza. Besteak ere baiezkoa eman zioten. Neskak:

– Zuek esatean, gu prest gaude –parre egiñez.

Itxura danez, bi mutillak itzegiñak zeuden. Berriro Luis asi zan aurrerabidea ematen:

– Noizko jarriko degu eguna?

Mari Isabelek:

– Zeiñentzat? Guk pentsatu degu egun batean egitea bi bodak, meza batekin.

– Naiko al du apaizak?

– Bai, emakumea. Gaur dana libre dago.

– Nik naiago –esan zion Mirenek.

– Orduan datorren Pazko-egunean, eguerdiko ordu batean.

Besteak:

– Oso ondo –esan zioten.

– Eta bazkaria nun jarriko degu? Jende asko izango gera.

– *Versalles* jatetxean leku aundiak daude. Azkar ibili bear, besteak artu baiño len.

– Gaur bertan goazen. Oraindik denbora bada-go. Paseatuz laster gera.

Sartu ziran barrena. Zerbait artzeko eskatu zuten, eta esan zioten nagusiari. Onek galdetu zien

zenbat lagun izango ziran. Bi boda zirala batera. Eun da berrogei ta amar gutxienez izango zirala. Zer jartzea nai zuten. Ori emakumeen esku utzi zuten. Laster erabaki zuten.

Bueltakoan, jakiña, Manuela bisitatzera sartu ziran. Pozaren pozez ura atera. Gustora artu zituan. Esan zion Mirenek:

- Gaur kontu asko ekarri degu zuri kontatzeko.
- Zer dezute, ba? Onak?
- Bai. Oso onak.
- Ea, ba, zer kontu diran.
- Laurok ezkontzea pentsatu degu.
- A! Ori bidezkoa da. Pentsatzen nuan etorriko zala. Noizko dezute egun ori?
- Urrengo Pazko-egunean.
- Oso ondo. Eta bazkaria?
- Oraintxe izandu gera *Versalles* jatetxean.
- Agindu al dizute?
- Bai. Izango dala esan digu. Orain apaiza palta degu.
- Ba, ori seguru dago.
- Errenteriko Zaindaria nola Magdalena dan, ermita ortantxe ezkondu nai genduke -esan zion Mirenek.

Orduan Manuelak:

- Aizu: biar nik esango diot erretoreari. Oso eza-guna det. Gustora artuko nau. Zer ordutan dezute?
- Ordu batean.
- Esango diot.

Ikusi zuanean, oso ongi-etorri ona egin omen zion apaizak. Esan zion zertara joan zan, nola nai zuten anai-arrebak beste anai-arrebekin ezkondu, Magdalena ermitan, Pazko-egunean.

- Zurekin nai luteke. Egiterik bai al dezu?

- Bai, emakumea. Pozik, gaiñera. Gaur eleizara esposatzera datozenak poza ematen dute. Oiei lagundu bearra daukagu.

- Eskerrik asko -esan zion Manuelak.

- Ez orregatik. Esaiezu bezperan etortzeko illunabarrean, galdera batzuk egiteko.

- Bai; esango diet.

Gero galdetu zion:

- Zein dituzu oiek?

- Neska bat da nerekin bizi dana, eta bere anai beste anai-arrebekin. Goikoetxeko Markosen billobak.

- A, bai. Jakiñaren gaiñean nengoan zer suertea izan dezun; eta berak ere bai zurekin. Kontatu zizkidan Patxi arakiñak zure kontuak. Arek goratzen zaitu. Baita etxean daukazun neska ori ere. Santa bat dala esan zidan; eta bere senargaia ogi-puska bat.

- Zer suertea izan dedan nik azken urteak pasatzeko! Txoratzen bizi naiz. Eguerdian nere etxean bazkaltzen dute. Zer alaitasuna neretzat, aien ondolan egunero!

- Bai, bai. Ola obe dezu. Agur, Manuela -esanda partitu ziran.

Baiñan beste lan bat bazeukan Manuelak: etxearen eskriturak Mirenen izenean jarri nai. Bereak artuta joan zan notarioarengana. Esan zionean zer idea zeukan, Mirenen karneta eramateko esan zion. Gauean eskatu zion. Segituan eman zion Mirenek. Pentsatu zuan zertarako izango zan.

- Biar emango dizut, paper batzuk eginda.

- Bai, bai -esan zion.

Besteak urrengo egunean bazkaltzera etorri ziranean, esan zion:

– Lanetik ateratzean paper bat firmatzera joan bear degu biok. An itxoingo dizut bidean.

– Nai badezu etxean egon, oztu gabe.

– Ez du otzik egiten.

Esan bezela, Zai zegoan. Gertu zeukaten notarioa. Sartu ziran barrena. Segituan artu zituan. Biak pirmatu zuten. Irakurri zien aurretik. Eman zien kopia bat. Orijinala Registroan pasa bear zuala, eta jessoritik bialduko zutela zenbat diru ordaindu bear zuten. Lengo eskriturak eta berriaren kopia artu, karneta ere bai, eta atera ziran. Bera jetxi ziranean, lepotik eldu ta musuka artu zuan Mirenek:

– Nik zerekin ordaindu bear dizut? –esaten zion.

– Ni gustora nago zuk egiten didazunarekin.

Eldu zion besotik eta biak, kontuak esanez, etxeratu ziran.

Manuelak ordaindu zituan eskriturak. Jessoriko gastuak ere bai. Sosik kosta gabe egin zan Miren milloi asko balio zuan pisoaren jabe. Obra onak egin naiak sortu zizkion ondasun danak. Jainkoa beti ematen ari zaigu. Ori beti gogoan eduki dezagun.

Iritxi zan Pazko-eguna. Danak zai zeuden egun orri. Bildu ziran Magdalen ermitara. Dana jendez beteta zegoan. Iritxi zan bikario jauna. Artu zituan ezkongaiak beren lagunekin. Itzegin zien gozo asko. Eman zien meza. Berak beren galderak erantzun ere bai. Laster ziran kanpoan.

Trago bana artuta, geienak kotxean, besteak oiñez. Bide gutxi zegoan gazteentzako. Ezkonberriak argazkian *Ezgar* etxean.

Geienetan bezela, aien zai bazkaltzen asteko. Egun ori berena dute. Bizi guzirako oroigarriak izaten dira egun ortakoak. Laster ziran maiean.

Bikarioak bedeinkatu zituan janak eta edanak. Ekin zioten jaten.

Mirenek bere ondoan artu zuan Manuela. Gutxiagorik etzuan merezi. Jatetxeak oso ondo eman zuan. Azkenean, jakiña, tarta. Ura partitu, musu bana alkarri, eta musika maia alaitzeko. Kafearen ondoren, berriz musika. Orduan ezkonberrriak asi bear. Lenengo saio bana egin da laster, Mirenek agurtu zuan Manuela, lasai egoteko esanez. Gero gurasoak. Laster aldegin zuten.

Jose aitak etxera eraman zituan lenengo arropak aldatzera. Gero Bilbora, egazkiña artzera. Ondo iritxi ziran. Laster altxatu zitzaien Madridako bidetan. Gaua *Hotel Barajas*-en zeukaten eskatuta.

Urrengo goizean, lenengo Brasil. Gero iru bat nazio pasatu nai zituzten. Amabost egun zuten beren idea. Deitzen zuten nun zebiltzan. Azkenean aitari deitu zioten, urrengo larunbatean, gaueko amarretan, Bilbon izango zirala.

Jose zai zegoan, etorri ziranean. Laster ziran etxean. Baiñan Miren etzegoan lasa, bere Manuela ikusi arte. Amak esan zion egunero aren etxean lo egin zuala.

– Gauean, etxeko lanak eginda, beragana joaten nintzan kotxearekin gaua pasatzera. Aren poza ni agertzean. Litro bat esne eramaten nion. Kontu batzuk esanda, biok lotara. Goizean jeiki ta kafe piska bat eramaten nion. An uzten nuan oean goxogoxo. Ni, kotxea artu ta etxera, gero kalera joateko. Orrelaxe ibili gera, eta pozik, berari laguntzeagatik.

Mirenek aitari:

– Joan egin bear degu.

– Bai. Nai dezutenean.

Etxeko danei “biar arte, agur” esanda aldegin zuten Manuelarengana. Sartu ziran ixil-ixilik, giltza Mirenek zeukan da. Telebisioa kontutan ari zan.

Baiñan alperrik: Manuela loak artuta. Besotik eldu zion Mirenek. Esnatu zan. Aren poza: irurak berari begira.

Ongi-etorri bana egin zien. Laster asi zan zer nai zuten esanez. Etzutela ezer nai.

– Nekatuta gaude eta oera joan bear degu.

Aita, Jose, irten zan etxera. Beste irurak lotara. Mirenek lagundu zion Manuelari bere koartora. Muxu bat eman zion da “biar arte” esanda utzi zuan. Miren da Jose Mari koarto berria estrenatzera sartu ziran.

Urrengo goizean, beti bezela, kafea artu ta sartu zan Manuelarengana.

– Egun on.

– Bai zuri ere.

– Ondo lo egin dezu?

– Bai. Eta zuek?

– Guk ere bai.

Berriz bildu ziran lau pameli osoak nor bere etxetan. Alkarri lagunduz, zorion osoan amar urtean danak bizitu ziran.

Aurkibidea

Itzaurrea.....	7
----------------	---

Ganadu-tratuak

Bitori eta Burgoseraiño	13
Txerri-tratua.....	19
Iru tratante.....	29
Tratanteak.....	37
Inazio Iturriotz.....	39
Aldaketa	41
Auzoko napar txerrizalea	47
Gogo txarreko tratua	53
Errijoa	65
Asto-tratuak	77
Ordizin erositako beia.....	95
Londresko beiak	105
Kontuz ibili bearra	111

Ezkontza-tratuak

Perira	117
Tratu berria.....	129
Bi familien poza.....	133
Alkarren etxean sartu.....	139
Prestaketak	149
Eztaiak	161
Ibillaldia	163
Landare berria.....	177
Gizaldi berria.....	187
Ustegabeko eskeintza	191
Bi bikotereren tratua	195
Eztaiak	205

**Auspoa-ren azken
liburuak:**

261 Manuel Lasarte: *Uztapide
gogoan*

262 Antonio Zavala: *Auspoaren
auspoa, III*

263 Antonio Zavala: *Oiñez eta
jakin miñez, II*

264 Joxe Mari Aranalde: *Bertso
kontuak*

265 Bizente Barandiaran:
Tratabideak

266 Sor Justina Aldalur: *Ama
Birjiñaren bizitza*



1051103

G-129/14



Tratua nai ta naiezko gauza da gizakiarentzat. Bata-bestearekin artu-emanetan asi bakoitzean, artan ari gera noski. Baiña oietako bi oso bereziak dira baserritarrentzat. Bata, ganadu-tratua, abereak ere bizi-lagunak baitira aren etxean, au baserria izango bada. Eta bestea, ezkontza-tratua, bikote berriak baserriaren martxa aurrera eraman dezan.

Oietxek dira, bada, Bizente Barandiaran adiskidearen liburu berriaren gaiak. Leenengo zatian, berak edo bere ingurukoak egindako ganadu-tratuak adierazten dizkigu. Gertatutako gauzak, alegia. Bigarren goan, berriz, ezkontza-tratuak, berak asmatutako kontuak eskeiñiz, baiña egiazko milla gertakizunen kutsua berekin dutenak.

Ala, gure erriak bere bizitzaren abe eta ardatza izan du tratua. Baiña berari buruzko libururik ez genduan euskeraz. Onako au, beraz, aurrena.

ISBN 84-95378-02-7



9 788495 378026

